# Goi-yakintza'runtz urbiltzeko nayean, euzkeraz egindako uŕats txikiak




Uŕestarazu'taŕ Andoni
-Umandi-

KARDABERAZ BILDUMA - 45

---

**GOI - YAKINTZA'RUNTZ**

**URBILTZEKO NAYEAN,**

**EUZKERAZ - EGINDAKO**

**URATS TXIKIAK**

# Goi - yakintza'runtz urbiltzeko nayean, euzkeraz egindako uŕats txikiak




Uŕestarazu'taŕ Andoni
- Umandi -

Autor: Uŕestarazu'taŕ Andoni - «Umandi»
Edita: Uŕestarazu'taŕ Andoni
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria
Depósito Legal: VI - 318/93
I.S.B.N.: 84-604-6049-5

# ITZAUŔEA

GOI-YAKINTZA — «Izaki, asierak eta zioak aztertzen dituen yakintza».

Orixe dala esaten da alde guztietan «goi-yakintza»; ta izkuntza geyenetan berari buruz amaika iritzi emanak eta berein idazti egiñak dagoz. Gizon eta gogo-lantze guztien jo-muga bezela agertzen da, ikasten dan guziaren asiera ta oñaŕia lez alde guztietan batera onartzen dana. Beraz bidezkoa dirudi euzkeraz ere yakintza ortan ari-izatea.

Ezer geyago esan baño len, beaŕa edo izan beaŕ da niretzat auxe aitortzea: Iñungo ikastola, iñungo ikastola nagusian, yakintza oŕi buruz ikasketarik egiña ez dudala; alakotz, oŕezaz ari-izateko, asierarik ez dudala, gertapenik ere ez; oŕengatik nik esango dudan guztia nire kabuz egiña beaŕ eta izango da. Ta oŕela ari-izateko, ene buruari ori ia ausardia, ausardi aundiegia nire baitan ez ote dagoen askotan galdetu diot; nor ote naiz ni oŕela jokatzeko?; iñor ez noski, ta azketsi dakidala eskatzea noraezekoa zait bete-betean.

Alan eta guzti, gai atsegiña dudalako, ta naiz eta nire iritzietan beti labuŕ geratuaŕen, euzkeraren alde jokatzeko beaŕean eta nayean nagoelako, baŕuti ortan sartzea erabaki dut, «uŕats txikietan» beti yarduteko xedeaz eta nire adimen motza eldu al diteken mugaŕietarañо bakaŕik joateko asmoz.

Euzkeran eliztia bai, sakon aztertu ta ikasi egin dut; eta elizti ori ain berezko ta edeŕa dala ikustean, ain aberatsa ta egokia ere dugula oartzean, ba-dirudi, beaŕezko ondorioa bezela, «goi-yakintzaruntz urbiltzeko naya» ene baitan sortu zaidala. Edozein eliztia, nire ustez, oŕela jokatzeko bide ego-

kia edo da; arau orokaŕa edo, ortan ikusi beaŕ da; orobat euzkera ere, elburu ortarako gure bide berezia edo, egokia izango zaigulakoan nago.

Beste aldetik, gure izkuntza onek ba bide dauzka goi-yakintzaren eginkizunetan ari-izateko bere berezitasunak eta, okeŕ ezpanago oyen bitartez eldu al-izango gera goiko gai ontan barna egokiro ibiltzeko. Auek edo izan ditezke berezitasun oyetatik batzuen batzuk: «Alkaŕ» itza; «—men eta —pen»; «—era ta —kera»; «—tasun eta —keri»; oyek atzizkiak; «ene baitan eta enegan» esakunetan; «izen-joko»ta «aditz-joko»'an erabiltzen diran erak. Guzti oyetan agertzen diran asmoak goi-yakintzari dagozkiola edo egoki dakizkiokela iruditzen zaigu bereziki.

Gaur erderaz oldozten dugulako (ain zuzen ikasi dugun guzia erderaren bidez gureganatzeko indarturik izan geralako), eziña dala dirudi goi-yakintzan gaur uŕats sendoak eman al-izatea, ta urbiltzeko nayean bakaŕik edo ibili beaŕ dugu; ta gure uŕatsak, benetan, sendoak izan ditezken euzkeraz berez oldoztea ezinbestekoa izango zaigu ala beaŕean; eta euzkeraz oldozteko, beaŕ-beaŕa izango da beti gai guztien beŕi euzkeraren bidez artzea. Tokitan gagoz oindiño ortaraño eltzeko; baña ori gure elburu gotoŕa izan beaŕ da, ta gure eginkizunak ortaruntz zuzenduta ere.

Euzkeraz oldoztea... Eztakit onezaz naikoa ta beaŕ dan sakoneraz oldozten ote dan, baña oŕela egitea guretzat ezinbestekoa bezela dala ikusi ta begiratu beaŕ dugu. Egi-egia da gurean, betidanik edo, ikasketak egiteko, beti, erdera ikasi ta erabili beaŕ-izan dugula, euzkera ortarako eziña izan dala ustean. Aldamenean dauzkagun lateŕiak ere beren erderak indaŕez aŕerazi dizkigute, eten gabe gure euzkera zearo arbuyatzen; eta gure auŕekoek —eztut begiratu beaŕ zergatik— etxetik at eratu zan euzkerarekiko iritzia onartu zuten, arazoa aztertu gabe ta oŕela beren burua jakituna bezela aurkezteko nayean. Okeŕ aundia, noski, joan diran aldietan gurean buru-



tu zana; ta ezin esan diteke oŕela jokatzean gure izkuntzarako ta gure Eŕi'aren bizirako nolako kalte aundia ekaŕi zutela. Gaur ondo ikus ditzakegu ondorioak zelangoak diran, aldia igarotzean gero ta aundiago ta kaltegaŕiagoak ditugularik.

Eta onela ezin Goi-Yakintza zelayetan gure izkuntza onen bitartez ibiltzea, ez eta urbiltzea ere, iñori edo ori egitea otu ez zayolarik. Onela beti izan gera erdal-gogoaren menpekoak; onela gerok ukatu egin dugu gure Eŕi'aren izaera berezia; ta siñisgaitza benetan oŕen bera jausi gerala ikusi-beaŕa. Itsu, zearo itsu egon dira beti gure arbasoak, egoki ta beaŕa zitzayen bidea ikusi barik; eta naiz eta beren Eŕia biotzez maite, ondatzera eraman zuten zuzen-zuzen. Oŕengatik gaur, gure izkuntzaz oso atzeratuta gagozela ateman beaŕ-izan dugu, ta bera jasotzeko oso zaĺa zaigu lan egokia egitea. Baña gure arazo ain gaŕantzitsu au, dagoen bezela artu beaŕ dugu ta egokia izango dan bezela zuzentzeko lan eta lan egin beaŕ-izango dugu, gai ontaz buru-belaŕi ari-izatean.

Gure beaŕa olaxe dagoelarik eta gure Eŕia, Euzkal-Eŕi bezela, sendo ta zabal bizi-izaten egiz nai baldin badugu, baitezpadakoa zaigu lanean bipil sartu, sakondu ta auŕera eramatea. Lenengo uŕatsa, ene ustez, eliztia ondo ikastea izan beaŕ; gero, naiz mintzatzeko naiz idazteko, bere arau guztiak zeazki ta aŕetaz erabiltzeko; auxe egiten da Ludi ontako izkuntza guztietan eta batez ere gogo-lantzean oso auŕeratuta dagozenetan; orobat egin beaŕ dugu geuk euzkera gure mintzairaz, bidezkoa danez; auxe gogoratzean gañera: izkuntza aundietan zeazki oso beren arauak aŕeta aundienaz jaŕaitzen dituzte, eta arau oyek aukerakoak dira geyenak, guztiak ezpadira, ta aitzitik euzkerarenak berezkoak ditugu osorik, eta oŕela beartuagoak edo gera ongienik ezagutzea ta erabiltzea.

Bai, eliztia dugu Goi-Yakintza'runtz abiatzeko eman beaŕ dan lenengo uŕatsa ta uŕats gotoŕa ere; ori, xede ortarako,

oñaŕi sendo ta beaŕa bezela artu beaŕ da, elbururuntz eskiertasunez ibiltzen eta auŕeratzeko. Alde ta Eŕi guztietan orixe egiten da ta lenengo ikastoletan batik bat eliztia da sakon irakasten eta ikasten dana. Alakotz, guk ere orixe bera da egin beaŕ duguna, zabarkeria izan diteken guzia zearo astantzean; ortaz erabiŀi al-izango dugun aŕeta guziaz beti jokatzean; izkuntza ta Eŕi'ak bizi-izateko orixe beaŕ dute osoro.

Goi-Yakintza, yakintza bezela, besteen artean, negusia dugu enurarik gabe; Goi-Yakintza adimenaren bidez begiratu beaŕ da, gogoaren baranoan ibiŀi ta erabiltzeko dugularik; galga ortan beti, goyera goyenean eta iñoiz beruntz abiatzean, iñoiz beko gayetaz eta gauzetara jetxi gabe; adimenean bakaŕik eta bereziki yardutekoa dana. Oŕengatik yakintza ortaz ari dana guztiz goratua ari da, bere buru oŕela ikusten eta atematean.

Izaki, asierak eta zioak aztertzean ba-du goi-yakintzalariak gaya naikoa bizi luze baterako; lan ugari, lan edeŕa, lan onuratsua ere betetzeko ta burutzeko beti; iñoiz amaituko ez zayon lana gañera, betikoa dala baitirudi; ta lan oŕen ondorioak be goi-goiko galgaetan ikusteko diralarik. Eta guztia oŕela izanik, nola ez dugu ikusiko beti Goi-Yakintza yakintza nagusiena bezela?; enurarik ez, beraz, oŕen aintzakotzat eukitzeko.

Erakarpen aundikoa, ziñez, Goi-Yakintza'rena, ikasi nai duenarentzat, alegia, ta batez ere sakontasunezko gayetan bere burua murgildu nai duenarentzat. Jakiña, oŕelako ikasketak eta ikas-gayak gure baitan erabiltzekoak dira bete-betean, gure gogoaren almenak benetan aztertu ditzaketenak. Eta galga ortako bizia goi-goyeneko bizia dala argi ta garbi edonork ikusteko; beraz, ortxe sakontzea eginkizun edeŕenetakoa enurarik gabe. Bai, erakarpen aundia ortxe yarduteko xedea ta iŕika biziena be.

Gogo-bizia gizonarentzat, oso loraturik ageŕ dakiguken bide zabala, bide atsegiña; bizi ontan goza diteken bide ez-



titsuena eiki. Gure Eŕia, bere edestiaren barna, ez zaigu agertzen bide ortan barna saŕi ibiltzeko gogoaz, apaizak, lekaide ta lekaimeak izan ezik; ondorioaz irakurtzeko ta idazteko zaletasuna uŕi beti gure eŕitaŕen artean, zoritxaŕez. Eta jokera ori zuzentzeko beaŕenezko xedea piztu-eratzea ezinbestekoa dala deritzaigu; batez ere gure euzkera au ortan ari-izateko bide egokienetakoa dala ikustean. Orixe izan beaŕ gure Eŕi'aren bizia maite duenarentzat jo-muga oso egokia; ta orixe izatea nai dugu gure lantxo onena ere; baitezpadakoa deritzaigularik, gure Eŕi'ari eskeintzen diogu biotz-biotzez.

# I. BIZIA

Zer ote da Goi-Yakintza? Zer begiratzen du? Zer aztertzen du? Zer ikasten du? Zertarako ote da bere yardunbidea?

Lenengo galderari erantzuteko, orokaŕa dan mal̄ean, guziek ao batez onela esaten digute Goi-Yakintza zer dan:

Izakien izaera, zeindasun, zio ta ondorioak aztertzen dituen yakintza.

Yakintza onen zati berezia, gaŕantzidunena ta bere asikera bezela izanik, Auŕe-Yakintza dugu, ta bereziki lendabiziko ta orokaŕak diran asierak aztertzen ditu. Beraz, ba-dirudi Goi-Yakintza'ri buruz ari-izateko, zati berezi oŕezaz yardutea oso egoki ta beaŕa izango dala.

Jakiña, gure asmoa, oŕezaz erabil̄iko dugun guzia, gure adimenaren mugaetan zedaŕiturik, euzkeraz egin nai dugu, euzkeraz oldozten, euzkeraz gogoetatzen, euzkeraz begiratzen eta euzkeraz aztertzen ari-izatea da. Ez dugu uste ori egitea eŕaz izango zaigula; alde batetik gure gogo-lantze guzia, naiz eta txikia izan, erderaz egin beaŕ-izan dugulako; bestetik, gure gogo-lantze ortan Goi-Yakintza'ri buruz iñoiz ezertxo ere ikasi ez dugulako; gañera, gai onezaz eztakigu euzkeraz ezer egiña ote dagoen, eta egon ezkero eztugu ori ezagutzeko aukerarik izan. Alakotz, ez-ikasi ta ez-jakiña bezela ari beaŕ-izango dugu; azketsi bekit nire ausardia oŕela ari-izateko, baña euzkerak berak lan ortan yarduteko, apika, bere bide bereziak emango dizkidalakoan nagoelako, bekokia dut zera ortan sartzeko.

Noski, Auŕe-Yakintza Goi-Yakintza'ren auŕekoa bada, beratzaz yarduten astea ezinbestekoa dala dirudi. Ekin dezagun, bada, oŕela.



Esan dugunez, Auŕe-Yakintza, lendabiziko ta orokaŕak diran asierak aztertzeko yakintza dugu; ta oŕela izanik, bidezkoa zaigu lendabiziko asierak eta asiera orokoŕak zeintzuk ote diran galdetzea.

Enurarik gabe, lendabiziko asierak ere ez dituzte guziek berdin ikusten; eta, gutxienez, berdiñak ez diran bi azpegi auek dagozela autortu beaŕ-izango dugu: Sorkundea ta Aldakundea. Ez dugu gurean zalantzik lenengoa onartzeko ta bigaŕena astantzeko. Sorkundea'n agertzen dan lenengo agerpena BIZIA da, agiri-agirian; eta geron aldetik, siñestunak geralako, BIZIA Yainkoa'k soŕerazi duela egi-egitzat dugu, guretzat egi aundiena Yainkoa ba-dala ta betikoa ba-dala autortzea dalako; ta oŕengatik bakaŕik, beste karirik bil̄atu gabe, Yainkoa Bizi'aren iturburua bezela ikusten dugu.

Alaz ere, bigaŕen azpegia ere zertxobait begiratu beaŕ dugu, zergatik onartzen eztugun azaltzeko bederen. Aldakundea onartzen dutenek BIZIA gai'tik sortzen dala bayezten dute; ta sortze ori azaltzeko, onela gogartzen dute, batzuen batzuek beñepein: Bein, zeatzez noiz izan ote zan esan eziñean, zibizki bat (ba-dakigu zibizkia zer dan: azke izan diteken gorputz baten zati txikiena, bera kizi batzuen bidez egiña izanik) kizkin bat biurtuta izan zala. (Kizkin bat ere zer dan ikustekoa da, ta onela diñote jakitunek: Bizi danaren oñaŕizko izagaya); beraz, kizkin batean ba-dago bizia, ta biziaren lenengo aztarna bezela begira dezakegu.

Oŕela, zibizki (bizi gabeko ekaya) batetik, kizkin (bizidun)'era egiña izan omen zan biziaren lenengo uŕatsa. Baña, nun, noiz, nola ta zergatik eman zan uŕats ori?, ain gaŕantziduna agertzen zaigun uŕatsa? Nolako ekayarena izan zan zibizki ori? Zibizki bakaŕa izan al zan aldatua izan zana? Zergatik ekai batean zibizki bat bakaŕik (oŕela izan bazan)? Zergatik ez beste ekai baten beste zibizkiren bat? Zein ekayarena izan zan aldatutako zibizkia? Noiz gertatu ote zan aldakera ori?, bein bakaŕik? Ekai batean eta bein bakaŕik ori

gertatu bazan, zergatik ez ekai bertan beste zibizkiak beste ainbeste ez egin? Nola eman zan uŕats aundi ura? Zergatik jazo zan ura? Zergatik ez zan beŕitu ekai berean edo beste batean?

Oso ospetsua dugun Teilhard de Chardin'ek bere «Giza-agerkizuna» idaztian, 369'gn. oŕialdean onela diño: «Aspaldidanik Gizona ez da aldakeraz igitzen, iñoiz igitu baldin bada». «Gugan, Gizonak —ororen zentzuaren eraren batek oindiño eusten dio— bizi-aldakundea osotzen du». Orduan, Aldakundea gizona agertu zanean amaitu al zan?, eta nolako gizon-maĺa izan zan ura?, eta zergatik orduan?

Amaika galderak sortzen dira, ala beaŕik, uŕats oŕi buruz. Ba al dagoz galdera oyetarako erantzun egokiak?; geuk bederen eztitugu ezagutzen, eta ez dugu ikusten Aldakunde'rako argibiderik. Azkenez ortan ere siñistea al da egin beaŕ dana? Eta siñistu beaŕ bada, bidezkoago deritzaigu Sorkundea'n siñistu. Utzi dezagun, oŕengatik, alboratua Aldakundea'ren asmoa, ta goazen Sorkundea begiratzen.

Alakotz, Sorkundea'n ikusten dugu BIZI'aren asiera; ta Sorkunde'aren egiĺea Yainkoa izan zala siñisten dugulako, Bera da, zalantzik gabe, Bizi'aren asiera, egiazko asiera. Oŕa oŕ gure oñaŕi sendoa.

Aztertu dezagun orain, Bizia nun, nola ta norengan ala zeñengan sortzen dan. Ludi ontan bitarikoak ditugu bertan dagozen guztiak: bizidunak eta bizigabeak; bigaŕenak gauzak dira ta biziari buruz ezer ez. Ori dala-ta, bizidunengan agertzen dan bizia da begiratu beaŕ duguna.

Kizi batean lengai batzuk ere ba-dagozela esan dizaigukete, ta egia da; arestian idoro diranak: proton, neutron eta abaŕ, eta oyetatik indaŕ aundia irten ditekela ere; baña, ori dala-ta, auxe galde dezakegu: Indaŕ ortan bizirik al dago?, edo: indaŕ ori bizia al da? Ez, geron ustez, ortan indaŕ bat baño besterik ezta; sutan, urtan, aidetan ere ba-dago indaŕen bat, baña bizirik ez; orobat gertatzen bide da kizian.



Oŕengatik BIZIA bizidunengan bakaŕik agertzen dala bayeztu dezakegu; beraz orixe dugu aztertzeko bakaŕik.

Biziaren asmo orokaŕa bizidun guziai dagokien aŕen, bizidunengan ikusten dan bizia ez da guziengan berdin, eta aldakuntza aundia oartzen da zentzungabeetan dagoena zentzundunengan agertzen danarekin erkatzen badugu; aundiagoa oindiño bi oyek gizonagan dagoenarekin erkatu ezkero.

Noski, bizidun guziok jayotzen gera, azten eta iltzen ere; ortaz guziok bat gera, berdin; baña belarkiak ez dira ibilpidedunak, abereak eta gizona bezela; alakotz, lenengoak eta besteak alkaŕi buruz oso ezberdiñak gera ta bizia ez da, neuŕi osoan, berbera oroengan. Oŕengatik lenengoak albora ditzakegu, besteak begiratzeko; baña abere ta gizonaren biziak ere, alkaŕekiko urbiĺago egonaŕen, oyek be eztira berdin, gizona adimenduna dalako ta mintzatzen dalako. Oŕela izanik, beraz, abereak ere alboan utzi ditzakegu, gizonaren bizia bakaŕik aztertzeko, gizonarengan bizi osoa dagoelako, ta osoa ikusi ezkero, bere zatiak be ikusita geratuko dira, ots, gizonaren bizia begiratzean beste bizidunena ere oartuta geratuko dalako.

Oŕengatik, goazen gizonaren bizia aŕetaz aztertzera, beragan eta bere baitan bedegaŕak diran azpegiak ikustean. Arean, ba-dago gizonarengan, abereengan eta zentzundun guziengan dagoen bizi-mueta bera; jakiña, zentzundunak geran guziok ikusten, entzuten, usaintzen, gozatzen eta ikutzen dugu, bai ta konormen eta konorpenak be ba-ditugu; ots, soñari dagozkion almenak, eta guzti oyek *gorputz-bizia* osotzen dutela oartu beaŕ dugu. Itz batean, gorputz-bizia zentzundun guziena da, zalantzik ez ortaz.

Baña gizonak ba-du beste zentzundunak eztutena. Gizonak adimena du ta oldozmena edo gogamena ere, bai ta oarmen, oroimen, naimen, ikasmen, gogoramen, ezagumen, uler-

men, burutamen, egiztamen, asmamen, arkimen, aztermena be; ta guzti oyek *gogo-bizia* osotzen dute.

Alakotz, ba-ditu gizonak *bi bizi-mueta*; bata bere gogoan, bere baitan dago, bestea gorputzean, beregan eiki; ta biak alkarturik gizonaren bizi osoa burutzen dute. Ta bi bizi-mueta oyek alkaŕenganako jokatzen dute, gogoarena nagusia izatean.



## II. ITZA

Bedegaŕak diran ikusitako ezpegi guzti oyek, egitan, gizonak dituen beste ainbeste doayak, eskaŕak, dira. Nundik ala norengandik datozkio gizonari doai edo eskaŕ oyek? Siñistun geranontzat zalantzik ez, eta bereala erantzuteko: Yainkoa'rengandik; oso ulerkaitza baita beste edonundik izatea, eziña oso Aldakunde'aren bidetik, gayezkoa dan ezerezetik. Oŕa oŕ Sorkunde asmoari indaŕa ematen dion oarmena.

Ba-dago, oindiño, adimendunok bakaŕik dugun beste bedegaŕ nabarienetakoa dana: *itzegiteko almena*, alegia. Berezi-berezia dugu almen au, ta bere gaŕantzia ezin esan diteke ongi nolakoa dan eta norano el diteken, ain aundi ta zabala baita.

Doai ikusgaŕi ta aŕigaŕia, bai, itzegiteko doaya, ondo ta sakon aztertu nai-izango genukena.

Itzen bidez itzegiten dugu, itzak egitea baita mintzatzea. Itzak dagizkigu bai ta, gero, oguztatu ere; ta itzak oguztatzearen bidez, besteai, barneko gure oldozpenak eta oarpenak jakin-erazten dizkiegu; oŕa oŕ gizonok alkaŕenganako yarduna zein egokiro betetzen dugun.

Txiki-txikitatik ikasten du gizonak mintzatzen, bakoitzak bere gurasoen izkuntzak dituen itzen bidez, geyenetan: eta bidezkoena bezela agertzen da doai ori gizonaren baitan.

Ba-dago doai ontan zerbait ezkutuki-margoa duena. Nola eldu zayo gizonari doai ori? Eta nora?, gogoagana?, soñarengana?, biengana? Eta zertarako?, itzegiteko bakaŕik?, oldozteko ere?, nolabait idazteko be? Ba-dagoz azpegi batzuk ikusteko almen onen inguruan, eta berbertan be begiratzeko ta aztertzeko.

Len egipen batzuk aipatu ditugu, batzuk gogoari dagozkionak, beste batzuk soñari, oŕela ondo zedaŕiturik geratzeko. Baña itzaren ardiespena bienganaño eltzen dala oartzekoa da, gogoarenganaño lenengoz, soñarenganaño gero, naiz eta bi zera oyek, geyenetan, ez oso argi ikusi. Ta ontaraño eldu ezkero, bidezkoa dirudi galdera au egitea: Nola sortzen da itza gure baitan eta nola guregan?, gure baitan, gogoan noski, ta guregan, soñean eskierki; gogoan aurki lenengoz, soñarengana gero igaro al-izateko. Itza, beraz, biei dagokielarik, bien lokaŕi edeŕ eta berezia da ain zuzen, nunbait bizi biak bat egiten, edo alkartzen bederen, estu-estuki alkartzen.

Itza itzegitekoa da, mintzatzekoa, jakiña; baña egiz esan dezakegu itza oldoztekoa ere dala, itza oldozpen txikiena egiteko be ezinbestekoa baita; maiz esan da itzen bidez oldozten dugula ta ezin ukatu ori egia dala. Uste dezakegu oldozpen-pindaŕ bat nolabait geron baitan jauzi edo sortu egiten dala, itzik eratu baño lenago, baña oŕela baldin bada ere, egiazko oldozpen txikiena eratzeko, itza beaŕ-beaŕa zaigula, pindaŕ ori guztiz mengela dalarik. Eta geron baitagandik, geron gogoarengandik, gerongana, geron soñarengana igarotzeko ta bertan bizi al-izateko, itza agertzen da baitezpadako bidea bezela. Orixe da, geron ustez, gizonarengan itzaren jokoa; ta oŕela gure bi bizien lokaŕi edeŕena lez agertzen da, soñarena gogoarenarekin bat egiten.

Naiz eta esandakoa, geron gardiz, oŕela izan, ba-dirudi itza, bereziki, mintzatzekoa dala, ots, besteekin aŕemanetan ari-izateko, geron baitan sortu ta bereala geronganatzera doalako, oguzita izateko, ta oŕen bidez beste norbaitekin itzegin al-izateko, esan nai duguna beste oŕek entzun dezan. Eta oldozteko erabiltzean ere, aoko atean be jartzen bide da oguzteko xedeaz; oŕengatik oldoztean be entzun gabeko oguztean darabilgula esan genezake.

Ez bide dago, ez gure baitan ez eta guregan ere oŕen antzeko izan diteken beste doairik. Aundia da, noski, gure



adimenaren doaya, indarduna benetan, beraren bidez gauza ta egipen eta gertapenak oro ulertzeko aña baita; baña ari-izateko, ara men agertzen zayon itza, ezinbesteko laguna bezela.

Siñisten dugunok ba-dakigu Yainkoa ta gizonaren artean bein-betiko alkartasuna dagoela, ta alkartasun ori Yosukristo dala, Yosukristo Yainkoa'ren itza dalarik. Eta gizona Yainkoa'ren antzera egiña dalako, ez ote dugu ikusi beaŕ gure itzaren yarduna Yainkoa'renaren antzekoa dala?; onek Yainkoa ta gizona alkartzen ditu, gureak gure izaera osotzen duten bi biziak, gogoarena ta soñarena. Ortan gizona Yainkoa'ren antzera egiña dala egiztatzen edo zaigulakoan egon beaŕ.

Alde guzietatik begiratzean nabari-nabari agertzen zaigu itzaren gaŕantzi aundia, gaŕantzi nagusiena dala esango genuke. Bai, aundiena bezala ikusteko, gizonari emandako almena, bizian barna beste izakirik eztuena, ta gizona bizidunen mail goyenera jasoten duena; alakotz, almen ori gure izaerarengan dagoen aundiena bezela begiratu beaŕ dugu, ta oŕela gizonaren goitasun eta duintasuna agiri-agirian dagoz.

Asi gaitezen orain gure izaera edo bizi osoaren beste azpegi bat beste azpegi berezi bat begiratzen eta aztertzen; nolabait itzarenak darabiĺen aurkako bidean barna doakiguna; noski onek barnetik lekorera, geron baitan asi ondoren gerongana doalarik; besteak, aitzitik, lekoretik barnera, gerongandik geron baitaruntz dagi bere bidea. Ikus dezagun nola:

Guziok ongi dakigunez bost zentzu bereziak ditu gizonak berarengan: ikusmena, entzumena, usaimena, txastamena ta ikumena, bostok beren jokera alkaŕenaren antzekoa dutelarik. Aipa dezagun, ereduz, lenengoa, ta begira dezagun nola jokatzen duen: Begien bidez artzen ditu zentzu onek guregandik at dagozen beste izakien izate edo egipenen eraso ta azalpenak; oyetako edozein artu ta berealaxe, ikuskirien bidez, jasotakoa burumuñera doa, bertan ikusmenaren egipena buru-

turik geratzeko; burumuñak bi zati berezi auek dituela: goiko ta aurreko garuna, ta beko ta atzekoa; burumuña kirio-bilgo nagusia izanik.

Ikusmenaren jokera ori gizonarengan bezela abere guziengan ere gertatzen da, ta soñari dagokio bakarrik guregan buruturik izateko. Baña beste zerbait gertatzen da gizonaren izaeran, abereenean jazoten eztana; gizonarengan gertatutakoa, nolabait, gizonaren baitanera igarotzen dala esan dezakegu, burumuñean burututakoa adimeneraño ere eltzen da, ikusmenak jasotako irudiari eskerr, adimenak bereala ikusitakoaren ondorioak ateratzen ditu, amaika izan ditezken ondorioak, bai ta ondorio oyei buruz oldozketak egiten. Orrela soñaren bizitik gogoarenera zentzuak jasotakoa, nolabait, eltzen dala esan genezake; egitan ba-dakigu orrelaxe gertatzen eztala, baña bai gogoan bere ondorioak berealaxe sorrerazten dituela. Nola burutzen da joko ori?; lenago esan dugunez eta orok ongi dakigularik, gure nortasunean gogoak eta soñak bat egiten dute alkartasun egokienean; eta zentzuek lekoretik artzen dutena burumuñeraño bakarrik eltzen dalako, ez al dezakegu uste alkartasun ori, ain zuzen, soñaren aldetik ortxe, burumuñean bertan, egiten dala? Onela dirudi ta orrengatik egitzat edo arr dezakegu gure soñaren zati bereziena, berebizikoena, buruko burumuña dala. Apika gure gogoa gure soin osoaren barna edatua da ta orrela gure bi bizien alkartasuna burutzen ere; alabaña soñaren aldetik, egiz, alkartasun ori burumuñean egiten bada, uste genezake gogoaren aldetik be ba edo dagoela orren antzekoa izan diteken beste bere zati berezia alkartasuna burutzeko.

Jakiña, gure gogoa gure nortasunean zedarrituturik dago, baña eztakigu egiazki bere era nolakoa dan, ez eta soñaren antzera, atalduna ote dan; bere ondorioetatik lortzen dugu bakarrik gogoaren izaera ba-dagoela jakitea, ta, geyagorik gabe, orrezaz zuzen ezin ezer jakin eta izaera ori guretzat ezkutuki bat bezela begiratu bearr dugu. Zalantzik ez, eiki, gure



gogoa guregan bizi dala gogo-bizia burutzen, baña egiazko bere era berezia nolakoa dan eziña da guretzat ezagutzea.

Edozein eraz guregan gure bost zentzuek burutzen duten lana oargarria da ta ikusgarria ta arrigarria ere, zentzundunak diran beste izakiengan ere berdin jokatzen dalarik; ortan zentzundunen bizia bera, ororengan gertatzen da era berean, eta bizi orren ondorioetan bakarrik agertzen da gizonagan soilki dagoen berezitasuna, ondorio oyek gogo-bizian barna gertatzen diralarik, gogo ta soñak duten beren alkartasunaren eskérr eta bidez.

Orrela agertzen dira, ongienik, zentzundunen biziak egokiro zedarrituturik, gizonarena beti ta argi goi-goyenetakoa bezela nabaritzen, beste guzien gain eta beste guztiak baño galga jasoenean ari-izateko. Argi ta garbi oarr dezakegu, alakotz, gizona Yainkoa'ren ekintza ederr eta berebizikoa dala, Ludi'an barna eiki ekintza garrantzidunena ta oargarriena ere.

## III. ADIMENA

Gizonaren bi bizi-motak, gogoarena ta soñarena, bere nortasuna betetzen dutenak, guztiz alkarturik agertzen zaizkigu, ain zuzen nortasun ori eratzeko ta osotzeko. Ořengatik bien arteko alkartasuna, ertsi-ertsia dana, bide askoren bitartez burutzen da egokienik, bakoitzarengandik bestearengana jokatzean, ots, alkařengandik eta alkařengana, bere baitarengandik bereganarengana, ta alderantziz ere, bereganarengandik bere baitarengana. Eta jokera ortan, batzuetan zuzen eta besteetan zeařez gertatzen da; e.b., ikusi dugunez, itzaren bidea zuzen ari da ta zentzuen bidea zeařez; baña biak, alkařen leyan, gizonaren izaera burutzen eta zabaltzen.

Ba-dira beste bideak, beste egipen eta eragipenak, geyago ala gutxiago, aipatzen dugun alkartasunean yarduten dutenak. Ikus ditzagun zeintzuk diran eta nola jokatzen duten.

Sena dugu berezienetako bat, zentzundun guztiengan eta bakoitzean beren gisaz agertzen dala. Zer ote da sena? Ez da, noski, adimena, baña nolabait bere antzekoa bezela begira dezakegu.

Ba-dago sena, bai, gizonarengan, baña onek adimenduna dalako, adimenaren bidez yarduten du geyenetan eta bereziki, ta ořengatik ere senaz gutxienetan eskierki. Abereengan, ostera, adimenik ez dutelako, senaz ari dira beti, ta ořela berengan oartzen da geyago senaren izatea ta senaren egitea. Ta ikusgařia ta ařigařia ere agertzen da sen ori, beti ta bakoitzarengan era berean jokatzen; eta ořengatik be gizona ez dan bizidunagan sen ořek zedařitua bezela jokatzen du, ořela bearturik. Oř dugu, gañera, gizona ta beste zentzundunen artean ikustekoa dan ezberdintasuna. Senez ari diranak



azkatasunik ez, gaur gauza bat eta biar beste bat egiteko; oyek beti senak ematen dien bidean barna ibiľi beař dute, egunero gauza berak eta berdiñak burutzen; oř ditugu erleak eta txinduřiak gauza bera beti egiten, ezin beste jokera erabiľi, ta ořela almenik ez oyengan azke jokatzeko, nai ya nayezkoa da beren yarduna, ta yardun ořen pean bizi dira beren bizi guzian eta beren ibiltze guztietan.

Gizonak, aitzitik, adimenaz jokatzen du geyenetan eta iñoiz senaz ere ari bada, beste zentzundunak bezela diardu adimenik izango ezpalu bezela. Gertatzen zayo, bai, gizonari ořelaxe yarduteko, baña orduan oldozmenik gabe ari da, bere baitan ezer oartu gabe ta berarengan bakařik gertatzen danaz. Argi dago, beraz, adimena bere gogo-biziarena dala, bere baitan gertatzen dala; ta sena bere soñean, berarengan bakařik. Soñean, berarengan, izaki zentzundun guziak bezela; gogoan, beřiz, bere baitan, gizona dan izaki adimenduna bezela. Ezberdintasun aundia, berezi, aipagařiena, gizona ta beste zentzundunen artean dagoena; oñaři edeřa ori, noski, gizonaren nortasuna ta duintasuna agertzeko, oartzeko ta goraipatzeko.

Ba-dirudi, batzuetan, sena adimenaren ordekoaren antzekoa dala, nolabait bere osotasunera eltzen ez dan adimenaren asiera bezela ikus ditekena; baña, egitan, berdin ez diran bi gertapen ditugu zera ortan: bata adimena ta bestea sena; adimena gizonaren baitan dago ta sena zentzundun guztiengan; ta biak erkatu gabe begiratu ta aztertu beař ditugu, bakoitzari bere izaera berezian dagokiona aztertzean.

Ba-da ařigařia adimena, ba-da ařigařia ere sena, neuři askoz aundiagoan lenengoa, noski; baña bere galgan oso ařigařia be bigařena. Naimenik gabe jokatzen dute gizona ez diran zentzundunak, eta beren jokaeraetan beti berdin agertzen diralarik; jokatze ortan itsu-itsu bezela yarduten dute beti; ezin jokatze ortatik atera, ezin oyentzat beste jokabiderik ikusi, ta ortan dago oyengan oartzekoa dan ařitasuna,

aztaka-aztaka gelgar̃ia ari ta beti berdin ari, batzuetan, erleengan bezela, gauza guztiz ar̃igar̃ia, egiten eta burutzen. Alaz ere, tokitan geratzen da ori gizon adimendunaren jokeraren aldean; eta auxe da, benetan, gizonaren nortasun berezia ederkienik oar̃erazten duena, bide egoki ta eder̃a orixe nabaritzeko. Guzti or̃ezaz gero ta geyago oldozten badugu, gero ta obeto, argiago ere ikusten dugu izadian gizona dagoen galga goituena dala, izadi guziko izaki bereziena dala ta guztiz goraipatzeko dugula.

Sena dala-ta, ortik zentzundunengan ezaguerarik sortzen ote da? Ustekoa izango litzake nolabait asieran, sena ta ezagueraren asmoak alkarturik bezela ikustea, biak alkar̃enganako ain urbil dagozelarik; baña arazo au iraitzean bakar̃ik begiraturik, argi ta berealaxe oar̃ dezakegu or̃elakorik ez dala, ta sena zentzundun guztiengan egonar̃en, ezaguera garbi agertzen da adimenaren jokaera bat bakar̃ik dala; beraz, ezaguera adimenduna dan gizonarengan (bere baitan) bai, beste zentzundunengan ez; ezin sena ta ezagueran alkartasunik ikusi.

Or̃elaxe, geron ustez, zedar̃iturik geratzen da oso, adimendunak ez diran izakien izaera, zedar̃i estu-estuetan edatua bakar̃ik dagoela. Or̃engatik oyek nolabait gure gogoetatik at utzi ditzakegu, adimenduna dan gizonak burutzen dituen egipenetan barna ari-izateko. Goazen, alakotz, oyei buruzko azterketan yardutera.

Adimena. Bearbada gizonak duen men (almen) aundiena, adiña izatekoa dana. Ta zer ote da adiña? Gauzak eta egipenak eta gogayak eta oldozmenak zeintzuk diran, nolakoak diran uler̃-antzea. Adimena ezagupenak lortzeko almena dala esan genezake, apika; ta Adiña, ezagupenak lortzeko bidea.

Adimena = Adin izateko almena (mena).

Adimena = Gizonak duen men aundiena, ots, adiñena.

Aztertu dezagun «adimen» itza. Beste bi itzen bidez eratua dala ikusten dugu: «adi» ta «men»; «adi», noski, gure baitan izan diteken guztia ulertzekoa da; ta «men», al-izatea, gaitasun edo bidea. Beraz, «adimena» dan-dana ulertzeko almena da, gai edo bidea ere arean; ala asmo guzti oyek bat eginda osotua dana; baña batik bat ulertzeko almena.



Eta almen or̃en esker̃, geron baitan, oldozkun, asmo, gogai, zentzun, gogaketak, erkatzea... ateman eta erabil ditzakegu...; ta ortan ikusi bear̃ gure barneko bizia, gure gogo-bizia... geron baitan dagoena.

«Adi», «adimen» eta «adin» itzek ba-dute alkar̃en antza, naiz beren egituran naiz beren esan-nayean; izan ere ba edo dira gogai baten litsak; eta lits oyek onela edo ikusteko:

«Adi», «adimen»'aren bidez «adin»'era bide doa, gure barneko eratortze bereziaz, gogoetan barna dabil̃elarik.

«Adi», noski, gogayaren asiera bezela ikusteko; «adimen» «adi» ortan dagoen almen jator̃ eta aundia; «adin», lenengo «adi», «adimen»'aren ondorio lez, gogo-egimena biurturik. Orixe bide da geron baitan gertatzen dan gure gogoaren jokoa, gure barnean, gure baitan, eten gabeko ekitean ari zaiguna.

Eta joko or̃en esker̃ eta joko or̃en bitartez, ezagumen, gogamen, oldozmen, ulermen, oroimen, naimen, zentzumen, ..., ots, gure gogoan, gure baitan, gure barneko bizian izan ditezken gogo-jokera guztiak.

Ikus ditekenez, argi agertzen da gure baitan, gure gogoan dagoen bizia nalako zabala dugun eta oso ur̃utira be eldu ditekela, ba-dirudi ia mugarik ez dagoeneraño. Eta or̃ela izanik oso almen aundikoa bezela begiratu bear̃ dugu ortaraño eltzeko dugun gogo-bidea, ots, «adi» ta «adimena»; ar̃igar̃ia benetan. Bai ta ortan ere auxe ikusteko: Giza-gogoa nolako aunditasunean begiratu bear̃ dugun; or̃ela be gizonaren gogo-bizia goi-goyenekoa dala, argi ta garbi, nola agertzen zaigun.

Ofen aldean Ludi'ko beste gauza guztiak, ben-benetan, oso txikiak agertu beaŕ, naiz eta yakintzan bertan aundi ta aŕigaŕiak izan. Oŕa oŕ gizonaren gogo-bizia gorenetakoa dala edo, obeto, gorena egitan, Luŕ gañean; oŕa ere gizona, emen irasitako dagoen ororen gai, gogo-bizi utsean ipiñita dagoela, ta ezin ortaraño beste izakirik eldu. Alakotz, Luŕ'ean irasita dagozen izaki guztiak onelaxe ikusi beaŕ ditugula: Alde batean, goi-goyean, gizona; ta bestean beste izaki guztiak, beeragoan.

Ba ote da, arean, jakingaŕi ta aztergaŕia gizonaren gogo-bizia nolakoa dan eta nola yardun dezaken begiratzea? Bai, enurarik gabe, ta ain zuzen lan ori egiteko Goi-yakintza dugu, yakintzaen yakintza dana. Goazen, bada, ikasgai oyetan barna ta gure adimenaren bidez, gure uŕats berezienak egiten, naiz eta ortarako gure almena txikia izan; alan eta guzti ekin dezagun al-izango duguneraño eltzeko xedeaz; eztugu uste guztiz alpeŕik izango dana.



## IV. OLDOZMENA

Adimenari buruz ari ondoren, beraren bidez betetzen ditugun egipen batzuk ikusi ta begiratzea oso egokia edo izango zaigu; ta egipen oyetatik lenengoa, beaŕ bada gaŕantzi aundienetakoa dana, oldoztea dugu. Bai, ortarako dugu adimena ta oŕen eskeŕ bakaŕik oldozten du gizonak. Eta beaŕ-beaŕa zaigu guztioi ortan ari-izatea, gauza guztien beŕi zeatza, egiazko beŕia izateko, ta egin beaŕ dugun oro ere ongi egiteko, auŕetik astiro ta sakon oldoztu beaŕ, okeŕik ez burutzeko ta yardutean egokiro ari-izateko ere; jakiña, ortarako adimena jaŕi beaŕ dugu jokoan, oldozmena zuzen ari dedin eta oldozmenetik be oldozpen zeatzak ateratzeko.

Ba-dugu, beraz, oldozmena, ots, oldoztu al-izateko mena edo almena, adimenaren azpegi berezia bezela, ezinbestekoa dan ondorioa bezela, adimenetik sortzen dana; ta ba-dugu, ukan ere, oldozpena, ots, oldozmena egiña biurtuta. Oldozmena, alegia, gure baitan almena dugu, ta oldozpena oldozmenaren ondorioa, oldozmena yardutearen ondorioa, au be geron baitan kokaturik. Naiz oldozmena naiz oldozpena geron baitan ari-izatekoak ditugu, ezin ortik at bizi, ezin guregana eldu, itza, e.b., eltzen dan bezela. Alakotz, oldozmena ta oldozpena, aita ta seme beleza begira ditzakegunak, geron baitan bakaŕik dute beren zer-ikusi guztia, ta an gure gogo-biziari lan, bizi ta izate berezia ematen dizkiote sendo, gogo-bizi ori mardul eta etenkitsua izan dedin. Eta bizi oŕen azpegiak bezela ere begira genitzake.

Zer da, baña, oldoztea?, nola ari zaigu gure baitan oldozmena, nola oldozpena? Zertarako oldozten dugu?, zer lortzen da oldozmena eragiten?, zertarako ere oldozpena?, zer

ateratzen dugu naiz bera naiz bestea erabiltzetik?, ezinbestekoa ote zayo gizonari oldozten? Amaika egin ditezken onelako galderak.

Noski, lenengoz, esan dugun bezela, oldozmena adimenaren egitea da, egipen bereziena apika; oŕela, adimena erabiltzean, onen almen berezienetakoa erakusten da, geron baitan dagoen bizi yaukala nolako sakon eta indartsua dan adieraztean. Baña zeazki, berez, oldozmena zer da? Onela edo eman genezake erantzun egokia: Oldozmenaren bitartez, notin, gauza, asmo, gogai, yakintza, antze ta zentzundunen gogozkoak diran gorabera guziak nolakoak diran, zertarako ditugun eta nola erabiĺi beaŕ diran ere ondo ikusten ditugu. Esan diteke guzti ori adimenak ere burutzen duela, ta egia da, ta oldozmena adimenaren zatia dalarik, bidezkoa izan beaŕ biek lana bera ere egiten dutela; baña oldozmenak, lan ori mugatuago bezela dagi, adimenaren almena lantzean lez erabiĺiko bailuen.

Eztira, eiki, gauza bera adimena ta oldozmena; adimena asierako almena bezela begiratu dezakegu, ta oldozmena oŕen ondorio bat lez, adimenaren ondorio zuzen-zuzen eta bidezkoena bezela. Beste azpegiz auxe be esan genezake: oldozmena adimenaren yarduteko bidea dala, bide bat bederen; eta biak gure gogo-izatearen agiriak lez agertzen zaizkigula.

Oldozmenaren yardutean adimena bizi dala esango genuke, ta oŕela oldozpena biurturik adimena ba-dugula argi oaŕ dezakegu, ta oldozpena eratzean agertzen zaizkigu naiz oldozmena naiz adimena; oldozpena, beraz, adimen eta oldozmena geron baitan diardutela jakiteko, bide egokia bezela begiratu beaŕ dugu, ta begiratze oŕen bidez bi gogo-almen aundi oyen jabe gerala ikus dezakegu, geron baitan bizi diran bi almen aundi oyek gure gogo-aberastasuna nolakoa dan ongi ezagutzeko.

Eta nolakoa da oldozpenaren izakera? Enurarik gabe oso zabala, amaika bideetan barna ari zaigulako. Naiz aundia



naiz txikia, edo arin ala sakona izan, eragikoŕa dugu beti oldozpena, gizonaren bizirako, gogo-bizirako ezinbestekoa dala adierazten, oldozpena egitean bakaŕik bizi ori gerta baititeke, oldozpenaren arauz izateko; alakotz, oldozpena nolako, gogo-bizia ere alako izango da beti, ta oldozpenetan barna bizi-izateko ta agertzeko, noski, adimenean eta geron baitan ari dan gure gogo-bizi guztian; oŕa nun eta nola edatzen dan gizonaren baitan guztiz gogozkoa dan bere gogo-bizi bedegaŕa oso; ta oŕa oŕ nola agertzen zaigun, argienik, gizonaren garaitasuna bizidun guztien artean, bera baita bakaŕik goyera ortan bizi ta yardun dezakena.

Oso zabala dugu, ziñez, oldozpenaren eginkizuna, bakoitzak berez dagiena; naiz eta neuŕi oso txikian izan, jayo ta laisteŕ ara norberaren baitan adimena ta oldozmena yardutean eta ondorioaz aldamenean dagoen guziari buruz oldozpenak burutzeko; gero, adiñaz eta batez ere ikastean, oldozpenak aundiago, zabalago, sakonago egiteko. Gizona gero ta jakitunago izan, oldozpenen bitartez igoten da yakintza-maĺadian gora, guziek oldozpenari gero ta gaŕantzi aundiagoa ematen; aintzat artzen da alde ta toki guztietan oldozpenetan ari dan gizona bai ta oldozpena bera ere. Parantzi'ko irudigiĺe aundia izan zan Rodin'ek ederki adierazi zuen ori «oldozketaria» izena daraman bere lan berezi ta egokiaren bitartez.

Oŕela ikusten dugu, argi, gizon bat oldozketaria izatearen gaŕantzia, oldozpenetan ari-izatean goi-goyeneko gogo-bizian murgildurik agertzen dalako; oŕa ben-benetako garaitasuna, gizonari ain egokia zayona. Ba-dirudi gogo-bizian mugarik ezagutzen eztala, ta oŕelaxe ezin adimenarentzat, oldozmenarentzat, ari-izateko landa zabalagorik izatea, gizon guzientzat idekirik dagoena, ta beraren barna guztiok yardun beaŕ, bakoitza al duneraño eltzeko; ta oldozketariak dira zabaltasun ortan uŕutieneraño eltzea lortzen dutenak.

Biziduna dan gizonarentzat oldoztea da, bereziki, bizi-

-izatea, gogoaren galgan egokienik bizi-izatea, ezin beste oberik izan, eta bizi ori norberaren baitan ikus dezakegu sortzen, edatzen, sakontzen eta indartzen. Gogoari bakařik dagokio bizi ori, edo gogoan bakařik sortzen eta zabaltzen dala ere esan dezakegu, oldozmenak batera almen eta doaya dirala argi erakusten duelarik. Goikoa'rengandik datorkigun almena ta geron aldetik doai edeřenetakoa bezela gozatzeko duguna; bai, doaya biurtu zaigun almena. Zoriontsua benetan gizona, bere baitan egipen aipagařia dan ori buruturik ikus dezakelako.

Oldozmena, oldozpena, oldozketa; irugařen au beste bietatik sortu ta egiña dala ikusi beař, bigařena lenengoa dan bestetik datorkigularik ere; kiri ortan, gañera, jokaera guzia burutzeko, alda ezin diteken kirian eta guziontzat ořela gertatzen dalarik. Eziña izango litzake gizonarentzat bizia oldozketarik egin gabe, batez ere gogo-bizia, ta oparo emana dugu guztiok guzi ontan dagoen indař berezi ta goragařia. Ez ote garama egi ořek emaľearenganuntz, guzion gañean bizi dan ororen sortzaľea dan ořenganuntz? Ez al da asmo ori Goikoa bizi dala adierazten digun egiztabide bedegařa?, Geron aldetik egi-egia bezela onartzeko duguna.

Diñogunez oldozmenetik oldozpena datoř eta bietatik oldozketa, ots, etořera ortatik betetzen dan egipena. Nola burutzen da jokera ori? Zalantzik gabe itzaren bidez, eta len esan genuena ere ona izango zaigu emen beřiro gogoratzea: Itzen bidez egiten da oldozpena, bai ta oldozketa ere, ziñez; itzen bidez oldozten da ta ez dugu iñoiz oř agertzen dan egia aiztu beař. Bai, ezinbestekoak ditugu itzak gure oldozpenak eta gure oldozketak egiteko; ta naiz oldozmena, oldozpena ta oldozketak, naiz ta bigařen eta irugařena burutzeko darabilzkigun itzak gure baitan bertan sortzen eta bizi dira beste iñora igaro gabe. Ořa oř gure gogo-bizia burutzeko ditugun goi-goyeneko gure bide yaukalak, ořa gizonarena dan almen



goragařia, berarena bakařik dana, ta beste izaki guztietatik goratuta agertzen zaiguna.

Ořela dugu ikusteko, adimenarena dan egipen gorenengoa, oso ondo gure gizon-izana ederkienik erakus eta egiztatzen duena: oldozmena ta bertatik datozen oldozpena ta oldozketa. Bidezkoa da, beařa ere, gure baitan batez be gizonak duen bizia ondo ulertzeko, egokia dan azterketa egitean atematen duguna, ta ořen ezagupena be izateko.

## V. ZENTZUMENA - GOGAMENA - ASMAMENA

Auŕeko atalean oldozmenaren gaŕantzia oaŕerazi dugu, bai ta oldozmenetik oldozpena nola datoŕen, bai ta bi oyetatik oldozketa ere nola sortzen dan. Eta guzia gizonaren adimenean ari-izateko dagoen bide bikaña adierazteko.

Adimenaren ari-izate ortan ba-dagoz beste azpegiak, begiratzeko ta aztertzeko oso egokiak diranak, beaŕak ere gure gogo-bizia obeto ikusi ta ulertzeko. Bertan auetxek ditugu: Zentzumen, gogamen, asmamen, ulermen eta ezagumen; guziak adimenaren eta oldozmenaren beste almenak bezela ikusi ditzakegunak, eta ororen artean gure gogo-biziaren edapena nolako zabala dugun oartzeko. Begira ditzagun guztiak bat-banaka, oro alik eta ongienik ateman al-izateko.

ZENTZUMENA. Zer ote da zentzumena?, gure baitan erabiltzeko dugun zentzumena? Onela edo guzien aldetik onartzen danez: Ona gaitzetik eta egizkoa gezuŕezkotik ongi bereiztea; bai ta bi asmo edo gogayak alkaŕenganako azpegian ikustea. Eta esan-nai ortan gizonarentzat zentzumen zuzena izateak duen gaŕantzia garbi agertzen da.

Jakiña, zentzumena zuzena izan diteke baña okeŕa ere, zentzumena gure adimenean oldozmena bezela sortzen eztalako; oldozmena adimenean bitartekorik gabe gertatzen da edo gerta diteke; zentzumena ez. Zentzumena ari-izateko, ona ta gaitza, egia ta gezuŕa bereizteko, asmo edo gogayak ere izatea ezinbestekoa zayo, oyei buruz yardutea berarentzat beaŕ-beaŕezkoa dalako; eta ortatik sortzen da zentzumena zuzen ala okeŕa izan al-izatea. Beraz, gure baitan dagozen adimena ta oldozmena ezinbestekoak ditugu zentzumena jokoan ibiltzeko; baña ez ori bakaŕik, gure baitan eta guregan ez da-



gozen beste azpegiak noraezekoak ditugu zentzumena gertatu al-izateko; ta oŕ auxe ere agertzen zaigu garbi: gure baitan dagozen almenak eta oyen lekorean eta gugandik at dagozen beste gogayen artean sortu diteken alkartasuna, zentzumenaren bitartez burutzen dana. Ta zentzumenetik zentzuna ta zentzua bere egipenak bezela sortzen zaizkigu, zentzuna adiña bezela ta zentzua oarmena legez.

Goazen orain GOGAMEN'aren almena ikustera:

Gogamena oldozmenetik sortzen dan egipena dugu, zuzen-zuzen eta ezinbestekoa bezela datoŕela; ta egipen berberak ez diran bi almen oyek ain alkarturik agertzen diralako, ba-dirudi biak gauza bera dirala, ta saŕi bi izen oyen bidez, oldozmenarena dana adierazten da. Baña guzia zeatzez begiratu ezkero, garbi agertzen da oldozmena adimenetik sortzen dala ta gogamena oldozmenetik.

Oldozmenean, noski, goi-goyeneko almena ikusten da, ta gogamena almen ortatik datoŕen egipen bat legez. Eta egipen ori, enurarik gabe, auxe da: oldozmena gai berezi guztiai buruz erabiltzea, oso egokia zayon jokeraz. Beraz, oldozmeneko gai bakoitzean eta guztietan erabiltzekoa dugu gogamena; ta jokera oyek, ziñez, gure baitan sortu ta erabiltzen dirala ateman beaŕ da. Jakiña, gure baitan dagozen almen oyek eta beren erabiltzea, gure baitan egon aŕen, guregan eta gugandik at izan ditezken beste egipenak soŕerazi ditzakete; baña oyek beste azpegiak dira lengoetatik ateratzen diranak lengoetakoekin bat egin gabe; ta oŕela lenengoak diran bi oyek, ots, oldozmena ta gogamena gure baitan bakaŕik dagozenak ditugu, eztabaidarik gabe.

Guzti au esateko gure gogamena erabiĺi dugu, arean; baña beti oldozmenaren asmoaz nastu gabe; ta orixe gerta diteke gure baitan burutuko ditugun gogamen guztietan; eta gogamenaren egipenean beste azpegi auek ere oaŕ ditzakegu: gogartea edo gogarketa, ots, gogarmenaren ari-izatea bezela;

gogapen ere dei dezakeguna; gogartu, ots, gogamenaren erabiltzea.

ASMAMENA begiratzen jaŕai gaitezke. Zer da, bada, asmamena?; geron ustez onela begira dezakegu: gogamenaren edapena bezela, gogamena erabiltzearen egipena lez. Ongi ateman ditekenez gure gogo-almen guziak beste batengandik sortzen dira gure baitan beti. Ba-dugu oldozmena, bera erabiltzean bereala sortzen da gogamena ta uŕengoan, bereala, asmamena.

Asmamenaren bidez, gogamenak soŕerazten dituen asmoak, gogayak, alde guztietatik begiratzen ditugu, onak ala txaŕak, egokiak ala ezegokiak, onartzeko ala astantzeko ote diran ongi oartzeko. Ta berezkuntza oyek egitea, guretzat, gure gogo-biziarentzat ain beaŕa zaigularik, oŕela begira dezakegu asmamenaren lana nolako gaŕantziduna dan gure bizirako, gure gogo-bizirako batik bat, goi-goyenean eramateko ta oŕela eusteko ere, zentzundunak geranez oŕela jaŕaitzeko ta mail ortatik, iñola ere, ez beeratzeko.

Jakiña, gure asmamenak bide okeŕa be aŕ dezake, ta orduan elduko dan ondorioa guretzat guztiz kaltegaŕia izan diteke; baña oŕek ez dio ezer kentzen asmamenaren almenari, ta au gogo-egipen bat bezela bakaŕik begira dezakegu beti, onerako ala gaitzerako erabil̄ita izango ote dan gogoratu gabe, ots, bere goiko izaeran ikusten; ta oŕela gure adimenetik sortutako ondorio guztiz berezkoa bezela.

Oldozmen, gogamen eta asmamenetik beste zerbaitera eldu gaitezke; noski, asmo ta gauzak ulertzeko ta ezagutzeko, ta ondorioaz guziai buruz zerbait, asko ala gutxi, jakiteko. Oŕela gogo-kate oŕen azken estunetara eltzen da: ulertzeraño, ezagutzeraño ta jakiteraño. Ba-ditugu, beraz, gure baitan beti beste iru almen auek: ULERMENA, EZAGUMENA ta YAKINTASUN. Egitan, ulermenean eta ezagumenean dago almena, ez yakintasunean; auxe azken elburua bezela agertzen zaigu, aipatutako almen guztietatik etoŕia bezela. Ta yakintasun ori, benetan, gure baitan gertatzen dan egipena dugu; arean, gero, yakintasun oŕen bitartez guregan eta inguruan soŕ ditezken beste egipenetara igaro gaitezke, yakintasun ori gure bizirako egokitasunez erabiltzean; baña emen geron baitan bakaŕik gertatzen dan izaera bezela begiratzea dugu naikoa, geron baitan edatzen dan neuŕian eta egokeran yarduteko.



Beaŕa zaigu ulermena, ezagumena ere soŕ dedin, auxe lenengotik ateratzean, ta biak oso alkartuta bezela agertzen diralarik; bai, beaŕ-beaŕa zaigu ulertzea geron baitan ezagumena ere izateko, ezinbesteko ondorioa lez; eta bietatik, azkenez, yakintasuna lortzeko.

Gogai guzti auek erabiltzean, garbi atera dezakegu geron baitan dagoen gogo-bizia nolako zabala dan, eta ziñez oyen bitartez betetzen dugu egokienik gure barneko bizi ori, geron baitan daramagun goi-goyeneko bizi yaukal ori. Ta guzia oŕela begiratzean, beste ondorio au be atera dezakegu: gizonaren tasuna berebizikoa dala, beste bizidun guztiengandik oso goratua dagoela oartzean. Eztago, beraz, ludi ontan beste izaki goituagoa, ta ortik be bere duintasuna nolako nabarmendurik dala ere begiratzekoa dugu. Ta gizonak, guzti ori oartu ondoren, onartu beaŕ du zearo, bere bizian barna duintasun ortan irauteko alegin aundienak bete egin beaŕ dituela, egokia zayonez ongienik bizi-izateko.

Orain arte begira ta aztertu ditugun gogo-almenak, argi agertzen danez, geron baitan bizi dirala, ez guregan, itza izanezik, au galga bietan ari-izan ditekelako, ateman dezakegu ongi. Alakotz, egokia da ta izateko ere, giza-izaeran ezberdiñak diran bi mail dagozela izaera ori osotzean, geron baitan eta guregan, bakoitzari dagokion eraz, oartu ditezkenak. Ezta esan beaŕik bi galga oyen artean alkartasun aundia dagoela, ta beaŕa izango zaigu beti alkartasun ortatik soŕ dite-

ken nolabaiteko nastean ez sartzeko, noiz edo noiz oso eřaz izango eztana; ořengatik ařeta aundiaz yardutea izango zaigu noraezekoa, asmo guztiak alik eta garbienik ikusi al-izateko. Orixe izango da beti guztiontzat ari-izateko baldintza beařa, gero ta auřerago eldu gaitezken.



## VI. ZENTZUN, ZENTZU

Auřeko atalean esan dugunez, zentzuna ta zentzua zentzumenetik sortzen dira onen egipenak bezela, zentzuna adiña bezela ta zentzua oarmena legez.

Bai noski, zentzuna zentzumenaren egipen bat da, adiñaren ondo-ondoan egotean eta onen antzera jokatzean, baña biak, adiña ta zentzuna gauza bera izan gabe. III'gařen atalean esan genuenez, adiña gogo-egimena egiña dugu, geron baitan buruturik dagoen egimena; ta zentzuna egimen ořen jokatzea bezela ikus dezakegu, bide batez zentzumenaren egipena izanik. Ořela zentzuna jokatzean gure iritziak egiten ditugu, gogarte, gogapen eta gogaketak burutzeko, oro geron baitan gertatzen dalarik.

Zentzua datoř gero, oarmena legez esan dugu lentxoago, baña bai ta oarpena bezela; beraz zentzua geron baitan eta guregan, bi galga oyetan batera agertzean edo agertu al-izatean; ots, zentzuak guregan agertzen dira, gure soñean, baña bai ta gure baitan ere, gure gogoan; eta zentzuak guregan eta gure soñaren ataletan kokaturik ditugu, bakoitza berean; atal bakoitzean bere lan berezia egiteko.

Bai, gogai bat gure adiñaren barnean kokaturik ere ikus dezakegu ta bereala, zentzunaren bidez, gogai ori begiratzen eta aztertzen ari gera, azkenez zentzuak oartu ta zeřibait buruz eramateko. Ořela nonbait gogai baten eratortzea, geron baitan gertatua, ta ondorioaz guganа ere eltzean, gure baitan eta guregan dagozen bost bideetan barna edaturik.

Bost bide bereziak dauzkagu zentzua ageřerazteko, bai gure baitan bai guregan, bost zentzu bezela ere ikus ditzakegunak; eta bostak ditugu galga bi oyetan agertzen diralarik,

bakoitzarentzat bere bide berezia izanik, bi azpegietan begiratu beaŕ ditugula. Ona emen bost bide edo bost zentzu oyek zeintzuk diran:

Ikusmena ta ikuspena; entzumena ta entzupena; usaimena ta usaipena; txastamena ta txastapena; ikumena ta ikupena. Bikote bakoitzean —men eta —pen atzizkiak ditugu bi bide oyek alkaŕengandik bereizteko; lenengoa gogaya geron baitan dagoenean eta bigaŕena guregana eltzen danean, biak noski egipen baten bi egokera ezberdiñei dagozkienak.

Eta bi egokera oyetatik zein da lenengoa ta zein ondoria?, oŕela agertzen baitira naiz eta biak agertze bat bakaŕik bezela begiratu. Ikus dezagun zeatzez agertze ori nola burutzen dan: Gauza bat ikusten badugu, guregan dagoen ikuspenak artu ta bereganatzen du ikusitakoa, baña berealaxe, aldi berean esan diteke, gure baitan dagoen ikusmenak gauza bera oartzen du, ikustearen egipena buruturik uzteko; oŕela ikuspen eta ikusmen anai bikiak legez begira ditzakegu, ziñez gauza beraren. azpegi ezberdiñak izatean, bat gugan eta bestea gure baitan, baña gauza edo egipen berbera diralarik.

Ez da gertatzen orain, len itzaz gertatzen zana, ta egiz esan dezakegu alderantziz agertzen dala. Itzaren asiera gure baitan dago, gero, guregana eltzeko; zentzua, aitzitik, guregan asten da izaten, guregandik at dagoen zerbaitek soŕeraztean, eta gero gure baitara igarotzen da artutakoa zentzunari eskeintzeko. Oŕa zentzu ta zentzunaren artean gertatzen dan jokoa, zentzumenaren almena nabaritzeko.

Ikusmenaren zentzun eta zentzuari buruz esan duguna berdin gertatzen da beste lau zentzun eta zentzuetarako ere: Soñu edo otsen bat egiten da gugandik lekorean, eta bereala gure entzupenak oartzen du, berealaxe gure entzumenera eltzeko, entzutearen egipena buruturik gera dedin, eta beti bezela zentzumenaren baranoan gertaturik izateko.

Orobat esan dezakegu usaipena ta usaimenari buruz, eta txastapen eta txastamenaz, eta ikupen eta ikumenaz. Oŕa gure



bost zentzumen eta bost zentzupen gure gogo-biziari, gure adimenari nola ematen dizkieten ari-izateko gayak, gure gogo-almenak gai guzti oyek bereganatzen eta oyen bitartez bere jokera nabaritzen.

Eta aipatu ditugun berezitasunak, zentzun eta zentzuai dagozkienak, euzkerak dauzkan —MEN eta —PEN atzizkien bidez oso egokiro adierazten; oŕ ikus dezakegu atzizki oyen gaŕantzia, edo beren bitartez gure izkuntzak duena. Eta ortxe be ongi egiztatua dago izkuntza itzegiteko bidea bakaŕik ez dala, oldozmena ekitean jartzeko ere baño, ta aipatu ditugun beste egipenak azaltzeko be, geron baitan eta guregan dauzkagun almenak ongienik nabarierazten, bai ta gogoen eta soñekoenak nola alkartzen zaizkigun eta gizonaren izatean nolako bizi goitua dagoen.

Esan al genezake zentzuna ta zentzua gauza bera dirala?, ala gauza baten abaŕak bezela ikus ditezkela?, zentzumenarenak apika? Noski ezin ikus ditzakegu almen berak gauza bera bezela, len argi ikusi baitugu beren jokerak bereziak dirala; baña bai zentzumenaren abaŕak dirala. Beraz, berdin ez baña bai alkaŕ betetzekoak edo zentzumenaren elburua burutzeko ditugula.

Zentzun eta zentzua aztertzean, emen egin dugun bezela edo beste edozein eraz, ezin utzi dezakegu alboan eta begiratu gabe, guregan dauzkagun zentzuaren azpegiak, ots, soin-zentzuak besteengana eltzeko beaŕezko ta berezko bideak diralako. Bost ditugu soin-zentzu oyek, guziok ondo ezagutzen ditugunok jayotzetik eta gure bizi osoan barna eten gabe darabilzkigulako, auetxek: Ikuspena, entzupena, usaipena, txastapena ta ikupena; bakoitza gure soñean bere toki berezian jaŕirik eta beti bere lana betetzen biziaren unealdi guztietan. Eta bost soin-zentzu oyen bitartez oartzen dugu ongienik egitan bizi gerala, ta beste lagunai ere orixe bera jakinerazten

diegu argiro. Ta soiñiztiaren aldetik ongi ezagutzen dira ain ařigařia dan beren antolabidean eta beren egituran be, baña gure elbururako eztugu beař ořezaz geyago begiratzea.

Beste aldetik, bai, oso egokia izan beař gure lanerako oyetan oař ditekena, auxe: zentzu oyen bitartez gugandik at dagoena gureganatu dugu lenengoz eta berealaxe gure baitan ipiñi-erazteko, ta ortan agertzen zaigu ederkienik gure soña ta gure gogoaren artean dagoen alkartasun ařigařia. Ta alkartasun ori onela betetzen dalarik: guregan dagoen zentzu bakoitzak ba-du gure baitan zuzen dagokion beste bat, egitan biak zentzua bera osotzen dutelarik; ořela guregan dugun ikuspena gure baitan ikusmena da, ta orobat besteak ere: entzupena, entzumena; usaipena, usaimena; txastapena, txastamena, ta ikupena, ikumena; bigařenetan zentzuen egipena burutzen dala ikusi beař da; egitan zentzuek geron baitan dute bereziki beren egipena burutzeko beař-beařa dan almena, egipen guzti oyek zeintzuk eta nolakoak diran ikusi al-izateko.

Gure izkuntzak bi azpegi betegaři oyek adierazteko, bi atzizki oso egokiak ditu len esan dugun bezela; *—men* eta *—pen*, goi-yakintzaren aldetik oso aintzakotzat artu beař diranak, eta oyen bitartez ondo alkartzen dira bi egipen ezberdiñak, baña batera datozenak zentzuen izaera egokiro betetzean, eta bi atzizki oyen asmoak alkartasun edeřean agertzen zaizkigu gure baitan eta guregan gertatzen diran egipenak alkařekin gertatzen dirala ongi azaltzen digutelarik.

Baña ba-dago beste azpegi bat ikusteko egokia dana, gure baitan eta guregan betetzen diran gogayak eta egipenak beti betegařiak bezela aurkezten zaizkigula. Len ikusi genuenez, itza zan alkartasun ori erakusten ziguna, geron baitanetik guregana igarotzean; orain —men eta —pen atzizkiak, aitzitik, beste zentzunaz ikusi ditugu, guregandik gure baitanera-



ño eltzean, baña naiz ura naiz auek egokienik adieraztean gure izaeran dagoen batasuna ederkienik oartu al-izateko, ots, gogo ta aragia dan giza-izakia goi-goyeneko galgan eratua dagoela, izatean eta yardutean, bide batez bere duintasuna ere egiztatzean.

## VII. EZAGUMENA

EZAGUMENA adimenaren zati bat bezela begira dezakegu, eta zeatzago adimenaren almen bat bezela, edo adimena bera zer dan atemateko bide bat legez; almen eta bide oyek batera ikusteko egokiena apika, edo bigaŕena lenengoaren beaŕezko ondorioa legez bidezkoena.

Almena bezela ikusteko, lenengoz, itzak berak adierazten duenez, ots, EZAGU + —MEN; ezagutzeko edo ezagutu al-izateko gizonak adimenean duen almena. Ta ezagutu, zer?: Bizia, itza, oldozmena, adimena bera, zentzumena, gogamena, zentzuna, ...; itz batean, oro, geron baitan, geronengan eta oyetatik at dagoen guzia ere, oro. EZAGUMENA, Gogo-Guren'aren bigaŕen doaya ...

Eta zer ote da gogo, asmo, itz, notin eta gauzaen ezagutzea? Beren izaera ta, ondorioz, beren jokatzea nolakoak diran ikusteko dugun almena noski, beren zabalera osoan gañera, bietatik sortzen diran azpegi guztietan eta bietatik be soŕ ditezken ondorio orotan ere. Gaŕantzi aundienetakoa ezagumena gizonaren baitan, zer oldoztu ta nola jokatu beaŕ duen erabakitzeko ezinbestekoa baitzayo ororen ezagumen zeatza ukatzea.

Ezagumena, asieran esan dugunez, adimenaren almena bada, argi dago adimenetik bertatik sortzen dala, ta ezagumena erabiltzetik ezaubidea sortzen da bidezkoa danez; beraz, ezaubidea ezagumenaren egipen bezela begira dezakegu, ta ezaubidearen azken ondorioa ezagupena dugu.

Beaŕ-beaŕezkoa, eiki, gizonarentzat bere ezagumena erabiltzea; ezagumena bera izateko, baña oldozteko ere, enurarik gabe, ondo ulertzen ezpaita zeribait buruz oldoztea zer oŕen



ezagupena ezpadago; alkartasun aundia, beraz, oldozmen eta ezagumen artean. Alakotz, gure gogoaren bizian azpegi beñenak bezela begiratzeko.

«Ezagutu ezazu zure burua» diño esakun zaŕak; eta esakun ortan argi agertzen da ezagumena edo ezagutzearen almena nolakoa dan gaŕantzidun, gaŕantzi oso aundia baita gizonarentzat bera nolakoa dan ongi jakitea, ots, bere nortasunaren ezagupena ukatzea. Eta zertarako?, galde dezake norbaitek; jakiña, bizian barna ongi ari dan ala ez jakiteko, ta bere jokaera aldatzea beaŕezkoa ote zayon ikusteko ere.

Ezagumena, beraz, adimenaren almen berezi ori, norberaren baitan egin eta burutu diteken guzia zer dan, zer izan beaŕ dan eta nola yardun beaŕ dan jakiteko, bide egokiena dugu; ta, egitan, aŕigaŕia da oyen beŕi gure baitan argi ikusteko dugun doaya. Aŕigaŕia, bai, benetan, gizonaren baitan dagoen almen berezi ori, adimena guzia bezela, gizonaren nortasun aundia egokienik adierazteko izadi guzian erpin goyenean dagoela egiztatzen duena.

Ezagupenak deitzen dira, saŕi, jakin ditezken gauzak beren osotasunean deitzeko, ta ezagupenak, azkenez, jakintza bera da, orixe baita jakintza, ezagupenak eukitzea, ta jakintza izatea esan ordez ezagupenak eukitzea esan dezakegu; berdin esan diteke jakintsua dana ezagupenak dauzkana dala, ta gero ta jakintsuagoa da norbait, gero ta ezagupenak geyago dauzkan neuŕian. Oŕa bada, argi, ezagumen eta ezagupenen gaŕantzia nolako aundia dan.

Ezagumena, alakotz, almen, eta ezagupena bere ondorioa, auxe, ala beaŕean, lenengotik etortzean; eta gure almen guzietan bezela gure baitan dagoen bizia nolako edeŕa dan garbi ikus dezakegu; yoritasunez mukuŕuturik ikusteko gure gogo-bizi ori, oŕela gizonaren nortasuna izaki guzien gañetik goratua nolakoa dan atemateko; bai, izadi guzian gizontasuna erpin-erpiñean kokaturik agertzen zaigu argienik.

Ezagumenetik ere ezaubidea dugu, ots, ezagupenen eskiertasuna; naiz eta beti okeŕ egon gaitezkela onartu, neuŕi oso zabalean bederen eskiertasuna euki dezakegu, ta ortara eltzeko bidea, jakiña, ezaubidea da. Ba-ditugu, oŕela, ezagumena, ezagupena ta ezaubidea, ezagun-asmoaren azpegiak bezela ta alkartasun estua betetzean. Eta ezagupen itzak adierazten duena ezagutza ere dei dezakegu egokiro.

Ba-du gizonak ezagupenak eukitzeko gogoa, biziaren azpegia edozein izan; iñoiz asetu ezin diteken gogo ori beti gizonaren baitan eta oŕi buruz gizona eten gabe egaŕiz bizi beaŕ. Artega beti be gizona ezagupenak bereganatzeko yoranean; alde batetik ezagupen bakoitzean zoŕotz sakondu nayean, eta bestetik ezagupenak gero ta geyago lortzeko gogoaz; iñoiz, sakondu diteken neuŕi osoraño eldu al ote dan jakiteke, ta orobat ezagupenen beŕi guziraño eldu eziñean, gutxiago ateman ditezken ezagupen guziak zenbat ote diran ezin jakitean. Alan eta guzti ezagupenen atzetik tai gabe gizona yoranez beterik.

Zergatik, baña, ezagun-egaŕia gizonaren baitan?; nola ta zer dala-ta eldu da gizona bere baitan ezagumena daukala ematateko?; nola ikusi du gero ezagupenak eukitzeko gaya zala?, nola ezaubidea be ezagumenetik datorkiola oartu? Gogoaren bizi zabal eta sakonean beaŕezko ondorio guziak, eta gizonarentzat ortan ere gogo-aberastasun aundia ikusi beaŕ; naiz eta gai-bizian kokaturik bizi-izateko bearturik izan, ba-dauzka gizonak gogo-alak gogo-eguan barna egan al-izateko.

Eŕukia benetan aberastasun aundi oŕen beŕirik izan gabe bizi dan gizona, oso bean jausita bezela ikusi baititeke; bere baitan almen aŕigaŕi ori euki ta oŕi buruz jakin-eza egotea, ozta-oztan abereen izakera baño goratuxea ikusi beaŕ bere burua, guztiz goratuago begiratu ordez. Eŕukia, bai, oŕela dagoen gizona, ta duintasunez beteta, ordea, oŕi buruz oarturik bizi dana. Oŕela ikusteko, beraz, gizonaren tasuna nolako aipagaŕia izan diteken eta gizon-izatea nolako neuŕi ta bideaz ezagutu dezakegun.



Esan dugunez ezaubidea ukan dezakegu, ezagupenean nolabait eskieŕ egoteko; gure eskiertasuna, alegia, ezin izan diteke iñoiz oso-osoa, baña bai neuŕi egoki batean gure ezagupenak eta gure oldozpenak egokiro tinkaturik eukitzeko, galga on batean bederen adimenaren azpegiak argi xamaŕ eta beren zabaltasun aundienetan barna ongi oartzeko; oŕa ezaubidea izateak duen gaŕantzi aundi ta egokia, orixe gizonaren gogo-bizian ikus dezakegun doai edeŕa.

Amaikatxo bizian eta edestian barna gizonengan izandako ezagupenak, gai guzietako ezagupenak; berak izatea ere ba-da aŕigaŕia, gizonaren gogo-bizia nolako zabala dugun adierazteko. Baña gizonen alkaŕenganako aŕeman oyen bidez nola sortu ta edatu al-izan dan ere begiratzekoa dugu, ori izatearen uŕengo gizonentzat nolako egokia izan dan ikusteko, gizonak berak, lenengoz, alkaŕ ezagutzeko bide ona izatean; eta gero guztien beste ezagupenak ere alkaŕi jakin-erazteko, oŕela gizadiaren bizi osoa egokiro be burutzeko.

Oŕa noraño eltzen dan ezagumenaren almena, gure gogo-bizia mail goyenetan barna edaturik ikusi al-izateko, goratasun aundienean eta duintasun edeŕean izan eta zabaltzeko, luditik guztiz goratua begira dezakegun egokeran. Orixe eiki bide egokiena gure egiazko bizia nun dagoen ikusteko ta Yainkoa'renganuntz urbiltzen gaituena. Oŕengatik ere siñismenaren betegaŕia bezela begiratzeko duguna, goi-goyenean gure gogo guzia kokaturik jartzeko ta gizonaren azken elburu ondoan egon al-izateko.

Guztiz beaŕa, alakotz, gizonarentzat ezagumena zer dan jakitea, ta ezagumenaren bidez nola jokatu ta noraño el diteken jakin eta oartu dezaken ematateko. Oŕengatik ere zalantzarik ez gizonaren ari-izatea zein eta nolakoa izan beaŕ

dan jakiteko ta norabide edeŕaren zeaŕ joan dedin ezpairik gabe izateko. Ta ortan edo dago ezagumenaren egokitasun aundiena, gizonarentzat oso beaŕa ta egokiena dana. Oŕela ezagumenaren bidez egiazko biziruntz, abiatu jaŕai ta eltzeko yoranez beterik zuzen ibiltzearen jokabidea zein dan argi ta garbi ikusteko.



## VIII. OROIMENA

Zer ote da oroimena? Guziok dakigu ori, ongi. Gure bizian barna egin, oldoztu, jasan, ikusi, entzun, irakuŕi edo oartu duguna, beŕiz gure oldozmenera ekaŕi, ots, guzia izan dan bezela gogoratzeko dugun almena.

Beraz, auxe da lenengoz oartu beaŕ duguna: Oroimena gure baitan dugun almen bat dala, gaŕantzi aundikoa dan almena. Ta berealaxe galdetzeko: Oroimena gure adimenean al dago?, ala gure oldozmenean?, ala beste nunbait gure baitan? Eskieŕ da, eiki, gure baitan dagoela, baña ez, ene ustez, beste almen batean; alakotz, almen guztien artean oroimenarena beste almen azke dala esan beaŕ dugu. Noski, beste almenekin aŕemanean ari dala ontzat artzekoa da, bidezko ta beaŕezkoa danez.

Eta oroimena, aundia naiz txikia, gizaki guztien baitan ikusi beaŕ da, beraz guztion izaeraren azpegi bat bezela dala onartu beaŕ dugu, giza-izaerari dagokiolarik; oŕela izaera oŕi bizi aundiagoa ematean.

Aŕemanik ote du oroimenak gure irudimenarekin? Bai, arean, eta ez txikia gure iritziz, irudimenak askotan zerbait gogoratzera eramaten gaituelako. Irudimena, jakiña, beste almen bat bezela begira dezakegu, baña bai ta giza-izaeraren jokera lez be, ta apika almen bat baño egokia dirudi jokera dala esatea. Irudimena gure baitan azke ta bere kabuz ari dalako, gure naimenetik azke alegia; ta oroimena naimenak erabil dezake neuŕi zabalean eta maiz. Nolabait irudimenak oroimena izateko laguntzen gaitu, ez, aitzitik, oroimenak irudimena erabiltzeko. Argi dago, beraz, gure bi almen oyek geron baitan nola ari zaizkigun.

Oso onuragaŕia zaigu oroimena saŕitan, azpegi askotan, guretzat guztiz lagun ona bezela agertzen zaigulako. Eiki, oroimena ona ala txaŕa izan diteke, ta oŕengatik gure onurako obeto ala gaizkiago berez edo jokatzen du; ta ba-dirudi bakoitzari bata ala bestea jayotzetik eman zaigula, txaŕa izan ezkero obetzeko biderik eztagoela dirudielako.

Batzuetan, egindako edo jasandako zerbait gogoratzea ez da guretzat atsegiña ta orduan oroimenik ez izatea nai-izango genuke, baña orduan ere oroimenak ezeren pean egon gabe jokatzen du geuk nai ala ez. Ortik atera dezakegu oroimenak beti naimenaren pean ari beaŕ ez duela, ta ondorioaz argi ikus dezakegu maiz berez diarduela.

Oroimena era askotan ari da gure baitan eta, oŕela izanik, oroimen-mota batzuk ba-dirala ere esan genezake, azpegi batzuei buruz zuzenduta agertzen zaigulako. Batzuetan edo batzuengan oroimena tokiak soŕerazten du, ta oni toki-oroimena deitu dizayokegu. Asmoak ere nolabait oŕela jokatzen du ta oni, era berean, asmo-oroimena be deitzekoa da. Zerbait ikusi edo entzuten badugu, ikusitakoak naiz entzundakoak beste ainbeste dagite gure baitan; eta antzekoak diran beste bideak orobat egin lezakete gure oroimena soŕerazteko ala lanean ari-izateko; alakotz, berdin izan ditezke geron baitan beti: Irakuŕi-oroimena, idatzi-oroimena, egin-oroimena, bidezko oroimena, edesti-oroimena, elerti-oroimena, margo-oroimena, bidezko oroimena, edesti-oroimena, elerti-oroimena, margo-oroimena, ta abaŕ eta abaŕ.

Oroimena, beraz, gure oldozpenetan barna ari zaigu jokatzen eta, oŕela dalarik, argi agertzen da gure gogo-bizirako lagun ona bezela zein ederki ari zaigun; oroimenik gabe, askotan, ez giñake ezertarako ezer izango ta guztiz geldo bezela agertuko giñake; aitzitik, oroimen onari eskeŕ askoz egokiago joka dezakegu, gure bizirako eŕaztasuna izatean, eta ongi esan edo diteke nolako oroimena alako bizia eraman daikegula.



Oroimenaren ondorioa lez oroipena dugu; ura almen bezela ta bigaŕena oroi-egipena dugu, oroimenak ematen digun zituaren antzekoa; ta len oroimenari buruz esan duguna berdin esan dezakegu oroipenaz ere, oroipen onak eta txaŕak izan ditzakegula, lenengoak geron atsegiñerako, bigaŕenak geron atsekaberako. Ta len ere, beste azpegiai buruz oartu dugunez, emen be gure atzizkiak diran —*men* eta —*pen* ongi bereizten dituztela adigai zeingabea ta adigai zeatza.

Oroimenaren aurkakoa bezela aiztutzeko gaitasuna dugu, ta gaitasun oŕi, zeinge izarian, aanzmena dei genizayoke, bai ta bere ondorio zeatzari aanzpena ere.

Bizi ontan, geyenetan, gauzak berez aiztutzen dira, eŕaz batzuk eta zailki besteak, guregan eta gure baitan nola ari-izan diran arauz. Alakotz, ba-ditugu geron baitan alkaŕen aurkakoak bezela bi almen oyek: Oroimena ta aanzmena.

Noizean bein gogoratu edo aiztu nai ditugun gauzak gure baitan irauten dute aurkako lez, ots, gogoratu nai duguna aizttutzen eta aiztu nai duguna gogoratzean, eta alderantziz, gogoratu nai ez duguna gogoratzen edo aiztu nai ez duguna aiztutzen. Ortan gure naimena, saŕitan, ez da ezertarako ezer; eta ortik atera beaŕ dugu almen bi oyek gure baitan beren kabuz edo bakaŕik ari-izateko bizi dirala.

Oroimena ta aanzmena ez dira berdin agertzen gizakien baitan; esaten danez batzuek oroimena ona dute, besteak ez ainbeste ta besteak oroimenik ez dutela esan beaŕ, eta urteetan barna auŕeratzen danean gizaki bakoitzean galtzen ari dala ikusten da. Orobat aanzmenari buruz ere esan edo beaŕ dugu. Ta zergatik gogoratzen ditugu, geyenen aldetik, obeto aurtzaroan jazo zitzaizkigunak arestian gertatu zaiguna baño?, ta zergatik aiztutzen zaigu eŕazago orain gutxi bizi beaŕ-izan duguna txikitan gertatu zitzaiguna baño? Oŕa oŕ bi almen auei buruz ondo ulertzeko ez duguna; ta ortik ere argi ikus dezakegu almen biak gure naimenetik at ari dirala.

Dana dala gure baitan bi almen oyek ba-ditugula ezta zalantzan egoteko ez asmo ez usterik; ta biak gure baitan ari zaizkigu auŕak izan giñanetik eten gabe jokatzean, bertan dugun gogo-bizia benetan mardul eta eraginkoŕa dala erakusten. Ez da bizi ori edonolakoa ta, egitan, berak ematen digu bakoitzaren nortasunaren neuŕia; gaya bakaŕik ez gerala adierazten eta Ludi'ko beste izaki guztien oso gañetik ibiĺi eta ari gaitezkela erakustean.

Gure gogo-bizia, berez oso mardula agertzen bada ere, edonolako gayak ikastean indartzen eta zabaltzen zaigu oso, gero ta gai geyago ikastean geyago ere edatzen gure baitan; oŕa ikastearen indaŕa, oŕ bai, gure naimenak egiz eragin dezakena lan egokia betetzean. Baña ortan be oroimenak yarduten duela, ikasten duguna ez aiztutzeko bitarte bikaña lez agertzean; noski aanzmenak ere, oŕen aurka jokatzean edo, beste aldeko lana dagi geron baitan beti; oŕela, oroimena ta aanzmena, alkaŕen etsai bezela agertzen zaizkigu, beren arteko boŕoka ori iñoiz amaitzen eztala. Orixe, beraz, geron baitan tai gabe eraman edo jasan beaŕ dugun jokera itsua, sendo eragiten duena.

Maiz esaten da, gayak ongi ikasteko, buruz ikasi beaŕ ez dirala, orixe gauza ariña dalakoan eta ikasi beaŕ dan guzia sakonago gureganatu beaŕ dugula. Ba-dago oŕ, jakiña, egia dan zerbait, baña alaz ere ez dugu baztertu beaŕ, iñola be ez, oroimenaren laguntza edeŕa, ta gure ustez bide bi oyek, sakon ikastea ta oroimena, alkaŕekin erabiĺi beaŕ diralakoan egon eta yardun beaŕ dugu beti. Ezin ibiĺi ta ari beaŕ bide oyek alkaŕen aurka jokatzen, alkaŕen lagun onak bezela baño, biak, azkenez, alkaŕen betegaŕiak izan beaŕ dutelako.

Ez da, gero, aiztutzeko, gure oroimenaren gaitasun edeŕ ori, ta aitzitik, oso egokia noski, oŕezaz, ongi gogoratzea ta ez aiztutzea, gure gogo-biziari, oŕela bereziki, bere gaŕantzi



guzia emateko ta gizatasunari egoki ta beaŕa zayon maiĺean eten gabe jaŕaitzeko gure egiñalak be jokoan ipintzeko, azkenez giza-duintasuna guztiz aintzakotzat arturik izan diteken.

Argi ateman diteke, ondorioaz, geron baitan bizi zaigun oroimenaren almena nola edo diteken eta noraño eldu, guzion gogo-biziari laguntza egokienetakoa ematen.

## IX. IRUDIMENA

Irudimena gure baitan dugun beste almena da, ta gure baitan bakaŕik ari da ibiltzen, igitzen, ari-izaten. Ez da iñoiz ere guregan jokatzen, iñola be ez du guregan dagoen ezer ikutzen; beraz oso-osoa gure baitan bizi da, gogoaren almena bezela.

Zer da, bada, Irudimena? Gertatzen diran gauza batzuk irudi berezietaz ikusten eta begiratzen, baña batez ere gertatzen ez diranak gure oldozmenean oaŕ-erazten, bizi-irudi egokiaz aurkezten, gai-jantziaz inguraturik bailiran erakutsi nayean, baña egitan amets utsean geratzen diralarik. Oldozmenean gogo-biziaz bakaŕik elikaturik.

Bai, Irudimena almen bat da, gure baitan bakaŕik ari dan almena. Ez du beste gogo-almenekin ezertarako yarduten; azke da ta iñoiz ez du araurik, ez egokitasunik, ez adionik jaŕaitzen; eroa dirudi, ziorik gabe asten, jaŕaitzen eta amaitzen eta eztu zuzenbiderik onartzen. Oldozmena erabiltzen du bakaŕik agertzeko bidetzat artzen, baña berarekin ere beste aŕemanik artzeke. Beraz, adimena, oldozmena, oroimena ta beste men guztiak bezela gure baitan guztien Egil̃eak berak jaŕitako legeaz men berezia ikustekoa da.

Irudimenak gure oldozmenera ta ezagumenera be iñun iñoiz jazotzen ez dan bizi bereziaren beŕia ekartzen digu, ta berari eskeŕ bizi bakan oŕen zeatzak ematen dizkigu bizi-bizirik izango bailiran, eta irudimenaren pean gaudenean gure gogoa noranai doakigu berarena ez dan bizi baten barna, ta askotan bidezkoak ez diran bideetan zeaŕ.

Egitan ez da ondo ulertzen irudimena; nolabait ulertzeko gure adimenak eutsita izan beaŕ-izango litzake, baña ez adimenari ez ezeri be ez dio burua makurtzen, eta bere jira-



-biran jaŕaitzen da beti bere jokera eroan ibiltzen. Nola ulertu, alakotz, men igikoŕa ta ibilkoŕa dan ori? Ezin, ulertzeko zearo eziña. Baña bizi da, geron baitan bizi da, ari da, ta bera aztertzeko indaŕaz erakartzen gaitu.

Irudimenaren jokera berezi-berezia da, mugarik gabeko jokera, gure baitan irudiak soŕerazteko ari dan mena, gure oldozmenean eraturik edo kokaturik uzteko; ezin beste edonun oŕelakorik egin, beraz beaŕa du oldozmena bere egipena burutzeko.

Irudi oyek, noski, onak, atsegiñak, begikoak izan ditezke, baña bai ta, alderantziz, txaŕak, atsekabeak, iguingaŕiak ere; lenengoen bidez nolabaiteko poza artzen dugu, ta bigaŕenak itungaŕiak izaten zaizkigu. Oŕengatik gure gogoarentzat egokiak ala ezegokiak izan ditezke, ta alde ortatik irudimenaren egipena ez da zearo alpeŕik izaten eta bere ondorioak uzten ditu, ala beaŕean, geyenetan, beti ez esateko, egokitasunik gabe agertuaŕen.

Irudimena edonoren baitan ari diteke ta egitan beti ari da, eten gabe, era berean yarduten; alarik ere batzuentzat geyago ta biziago agertzen da, ta geron ustez ezin izan diteke ori argi ikusteko ziorik azaltzea, era batean ala bestean zergatik gertatzen dan oŕela ain zuzen almen oŕek ezerekin aŕemanik ez duelako. Oŕengatik oso zal̃a bezela ikusi beaŕ dugu irudimenaren izaera zeatzez eta ongi atematea. Ezin, ostera, gure baitan ari dala ukatu.

Alan eta guzti, noiz edo noiz, irudimenak guk egindako edo oldoztutako zerbaiten inguruan agertzen zaigu, ta oŕela izanik bidezkoa dirudi gure egipenen edo oldozpenen ondorioa bezela agertzen dala ustea, baña ortaz beaŕezkorik ikusi eziñean. Oŕela be, irudimena iñungo araurik jaŕaitzeke ari dala bayeztu egin beaŕ.

Batzuetan irudimenak ez ezagunak eta saŕi ametsezko tokietara eramaten gaitu ta iñoiz jazo ta ikusi ez diran azpegiak egizkoak izango bailiran erakusten dizkigu. Nola ta zer-

gatik gertatzen da itxura utsa dan ori?; zal̄a dala deritzaigu erantzun egokia galdera oŕi ematea; alaxe, oŕengatik oŕelakoai ametsak edo irudikeriak dei-egiten dizkiegu. Baña gertatze ori edonorengan jazo diteke, irudimena azke jokatzean, ezerk eragin gabe, berez dagokion jokaera betetzean. Oŕela argi erakusten digu gurea izan diteken beste gogo-almenarekin aŕemanik eztuela; alakotz guztiz lokabea lez iritzi beaŕ dugu gure baitan ari dan almen au.

Etekiñik eman ote dizaiguke irudimenak? Batzuetan bai ta ez txikia gañera. Ertilarientzat, batik bat, oso laguntza aundia ematen du, erti-lanak irudimenaren semeak bezela ikustea, ongi ulertzeko ta atemateko be, beaŕa dalako. Irudimen aundikoa dala esaten da ertilari oni ala ari buruz, eta erti-lanak bezela onartzeko ezinbestekoa dala dirudi irudimenezkoak izatea, oŕela ezpada nun-nai gauza aŕunta bezela begiratzen dalako ta aipagaŕitzat iñork onartu gabe geratzen da. Egitan erti-lanak soŕerazteko, irudimena baitezpadakoa agertzen zaigu; ta oŕela izanik etekin aundi ta edeŕa ematen digula esan beaŕ da.

Noski, batzuetan ere, kaltegaŕia izan diteke irudimena, arazo zeatzetan, gauzak, berak diran bezela, begiratzen eta erabiltzen ezinbestekoa dalako, ta oyetan irudimena sartzen bada, geyenetan oso kaltegaŕia izan ditekelako.

Ametsak izaten dira, irudimena ari-izateko, bide egokienetakoak, lotan egiten diran ametsak batez ere; ta ametsak irudimenaren ondorioak bezela ikusi ote ditezken galdetu dezakegu; ala irudimenak ain zuzen sortuta? Oŕa oŕ, guretzat, argi ikusten ez dan gertapena. Guztiok egin ditzakegu ametsak lotan gagozenean, ta, bearbada, egokiagoa izango litzake gertapen ori onela jazotzen dala esatea: Ametsak, lotan izaten diran ametsak, zio batengatik ala ziorik izan gabe, gure baitan sortzen dirala, baña gure naimenetik at beti. Jakiña, lotan gagozenean gure almen guztiak lotan ere, il̄ak lez geratzen zaizkigu, ta oŕengatik ez da ongi ikusten nola edo zer-



gatik gertatzen diran ametsak; alaz ere ortxe dagoz edonoren baitan yarduten. Ez dira gauza bera ametsak eta irudimena, baña lagun onak, oso onak, bai bederen, beren jokera berbera baita, ta bietatik sortzen diran irudiak ia berdiñak diral̄a atematen dalako.

Irudimenaren gertapena aztertzean ongienik oaŕ diteke geron baitan dugun gogo-bizia nolako nabari ta zabala dan, ura azke ta ezeŕenpean gertatzen dalako; beraz, irudimena gure baitan berez bizi ta ari dala ikusten da argi, almen azke bezela ta beste almenekin beaŕezko aŕemanik ukan gabe. Ametsak, aitzitik, ba-dute zer ikusi geron baitan dauzkagun beste almenei buruz, batik bat oroimenari buruz. Oŕela, geyenetan, beti ezpada, gure auŕeko bizian gertatu zaizkigun goraberak eta ezagutu ditugun notiñak agertzen dira lotan oŕelakoak erabiltzen ametsak egiten ditugunean. Alaz ere, geyenetan, ametsetan gogoratzen ditugun notin eta gauzak nastuta agertzen dira, oyen artean bizian izaten ez dan aŕemanean. Zer dala-ta?, orixe bai dala zal̄a atemateko; nolabait irudimena ortan sartzen dalako?, nork esan?, oso zal̄a irudi-tzen baita ori zeatzez ikustea. Agian bai, ori gerta ditekela uste dezakegu; ba-dirudi ametsetan notin ezagunak eta gauza aŕuntak agertzen diranean, irudimena oyetan ari ez dala, baña ametsetan irudikeriak sortzen badira, ustekoa da ortarako irudimena eragil̄ea dala; ta oŕela izan ezkero, argi agertzen da irudimena, gogoaren beste almen guztien antzeko, lotan geratzen ez dala, ta ortik atera dezakegu, bidezko ondorioaz, irudimena gure baitan azke ari dala, beste almenetatik azke; beraz, egitan, berez gogo-almen bat dala adierazten.

Dana dala, irudimena, ametsak eta oroimena, geron baitan, bakoitza bere aldetik, ala noizpait alkartzean ari zaizkigu gure gogoaren bizian barna, batez ere lenengo biak. Baña lenengoa da bakaŕik gogoaren almena bezela agertzen dana, oso almen bedegaŕa.

## X. ADIN - ANTZE

Oña emen gure baitan dugun beste almena, nolabait adimenetik sortzen zaiguna edo oldozmenetik ere edo bietatik; adimenean eta oldozmenean men bana dugu, ta adin-antzearen bidez men ori egipenetan ari zaigu, edo oldozpenetan be pen'eaz biurturik; beraz, adin-antze men'etik pen'era joatea dala esan dezakegu; ta neuŕi batean gure baitan asitako oldozmena gureganako eramateko ibil̄i beaŕ dan bide egokia, guregan ateŕatzeko ditugun ondorioak zedaŕitu beaŕ diranean.

Len (Adimen'ari buruzko lanean) adiña zer dan esan genuen: gauzak eta egipenak, eta gogayak eta oldozmenak ulertzea; adin-antze, beraz, ulertze ori nola burutu dezakegun bidea izan beaŕ da, egiazki. Bide oŕen bitartez egokiak diran gogaketak egin ditzakegu burubideetan barna yarduteko; alakotz adin-antzearen bitartez gogaketak eta burubideak egin ditzakegu; argi agertzen da, oŕengatik, gure gogo-bizian adin-antzeak duen gaŕantzia.

Oŕa oŕ gizonak duen beste almen aundia, izadian barna berarena bakaŕik dana, ta beste izaki guzien geñetik ari-izateko egokia zayona, ta bere burua biziaren goikoen mal̄ean ikusi al-izateko, bera bakaŕik adimenduna baita. Gizonaren izakia, beraz, bizian barna izan diteken goi-goyeneko mail̄ean bizi-izateko sortua dala guztiz argi agertzen zaigu. Yainkoa'ren antza izateko sorturik, ortan dugu orixe egiztatzeko beste bide egoki bat ere.

Eztakit beti ta guzien aldetik ateman ote dan gure goiko almen ori; baña guztiz aintzakotzat artzea ezinbestekoa dala onartu beaŕ da. Oldozmenak oldozpenak soŕerazten dizkigu, baña gero oldozpen oyek gora ta bera erabiltzea beaŕa zaigu,



jaŕaitzen dugun ondorioraño eltzeko, edo jaŕaitu gabe erabiltze oŕek zer emango digun, asmoren bat ala asmo-litsen bat gureganatzeko. Ori adin-antzeak betetzen du ta ortan ikusteko bere egokitasuna ta gaŕantzia.

Eta ortan be argi agertzen da gizonaren goi-goyeneko berezitasuna, adin-antze izaki berezia dalarik adieraztean; eztago Ludi'an barna ori erakutsi dezaken beste izakirik, eta oŕela garbi-garbi azaltzen da gizona izadiaren goyeneko izakia dala, beste guztien oso gañetik eratua.

Noski adin-antzearen bitartez ona ala txaŕa zein dan ongi oaŕ dezake gizonak, egoki ala ezegokia, edeŕ ala itsusia, aundi ala txikia, aldekoa ala aurkakoa, onartzekoa ala astantzekoa, eta abaŕ oartzea, ots, ikusi, begiratu, ikasi, bururatu, jakin, ulertu ta adimenak inguratu ditzaken beste azpegi guztiak burutzea. Alakotz, gure gogoan izan ditezken bide guztien zeaŕ ibil̄i al-izatea. Oŕa adin-antzearen almena, mugarik gabe bezela agertzen zaigula. Oŕa gizonaren baitan dagoen bizi zabala, gogo-bizia dana.

Adin-antzearen bitartez gogoetan egiten ditugu esandako asmo ta azpegi guztien goraberak nolakoak diran ondo ta egoki oartzeko, ta lan ori gure baitan burutzen da bereziki; bai ta aipatzeko ta goratzekoa dugu, arean, guzti ori egiteko adin-antzeak duen almena. Gogoetak eta gogaketak dira, egitan, adin-antzearen ari-izateko bideak, eta gogoetan ari-izaten gogaketak egiten ditugu, askotan ain beaŕak zaizkigun gogaketak.

Gogo-bizian barna ezinbestekoak dira gogaketak, auen bitartez beaŕ dan bezela jokatzeko, bide egokienak aurkitzen baititugu. Oŕa mail ortan yarduteko gizonak duen almena, bere adin-antzea dana; ta orixe oartzean ere ongienik ikusi dezakegu nolakoa dan gizona izadian barna goi-koyeneko izakia. Naiz eta siñistuna ez izan betidanik ezagutu du gizonak bere almen aundi ori, ta beraren bidez jokatu du eten gabe

yakintza osoa ezagutzeko, ta bere egokitasunerako ongienik ustiatzeko be.

Jakiña, batzuetan eta deitoragaŕia dan eraz, bere burua beste izaki guztiak baño goratuago ikustean, aŕoputza biurtu da gizona, zoritxaŕez, beste guztia ezesten eta bere izakeraz zearo iĺaŕaintzean, azken mugaetaraño eldu arte, alguztiduna benetan izango balitz bezela, ta oŕela ogena egitean. Eta nolako itsukeriaz batzuetan, adin-antzea dala-ta, bere burua Yainkoa legez begiratzeko ere; aŕo-aŕo «adin-antze yainkosa» esateko ta onartzeko ausartzean. Orduan uko egin dio Yainkoa'ri, ta gauza ta egipen guztien oñaŕia adin-antzea dala aitortu du okeŕez. Beti aŕokeriz beterik, ezagupen ororen ituŕia adin-antzea dala uste-izan du gizonak, ta adin-antzea bere baitan ikustean, bera da, gizona, azkenez, guzien gain ipiñi nai-izan duena, bere gañetik beste ezer eta beste iñor ez onartzeko.

Osterantzean, apaltasunez ari-izan ezkero, gogoeta obeak egin ditu gizon zentzundunak, bere almenak nolako mugatuak dagozen ongi atemateko; ta orduan gogaketak bide egokiagoak diranetan barna jokatzen du obeki zentzunezko ta bidezkoak diran ondorio bikañak aurkitzeko. Oŕela bere gogoari egiazko yakintza eskeiñi dizayoke, gentza ta atsedena azkenez berarenganatzeko, ta ortan ikusi beaŕ da gizonarentzat bidezko jokaera zein dan, adin-antzea egokiro erabiltzean.

Adin-antzea, adimena, oldozmena ta gizonak bere baitan dituen beste almen guztiak bezela, egitan, auxe adierazteko edo begiratu beaŕ ditugu: egiazko almenak dirala, gogo-almenak, norbaitek ortxe bertan ipiñi dizkigunak. Guztiz argi ta garbi ikus diteke, edonoren aldetik, gizonak berak ori egin al-izan eztuela, ta, bidezkoa danez, egiĺe egokiago dagoela aitortzea ezinbestekoz onartu beaŕ duela. Oŕa adin-antzeak, beaŕ dan bezela erabiltzean, ongienik erakusten diguna.

Adin-antzearen besoak bezela, adinkunde ta adinketa ere ditugu, aren jokera nolabait edatzeko edo, bere almen eta



egipenaren antzekoak diranak eta aren erabiltzea eŕazago ta zabalago burutu al-izateko be. Ez da, alakotz, adin-antzea bakaŕean ari dan zerbait, berarengandik sortzen diran bide egoki batzuen zeaŕ guztiz edatua azaltzen dana baño, ta gogoetak eŕuz soŕerazten dituena ere.

Gaŕantziduna, benetan, gure baitan ari zaigun adin-antzea, gure biziari argitasun aundiena eman dizayokena. Geyenetan gizonak almen ori ta besteak be, berez erabiltzen ditu, begiak, belaŕiak eta soñaren beste zentzu guztiak bezela; aŕitzekorik ez ortan berarentzat. Baña gogo-almenak sakon aztertzen baldin baditugu, ara nun agertzen zaigun gure baitan dugun aberastasun aundi, zabal eta yoria.

Adin-antzeak eman dizaiguke ederki, gizonaren gogo-biziaren neuŕia, bere baitan sakon ibiltzeko bide egokiena duelarik adieraztean; eta oŕela jokatzean aurkitzen du bere nortasuna nolako goi-goikoa dala. Aspaldikoek esakun au erabiltzen zuten maiz: «Ezagutu ezazu zure burua», ta, apika, Yainkoa ezagutzeko naya izanezik, ez bide dago gure bizian beste xede oberik; norberaren burua ezagutzea, elburu bikaña, bikañena edo, gizonarentzat, adin-antzearen eskeŕ lortu dezakena. Oŕa bada bein eta beŕiz nola ikus dezakegun ongienik adin-antzean dugun almen aundia, gogo-almen bikaña, gizonak bere burua goyeneko maiĺean aurkeztu dezakena.

Gogo-bizian du gizonak bere izakera jatoŕa, saŕitan ikusten edo oartzen ez dana; ta mail ortan ari-izateak dirudi gizonarentzat jokera egokiena ta goratuena izan ditekena; ortxe ikusteko be gizonarentzat duintasun goragaŕiena ere. Oŕen aldean gizonaren beste jokera guztiak oso bean begiratzeko edo dira, ta gizona dan gizonak ez bide du euki beaŕ, betetzeko beste yoran goituago ta oberik. Ba-dakigu gizona gogo ta soñak osotzen dutela, ezberdiñak diran bultzapenetan ari dira-

nak; baña lenengoa da, enurarik gabe, gaña artu beaŕ duena, gizonaren nortasuna era egokienean eratzeko.

Orixe, jakiña, bere gogoari dagozkion beste azpegi guziak bezela, gizonari bere adin-antzeak erakutsi beaŕ diona. Beraz, adin-antzea dugu gizonak yoran aundienaz erabiĺi beaŕ duen bide yaukala.



## XI. NAIMENA

Ba-ditugu gure baitan menak asko, ta men guzti oyek nolabait gizonaren almen orokaŕa osotzen dute zalantzik gabe, edo almen oŕen besoak bezela begira ditzakegu; ta ororen bitartez gure gogo-biziaren ikuspegiak dirala ere onartzekoa izanik, bizi ori argi ta zabal-zabalik agertzen zaigu, gizonaren nortasuna eratzeko. Men, almen, gogoa, aipagaŕiak benetan gizona zer dan adierazteko, ta oso egokia zaigu guziak aztertzea gu geu nor geran atemateko.

Ona emen aztertzeko ona dan beste almen bat, oso berezia dana, NAIMENA, ots, nai-izateko mena. Bai, berezi-berezia dugu almen au, beste menekin, zuzen, alkartasunik ez duena. Nunbait ikutu egin ditzake besteak, baña beti iraitzean eta oyekin alkarbiderik izan gabe. Alakotz, men au gure baitan berez sortu ta bakaŕik ari da bertan bere elburua betetzeko. Auxe nai dugu, beste ori ez dugu nai, noiz-nai diñogu guztiok, gure erabakitasunak jakin-erazteko; naimena agertzea, beti, erabakitasuna adierazteko egiten da; beraz, edozein erabakitasuna aipatzeko, naimena sortzen da, orixe burutzeko ezinbesteko eragiĺea bezela. Oŕa naimenaren gaŕantzia gure gogo-bizian, eta gure soñeko egipenak be betetzeko oso beaŕa dala ikusten da.

Oŕengatik oso argi oartzen da gure baitan dagoen almen onen ondorioak naiz gure baitan naiz guregan ere gertatzen dirala, ta orixe dala-ta ongi esan dezakegu almen au nolarebait gure baitatik guregana eŕaz doakigula, elburuak batean naiz bestean buruturik izan ditezken.

Egitan, aundia dugu gure barneko bizian nai-izatearen almena, naimena. Nola dugu, baña, almen ori gure gogoan?

Nundik sortu zaigu bertan? Edo nork eman digu oŕela izateko almena? Beste zerbaiten ondorioa al da gure naimena?; ez dirudi, ezta ori argi bederik ikusten, eta gure baitan jayo giñanetik bera dan bezela dagoela, berez edo dagoela, onartu beaŕ dugu, azpegi bi auetan: Nai-izatea ta nai ez izatea.

Jayotzen danetik eta bereala, iñork ezer irakasi gabe, ba-daki gizonak «nai dut» edo «ez dut nai» esaten, ta oŕela erakusten da argienik gure gogo-izaeraren zati berezi bat dala, men aundi bat bezela agertzean. Eta ortan dagoen gaŕantzi aundia garbi azaltzen da nun-nai esaten dan esakun ontan: Nai-izatea al-izatea da. Ta edozein gauza gureganatzeko edo lortzeko naimena da erabiĺi beaŕ dana. Beste esakun au be edonun entzuten da: Nai duenak al duenak baño geyago dagi. Ta oŕela guztien aldetik naimenaren almena garbiro aipatzen eta onartzen da.

Naimena jokoan ari-izateko, kari edo zioren bat izan beaŕ da auŕetik; osterantzean naimena igitzerik gabe geratzen da gure baitan ondoririk gabe; almen geldia dala esan genezake orduan; baña zioren bat sortu ezkero, txikiena bada ere, bereala yardutean sartzen da bipilki; oŕela naimena almen soiĺa bezela dago gure baitan lenengoz, gero egiĺea legez jokatzean agertzeko; ta oyek ditugu naimenaren bi azpegi bereziak.

Baitezpadakoa zayo gizonari naimena erabiltzea, ta ez da ongi ulertzen naimen gabeko gizonik; indaŕ geyago ala gutxiagokoa izan diteke naimena, gizon bakoitza nolakoa dan eraz, baña edonorengan agertzen da beti almen aundi ori, ta gauza txikiena egiteko edo burutzeko be, beaŕezkoena zayo beti edonola erabiltzea. Oŕengatik bakoitzari bere bizian barna ari-izateko nai ta nayezkoa izango zayo ontaz edo artaz naimena erabiltzea. Eta gure baitan dugun gogo-bizia guztiz nabaria azaltzen zaigu garbienik, naimenaren bitartez.

Naimena izatearen egipena, ezta berez ez gauza ona ez eta txaŕa be; gizonak nola erabiltzen duen eraz agertuko da



naiz margo batekoa naiz bestekoa; jakiña gizona bera baita beti ona ala gaiztoa izatea, ta oŕengatik berak dagien guzia era berean berdin agertzen da. Naimen ona edo naimen txaŕa esatea entzuten da saŕi, baña ori esan dugunez ulertu beaŕ da.

Naimena beti bidea bezela agertzen zayo gizonari bere bizian barna ari-izateko, ta zeredozer egitean egunero erabiltzen du gizonak men ori nai duena burutu al-izateko. Oso aipagaŕiak dira Ludi ontan lan nabariak egitean yardun duten gizonak, beren naimen aundia jokoan erabiltzean, aurka sortzen zaizkien eragozpenak gaintzeko batik bat. Guzientzat beaŕ-beaŕa izan zaye naimen gotoŕa erabiltzea ta oŕen eskeŕ beren xedeak betetzea lortu dute azkenean, eta eziña izango litzayeke naimenik gabe ezer egitea. Argi ikus dezakegu, beraz, naimena izan eta erabiltzearen gaŕantzia; bai, eragingoŕa egitan bizian barna naimena, ta gizonarentzat ezinbestekoa dalarik nork ukatu? Oŕela agertzen da, benetan, gizonaren gogo-izaera betetzeko almen egokia; ta beste almen guziekin alkartuta, izaera ori ederto nabari-erazten du.

Beaŕ-beaŕezkoa zayo gizonari naimena izan eta erabiltzea, benetako gizona bezela bizi ta yarduteko; ulerkaitza oso naimenik gabeko gizona izatea. Abereak ere, nolabait, beren senaren neuŕian ala nolako naimena be ba-dutela erakusten dute; noski beren gai-bizian bakaŕik azaltzen dana, guztiz zedaŕiturik duten bizi barnean. Eta gauzak dira soilki guztiz naimenik gabe agertzen diranak; zentzundunengan bakaŕik, neuŕi txiki naiz aundian izan diteke naimena, ta gizonaren baitan eskierki, egokienik nabaritzeko.

Naimena, almena bada ere, ezta berez ari-izan, eta gizona da, bere aukeran, erabiĺi dezakena, egoki ala ez egoki izan diteken norabidean; alan eta guzti, berarengandik nolarebait sortuta bezela, ba-dagoz onak ez diran agerkunak: kasketaldia, naikundea, naikia, gurari izkiak, apetak, burukeria, giriñak, burkoikeria ta tankerak; guziak itz batez naikeriak

bezela ezagutu ditzakegunak, eta naikeria arau gabeko naimena bezela dalarik.

Beraz, naimena naikeria biurtuta ageŕ diteke, oŕela aldatuta; baña nola egin diteke aldakuntza ori?, berez?, ala eragipenen batek jo-ta? Eztirudi, almen bat izatean, oŕelakorik berez egin ditekena, ta bidezkotzat aŕ dezakegu bitartekoa izan diteken zerbaitek eraginda biurtzen dala. Baña zer izan diteke zerbait ori?, bearbada gizonaren jokerak soil̃ik, eta azkenez gizona bera azal diteke aldakuntza oŕen eragil̃e bakaŕa bezela, zer dagien oarturik ala oartzeke jokatzean.

Amaikatxo naikeriak gizakiaren baitan; alakotz, oso maiz agertu beaŕ naimena aldatuta, gutxiago naimen gotoŕa bezela yarduteko; eta naimen gotoŕ eta sendoa gizona ari-izateko bide egokienetakoa dalarik. Bai, gizonarentzat naimena bide bat dala aitortu beaŕ, bere bitartez egipen aundi ta egokiak burutu al-izateko.

Ara nola dagoen gaŕantzi aundia naimenean, ukatu ezin diteken gaŕantzia, gizonak ain egokiro ustiatu dezakena, ta oŕela dala geyenetan ateman ezpada ere, bere egipenetan gizonak ongienik adierazten du, «nai dut» ala «eztut nai» esatean, naimenez beti yarduten duela. Eta ardurabakoa dana, naimenik gabe agertzen dana, duintasunik eztuela ere edonorentzat azaltzen zayo; oso aintzakotzat artzeko, alderantziz, naimen on eta aundiko gizona, beti goi-goyan ikustekoa dana.

Ba-dago bizia ta bizi zabala gizonaren baitan, eta bizi oŕen azpegi berezienetakoa naimena dugu ezpairik gabe, gizonaren izaera ongienik nabaritzean, eta beste azpegi guztien artean, bere almenen multzoan, egokitasunez beterik ikusteko izanik.

Naimena gizakien ekitean agertzen da almen aundia bezela, geldirik iñoiz ez geratzeko, ekin eta ekin ari-izateko baño; oŕela gizonaren biziari zentzun aundia ere ematen dio, adiñonez zabal dedin eta norberarentzat eta besteentzat ere zi-



tu edeŕ eta ugari emateko. Ona izan diteke, beraz, naimena ta onaren ituŕi, oŕela begira dezakegu, gizonaren ontasun edeŕenetakoa, ondorio egokiak jarion zaizkiolarik.

Atsegiña gizonarentzat bere baitan oŕelako aberastasuna daukala oartzea, bere burua oso goratuta bezela ikus-erazten diona; beti, noski, naimen onekoa baldin bada. Aipagaŕia dugu, benetan, gizonaren almen au, goruntz abiaturik bizi ta ari-izateko, lerak menperatzeko ta beko zalekerietatik azke bizi ta yarduteko.

## XII. AYUŔIA

Ayuŕia. Zer ote da ayuŕia? Apika egokiagoa edo izan beaŕ zer ez ote dan esatea. Oŕialde auetan barna, orain arte, geron baitan dauzkagun menak izan dira gayaz erabil̃i ditugunak: adimen, oldozmen, oroimen, eta beste onelako batzuk. Ba ote da ayuŕia beste men bat? Ez orixe, naiz eta ayuŕia geron baitan bizi, ayuŕia ezta benetan men bat. Orduan zer da?

Ez bide da eŕaz ayuŕia, itz motz batzuen bitartez, zer dan esatea; noredonoren izatea adierazteko zerbait dala dirudi, izateko era edo, ta arazoa nolakoa dan zeatzago esateko, auxe esan genezakelakoan gagoz: Ayuŕia, biziaren eta biziak soŕerazten dituen azpegi, ebazkizun, bideak eta abaŕen auŕean gizonak nola erantzuten duen edo bere jokera nolakoa dan erakusteko, era berezia edo da. Beraz, eztago ayuŕi bat gizaki guztiai dagokiena, ta eskieŕ esan dezakegu gizon ainbat ayuŕi dagoela, gizon bakoitzak berea duelarik.

Era berean, mota askotakoa izan beaŕ ayuŕia, ta saŕi aipatzen dira: ayuŕi ona, ayuŕi txaŕa, ayuŕi aundikoa, ayuŕi aula, aiko-maiko ayuŕia, ayuŕi aŕoa, ayuŕi erabea ta abaŕ; eta bakoitzean gizonaren jokera azaltzen da garbi. Gañera, mota oyetako edozein, bat eta bestea, iraunkoŕa da bera duen bakoitzarentzat; ba-dirudi lenengo urteetan eratzen dan ayuŕiak norberaren bizi guzirako iraungo duela, ta ez bide da eŕaz ayuŕiz aldatzea.

Ayuŕia ez bide da sortzen bakoitzaren baitan onen jayotzean; ayuŕia bizi-izatean, biziaren jaŕaitzean eratzen da, alakotz nolako lenengo bizia alako ayuŕia gertatuko da bein eta beŕiz, eta oŕengatik egokia izango litzake gurasoentzat eta



azleentzat auŕ edo gaztea bizi-giro egokian aztea, bakoitzean ayuŕi egokia eratua izan dedin, onezaz beti gogoratzean: lenengo urteetan bereganatzen dan ayuŕia geyenetan berbera izango dala gerokoan, ori aldatzea oso zal̃a izango dalako.

Alakotz, ayuŕia nolabait eratu-erazi diteke naiz eta berez be ta ezer egin gabe agertzeko ta norbaitengan kokatzeko izan; ta geyenentzat auxe da gertatzen dana, ayuŕiaren aztea, geron gardiz, gutxitan egiten dalako; oŕengatik oso egokia dirudi ayuŕiari norabide egokia emateko alegintzea, ta lan au gurasoentzat eta irakasle ta azleentzat dagokiela onartzekoa da. Auxe irazkintzaren azpegi egokia dalarik.

Ayuŕiari buruz orain arte esan dugun guztia gizonari dagokio bereziki; baña Eŕi bati buruz ere, guziai batera dagokion arauz ayuŕia be izaten da; ta Eŕi baten ayuŕia begiratzen da beti, dalako Eŕia aztertzen eta ikuserazten danean; ez da ori zeatzez zedaŕituko, gizonarenaz yarduten dan bezela, eŕeza izango ez dalako, baña neuŕi batean bederen Eŕi baten ayuŕia ere aztertu diteke; bai ta mail goragokoan gizadiarena ere; beraz, eŕuz eta zabalik ageŕ dakiguke ayuŕiaren azterketa.

Ayuŕia, noski, gure ta edonoren baitan ikusiko dugu bizi ta jokatzean, guregana iñoiz igaro eziñean; aitzitik, ayuŕiaren ondorioak gure baitan eta guregan gertatzen dira, ayuŕiak berak eragiten duen arauz, ayuŕiak eragil̃e bezela saŕi jokatzen duelako; orduan bi era auetan begira dezakegu ayuŕia: gertapena bezela iragangaitza izango bailitzan eta eragitean iragankoŕa lez; izan eta egin edo eragiten ari-izatean; ez da, alajaña, estu ta labuŕ ayuŕiaren edatzea.

Gaŕantzi aundia, benetan, ayuŕi ta bere ondorioetan, batez be len aipatu dugun azieran begiratzean; ontaz ayuŕi on eta sendoa eratzea ororentzat elburu beñena izan beaŕ, ongi jokatzeko ta ondorio onak burutzeko, bietan egokienetakoa izango dalako, ta oŕelakoa izango da gizonarengandik batik bat egipen on eta ondorio obeak lortzea bidezkoa izango du-

gulako; ta beste ayuŕietatik ezta gauza aundirik lortu al-izango. Oŕa arazo au erabiltzeko dugun gaŕantzia nolakoa dan.

Ayuŕia beti gizonaren baitan ari da, bera danaren arauz, ayuŕi gogoŕak, noski, egipen aundi edo gotoŕak egitera darama gizona; ayuŕi aulak, ordea, egipen motzak egitera, bai ta saŕitan sorayokerira ta zabarkerira ere; mota guziko ondorioak ayuŕiak emateko, bakoitzean azaltzen dan bezela; oŕengatik azi ta ezi be egin beaŕ da ayuŕiaren ondorio on eta egokiak lortu nai baldin badira. Beraz, ayuŕia eratu diteke gura dedin legez eraginkoŕa izateko. Gaŕantzizkoa da berez ayuŕia, baña gaŕantzi ori askoz aundiagoa izan diteke bera nola eratzen dan arauz.

Oŕelaxe naiz gurasoek naiz irakasle ta azleek, seme edo ikasleen baitan eragiteko, ayuŕia eratzean izan dezakete bide egokia beren lana onenetakoa burutu al-izateko; irudigiľeak bezela jokatu dezakete giza-irudi edeŕa lortu al-izateko; baña, esan dugunez, ayuŕia azi ta ezi egin ditekela gogoratzean, eŕazago ta egokiago ere izan diteke azitzea ezitzea baño, ta lenengoa izan beaŕ beti aŕeta aundiagoaz egiteko, ezitzea, jakiña, beti gauza zaľagoa izango dalako. Alakotz, azi ezi baño gaŕantzi aundiagokoa izateko.

Bizian barna izan diran gizon aundiak, egipen aipagaŕiak burutu dituztenak, ayuŕi gotoŕen jabe bezela agertu dira ta, ain zuzen, ayuŕi oyen eskeŕ egin dute beren lana, guziek. Ayuŕi aula izan dutenek, alderantziz, ez dute lortu aintzakotzat artzeko izan dan ezer.

Ba-dago ayuŕiaren antzekoa dan beste zerbait, baña egitan ayuŕia eztana; seta, setasuna izan ditekena ta orduan gauza ona dana, ta setakeria ere, arbuyatzekoa dana; ta oŕelakoak erakusten dituztenak, setatsuak deitzen ditugu lenengoak eta setatiak bigaŕenak.

Gizonen baitan ayuŕiak besteenganako begikoak izan ditezke batzuetan, eta besteetan ez, naiz berez gotoŕak ala aulak izan; oŕela izateko alaz ere ayuŕi oyek izatean iñoren eŕurik



izan gabe, ez eta besteen jokeran be; ori alkaŕenganako aŕemanetan berez edo sortzen dala esan beaŕ.

Alakotz, azpekiak ugari ayuŕia begiratzeko agertzen diranak; baña guzietan ayuŕia bera geratzen da bakoitzaren nolakotasuna bezela, bakoitzak bere baitan eratu al-izan duen legez; eta oŕengatik ere ayuŕia eratzekoa dan gaŕantzia nolako aundia dan oartzeko dugu guzientzat, gurasoentzat eta azleentzat, seme ta ikasleen baitan soŕerazteko edo eratzeko, ta auentzat beren baitaratzeko ta gero yardutean bide egokia eukitzeko.

Gizonak taldeetan bildurik, Eŕi bat osotzean azaltzen diranean, len esan dugunez, ororen ayuŕia ere izan dezakete, baña guztiena bezela ageŕ ditekena, eziña edo da atontzeko edo eratzeko; ori talde edo Eŕi bakoitzaren biziaren zeaŕ berez apika sortu beaŕ-izango da. Ta ausaz gizadi osoaren ayuŕiaz be nolabait itzegin genezake, gizon guziai buruzkoa izango zana.

Esan dugun guziagatik ondorio au sortu al dezakegu: Eragin ditekenezkero ta gizonaren azitasunari dagokionez ayuŕia irakaskintzaren zati bat bezela begiratzekoa da, irazkintzaren azpegi berezia legez, benbenetan azpegi oso gaŕantzitsuaz agertzen dana; oŕengatik eta guztien aldetik oso aintzakotzat artu beaŕ dana.

Oŕelakotz, naiz gizonarentzat naiz Eŕi'entzat eta gizadi guziarentzat oso garantzitsu ta onuragaŕia izango da beti ayuŕia alik eta ondoenik eratzea, irakasle ta azle guztiak ere ortarako beren burua gertu egin beaŕ dutelarik, eratzeko edo norberaren baitan, ikasle bakoitzaren baitan soŕerazteko.

Eta gizonaren baitan eratuko dan ayuŕia, berarengan ere, egipenen eta jokeraren bidez agertu beaŕ-izango da besteen auŕean azaltzeko, oyekin izango diran aŕemanetan, eragiten beti, yarduteko. Aintzakotzat artzeko, egiz, ayuŕia, bai ta bera eratzea ere, bere gaŕantzia ain nabaria izanik.

Gizonak berak ere, oŕezaz beaŕ dan bezela oarturik, ale-

giñak egin ditzake bere ayuŕia eratzeko, bai ta, agian, aldatzeko be, naiz eta bere ayuŕia lortu ondoren, ori oso zaīa izan. Dana dala oso bidezkotzat artu beaŕ da gizonarentzat bere ayuŕia eratu, zaindu ta sendotzea ere. Gizonak, gizon izateko, bere nortasuna burutu beaŕ du ta ortarako bere ayuŕia tinkotzea ezinbestekoa bezela onartzea be beaŕa izango zayo.

Gizonaren baitan ayuŕia jokera bat da, oso berezia dan jokera, berarekiko ta besteenganako ari beaŕ dan jokera, on ala txaŕ izan ditezken ondorioen ituŕia legez begira dezakeguna. Oŕengatik bera ongi eratzea elburu aundi ta guztiz gaŕantzitsua bakoitzarentzat eta ororentzat. Baitezpadakoa, bai, bizian barna ari-izateko, ayuŕia aintzakotzat artzea ta berari buruz aŕeta aundienaz yardutea.



## XIII. OARMENA

Auxe, OARMENA, gizonak duen beste almena, oaŕerazteko almena, au ere gure baitan ari dan almena, batzuentzat oso zoŕotz eta sakona izan ditekena; baña oŕenbesterraño eltzen ezpada ere, naiz eta neuŕi oso txikian agertu, beti almen oso berezia bezela ikustekoa da; oaŕa izateko almena, oartu egin al-izateko be. Ta beraren bidez gizonak obeto edo ikusi ta ulertu ditzake bizia, ta naiz bere baitan bai besteenean be gertatzen diran gogaketak. Oŕela, bere gogo-eginkizunak oñaŕituago burutu ditzake, guzia argi ta garbi ikustean.

Zer ote da OARMENA?, nola zedaŕitu dezakegu bere zentzuna? Alde batetik norberak gauza guztien izaera nolakoa dan ikus dezake ondo, bere baitan egindako gogalpenak ortarako bitartekoaz artzen, bai ta besteen iritziak nolakoak diran ere; ta bestetik gogalpen eta iritzi oyen ondorioa nolakoa izan diteken be, guztia OARMEN'aren bidez zuzen atemateko; oŕelaxe guztioi lortzeko bidea dugu OARMENA. Noski, OARMENA gure ADIMEN'aren atal bat bezela ere begira dezakegu, edo adimena ari-izateko bide bat lez; ta ortik atera dezakegu oarmenaren gaŕantzi aundia, gizonak bururakizunetan ari-izateko men egokia dalarik.

Gizonak beregan dauzkan almen batzuen bitartez, ikusmen, entzumen, ikumen eta abaŕ, beregandik at gertatzen dana atematen du, baña gertapen guzien zioa, karia edo azaga ere jakiteko, bere baitan oyen asmoak eundu edo eotu beaŕ-izango ditu ongi, ortarako bere oarmena ekitean jaŕirik, eta oarmen oŕen ondorioz yardutean izateko ere. Oŕ ikusteko, zalantzik gabe, gure baitan ditugun beste almenekin nolako alkartasuna duen, eta nolabait be gure almen guztien egipenaz

adimena elikatzen dala edo osotzen dala; almen guztiak batera datozelarik.

Aundia da benetan oarmenaren almena, ta ongi adierazten digu bera erabiltzean nolakoa dan gizonaren garaitasuna bai ta bere yaukaltasuna ere. Oŕ nunbait gauzak dagoz beren izanez eta beren izatean, eta gizonak guzti oŕen beŕi zeatza ukan dezake, sakon gañera, ororen oaŕa egitean, eta orobat asmo, asmaketa ta asmakizunak be ezagutzen ditu eŕaztasunez, oarmenaren bitartez atxikita; men oŕen bidez gizonak ez du bere burua bakaŕik ikusten, biziaren zeaŕ eta beste gizonekin aŕemanetan saŕ diteke, oŕela era berean bere bizia edatzean.

Gogo-bizian ere, oarmenez ari-izatean, aberasturik agertzen zaigu gero ta areago oarketak egiten, eten gabe zabaltzean. Gizonak dituen beste menak ortarako ere ari dira beti eragitean, eta oarmenaren jokatzeak besteena laguntzen du egokiro gure gogo-biziaren aberastasuna aunditzeko ta zabaltzeko. Aŕigaŕia benetan geron baitan ditugun almenen egipena, gogo-biziari eustean eta bizi oŕi indaŕa ematean; egitan gure izate-nolakotasuna goyeneko galgan ikusteko aña.

Ezinbestekoa dugu, egiazki, oarmena izan eta oarmenez yardun, gure biziaren eginkizun guzietarako, ezpailitzake eŕaz izango oarmenik izan gabe oldozmenak izatea; zerez izan oldozmenik ezer oartuko gabe?, ezer ez erantzutea beaŕa bezela agertzen zaigu. Beraz, ba-dirudi oldozpenak izateko ta adimenaren beste eginkizun guztietarako, oarmena dala asiera ta bidea, ezinbestean.

Biziaren zeaŕ eta berez, guziok ari gera beti gure oarmena erabiltzen, jayo ta bereala gauzaen zergatik eta zertarako jakiteko nayean ari geralarik, eten gabe erantzun egokiak aurkitzeko xedez; erantzun ori batzuetan besteai galdetzean eta besteetan gerok biĺakatzean lorturik, eta ontarako ezinbestekoa zaigu oarmenez yardun, gauzaen eta beren edatzean gertatzen dan guziaren beŕi ikusten, aztertzen eta sakontzen,



jakiteko gure egaŕia neuŕi aundienean asetzeko. Oŕela, egingo dugun lan guztia, ezinbestez, gure oarmena jokoan jaŕita burutu al-izango dugu.

Oarmenez ari-izatea berez sortzen zaigu geron baitan beaŕezkoena dan jokeraz, begiluze gera guziok gure izaeraren ondorio bidezko ta beaŕa bezela, ta baitezpadakoa gertatzen zaigu ororen zioa jakiteko naya; apika «zergatik?» galdera, guzionaren lera mamitzen da gure baitan, bai ta zein-nai bidez azaldu ere gure biziaren edatzean beste edozein galdera baño indaŕ aundiagoan. Jakin naya ikusten da, noski, galdera ortan, eta beaŕa zayon erantzuna oarmenaren bitartez lortuta izango da geyenetan; besteengandik ere eldu dakiguke erantzuna bera, baña geuk oartzean aurkitzea nayago, egokiago gure jakin naya egokiro betetzeko.

Gizonaren adimenezko bizia bere baitan, jakiña, sortu ta ari-izaten da, adimena bera ta beste men edo almen guztiak erabiltzean, eta guztiak beaŕ ditu bere gogo-bizia izan al diteken, oyen artean oarmena ere dalarik, lenengoa ezpada, aipagaŕienetakoa bai izateko, eta guztien jokatzean lenengoa edo agertzen zaiguna; eiki gogo-biziaren gaya zein edo zein, bat edo beste izan; guzioi zein dan ikusi beaŕ da lenengoz, ots, oartu, berari buruz gero adierazi al edo nai danaz yarduteko; oŕengatik agertzen da oarmena asoin bezela, gogaketa guztien asiera lez.

Mugarik ez oarmenaren egipenerako, gai guztiak baitira oartzeko egokiak, eta guztien beŕi gizonarentzat jakingaŕia dalarik, alde edo aldi guzietaraño eldu diteke, oro atzemateko, oro ere iŕikatzean. Alakotz, ain zabala azaltzen dalarik, ezin bere egipen ori iñola zedaŕitzea. Gizonaren gogo-bizian, oŕengatik, eragiten ikusi beaŕ dugu beti, beaŕa izango dana burutzeko ta edozein gogaya ere asteko ta erabiltzeko. Oŕa bada bere gaŕantzia alde guztietatik ikus ditekena.

Eta eziña zayo gizonaren adimena edo oldozmenaz ari-izatea oarmenik egin gabe, adimenezko jokoan zeredozer era-

biltzeko, ulergaŕia ezpaita oartu gabe den-dena gogoetatzea. Zabala da, oso zabala, gizonaren baitan ari dan bizia, gogo-bizia, indaŕ ain aundia duena, oarmenetik asten diran bizi ta indaŕa. Ororen asoña bezela agertzen zaigu oarmena, ta bere jokera ezinbestekoa dugu gure baitan bizirik izan dedin; bai eziña bezela begiratu beaŕ dugu oarmenik gabe edozein gogo-bizia, eziña ere gure adimena ari-izatea.

Oarmena goyeneko almen bat bezela agertzen bada, gure baitan yardutean, oŕen ondorioa bezela oarpena sortzen da bidezko etorkizunean, eta naiz gure baitan naiz guregan eta gugandik at ere gertatu ditekena; orixe oarmenaren edapena noraño eldu diteken, zein-gabetik zeatzeraño eltzeko. Oarmenetik datorkigu, ziñez, oarpena, aitarengandik semea bezela, bidezkoa dan etorbidean, eta nolabait elburua lez be ikus dezakeguna, asi ta amaitzekoa dan eginkizuna burutzean eta oarmenaren joko yaukala erakustean.

Alaz ere, gogo-bizian, adimenezko bizian ikusi beaŕ dira bereziki oarmenaren izate ta jokaera. Ta goiko, goyeneko bizi berezi ortan agertzen da gizonaren garaitasun yaukala, oarmenaren bitartez atematen duguna; ondorioaz giza-izaerak duen goyentasuna ere argienik ikusteko dugula. Ta egokia izateko, garaitasun oŕen arauz gizonaren oldozpen eta egipenak ere neuŕi berbera ortakoak izatea, kariz eta egiz bere burua ilaŕaindurik izateko.

Oŕela, oarmenez geron baitan eta guregan ere ateman diteke gogo-bizian batez ere giza-izatea nolako zabala dan, noraño eltzen dan, noraño el diteken ere, goruntz beti baña egitan goratze oŕen muga ikusi eziñean, benetako muga ori nunbait egon ezkero; oŕengatik ezin oarmena zedaŕiturik ikusi gure baitan ez eta lekorean ere. Men aundia egiten oarmenarena ta zabaltasun aundiena edo zayo ari-izateko duena. Argi begiratzeko, beraz, giza-izakiaren nolakotasun aundia.

Ezta ulertzekoa giza-gogo-bizia oarmenik gabekoa izatea; ba-dirudi men oŕen gabe gizona gauza bat baño besterik izango ez litzakela. Alakotz, beaŕ-beaŕa bezela agertzen da men ori gizona dan bezela izateko; gaŕantzi aundienekoa, zio ori dalarik, oarmenaren jabe izatea, bere baitan ari diteken almen ori ain zabalik erabiltzeko duelarik. Bai beste gogo-almen guztietaz bezela oarmenaz ere ongienik begira dezake gizonak bere barne-barnean, bere baitan, gozatzeko duen goreneko bizia.



Giza-bizia, noski, oŕelaxe agertzen zaigu, aŕigaŕi bai, baña batik bat goreneko galgaetan edatzeko bide egokiena bezela eskeintzean, gizonari gogo-aberastasuna gozatzeko eman al-izatearen aukera edeŕena bezela eukitzeko ta onartzeko, oarmenez egokienik atemateko duelarik. Ona izango zaigu, benetan, gure baitan gogo bizienaz eten gabe aztertzea, bertan gogo-ondasunen iturburu yoriena dugula oartzeko ta ondorioaz zorionerako bidean barna gero ta geyago auŕeratu al-izateko ere.

Emen dugu, beraz, gizona izadi erdian izaki yaukalena bezela, bizidun guztienganako ta gauza guziekiko nagusia dala, ta ba-du bere baitan bere goi-izate ori oartzeko almen berezia, oarmena ain zuzen, tai gabe ori ta beste almen guztiak be berarenak lez ikusteko. Goi-goyenekoa, oŕengatik, bere izaera gogo-bizian izan diteken guzia ongienik atemateko almena duelako, oarmenaren bidez jakin dezakelarik.

## XIV. IZADIA

Zer ote da IZADIA?; zein ote itz onen barne-barneko zentzuna?; nola ulef dezakegu zentzun ori? Gizon guztiak ez datoz batera IZADIA itzaren esan-naya adierazteko; alaz ere, geron ustez, ezin esan dezakegu gai oni buruz «buru bezenbat aburu» esakunaren erakuspenaz, emen aburuak baño askoz gutxiago diralako, ta galga guztietan barna, zentzun orokaraz, bi iritzi oso zabalak agertzen dira, nolabait gizonak bi talde aundietan kokaturik dauzkatela: siñistunena ta siñisgabekoena.

Orela, lenengoentzat IZADIA Yainkoa'k soferazi ditun gauza guztien multzoa edo da; bigarenentzat, ordea, berez egiñak diran gauza guztien multzoa. Bientzat «gauza guztien multzoa», alegia; ta izatera nola eldu diran erak edo eltzeko ibilitako bideak dira beren arteko ezberdintasun aundi ta sakona.

Geron aldetik lenengo taldea dugu egia duena bezela. Alde batetik burua da argi erakusten diguna; noski, nola uka diteke egiña dagoenak ala bearik bere egilea dala erakusten digula? Egilerik gabe egiña ezin. Eta ba-dira amaika gauzak eta izakiak egiñak dagozela, naiz aundi naiz txiki, naiz zabaldian barna dabiltzatenak naiz txikitasunean geron begiez ezin ikusi ditzakegunak; batzuk igitzen ari dira izugarizkoa dan ibileran, beste batzuk, gayezkoak diranak, geldi-geldirik dagozenak; bizidun eta zentzundun auek edo ayek, bizi gabe ta zentzunik gabe emengoak edo angoak. Bizi ta zentzunari buruz zenbat eta zenbat ezagutzen ditugula; besteetatik ere zenbat mota. Oro batera begiratzen, nola ez uste ba-dagoela norbait guziak irazan eta antolatu dituela? Bidezkoa, bai, be-



netan, norbait ori bizi ta ari dala, betidanik eta betidaño bizi ta ari, almen eta indar guztia berez dauzkala, siñistunok Yainkoa deitzen duguna.

Buruaz bakarik, ezinbestekoa dan ondorio ortaraño eldu gaitezke, ala bearez. Baña ba-dugu Idazteuna orixe bera esaten diguna, ain aintzakotzat artu bear dugun Idazteuna, aspaldi-aspaldian idatzita izan zana; ta ez idazle batek bakarik egiña, batzuek baño; lenengoz iragarleak eta gero beri--ona eman zigutenak eta bidaliak ere. Ba-dagoz idazti ontan iragarpenak, oso aintziñan egindako iragarpenak, eta guziak bete ziran aldi egoki batean, ain zuzen, Yosukristo notiñarengan; eta betetze ortan dago, bereziki, idaztian dagoena egia dala egiztatzea. Eta idazti deun ortan irazapenaz itzegiten zaigu. Alakotz, nola ez dugu siñistu bear irazapena izan zala ta bera egindako irazlea ere bizi zala ta oro egin zuela be?

Alaz ere gizonek aldietan barna, arokeriz, ez dute nai--izan irazapenaren asmoa onartu, ta beren kabuz beste bidetik azaldu nai-izan dute guzia, adimendunak ere berez diralakoan; eta ez dute artu gura-izan beren adimenak azaltzen diena baño besterik. Eta zer lortu dute?, nolakoak dira atera dituzten ondorioak? Argi agertzen da, benetan, guztia utza izan dala, ezinbestekoa zanez. Aurerabidea dala diñote ta aurerabide ortan aurkitu nai dute izadian barna dagoen eta gertatzen dan guztia. Baña aurerabide orek, bearezkoa danez, asiera izan bear du, ta ona emen nola ikusten duten asiera ori:

Bein, noiz izan zan ikusi eziñean, zibizki bat (bizi gabeko gaya) kizkiña (biziduna zana) biurtu zan, eta ori izan edo zan biziaren asiera. Idazti onen lenengo lanean, bizia'ri buruz egiña dan ortan, asmo onezaz galdera batzuk egin ditugu: Biurtze ori bein bakarik gertatu al zan?, eta zergatik bein bakarik?; nola eldu zan biurtze ori?; zein ekayan izan zan egipen ori?; zergatik ekai batean eta ez besteetan ere?

Amaika orelako galderak egin genitzake, guziak, jakiña,

erantzun egokirik ez izateko. Orduan aur̃erabide edo aldakunde ori, ezer egiztatu eziñean, siñistu bear̃ da nai ta nai ez. Eta siñistu gizonak egindako ustea?; ez ote da amaika bider̃ bidezkoagoa izaki bat siñistu?, Yainkoa deitzen duguna? Eta aldi guzietako gizonen baitan izan eta bizi-izan da Yainkoa'ren asmoa; ta Idazteunean agertzen da asmo ori bera zeatzez emanda. Beraz askoz bidezkoa izan bear̃ Yainkoa siñistu aur̃erabidea baño.

Dana dala, Izadia ementxe dugu gaur ere, len izan zanez eta gerokoan be izango danez. Gure inguru guzian ikus dezakegu Izadia ta geron buruan be bertan kokaturik azaltzen da. Izadia, bizidun eta bizigabe guztien multzoa da, ororen multzoa noski; ez, gañera, guztia bizirik gabe dagoen zerbait bezela, bizidunak amaika baitira ta eten gabe ari zaizkigu, ari ta ari, beti igitzean.

Baña bizidunik izan gabe or̃ dugu, zabaldian barna igitzen ari diran izar̃ eta izarbela, mil̃oika; guztiz neurtuta dagoen igipenean beti, ezertxoaz aldatu gabe. Nundik datorkie gayezkoak diran gorputz oyei igipen or̃ezaz ari-izateko almena? Berez?, nork ori uste?

Lur̃aren gañean amaika dira bizidunak eta bizigabeak ere. Bizidunetatik, batzuk lur̃ean bizi dira, beste batzuk urtan, aidetan be asko ta ugari, bakoitza bere bizieraz, beti berdiña dana, beste era batera aldatzea eziña zayela; ba-dute, alarik ere, bakoitzak berea, bizi ta ari-izateko beren sena; nork eman die oyei beren sen ori?; nork eman die guziai dagokien jokera berezi ori? Beste aldetik bizigabeak, bizirik ez dutenak, ba-dute bakoitzak bere berezitasuna, gizonak bere bear̃etarako ustiatzen duena, amaika gauzetarako bakoitzak gai egokia izanik. Nundik datorkie oyei gai on eta onuragar̃i izateko bereiztasuna? Nork esango du berberak sor̃erazi dutela beren izatean berezitasun ori?

Ta lur̃ gañean be gizona dugu, gorputz eta arima dala, izaki guzien artean garaitasun aundiena duena. Ba-du soñean



bere bizia, beste zentzundunenaren antzekoa dana, baña ba-du bere ariman ere gogozko bizi berezia, beste iñun ikusten eztana, ta esandako beste bizi or̃ek soñarena bere jokeran aldatu dezakena.

Gizonaren gorputza zati batzuek, asko, osotzen dute, ta zati bakoitzak bere eginbear̃a betetzen du zeatzez, or̃ela zati guziek gorputzaren biziari eusten diote egokienik, bizi ori izan al diteken eta yardun al dezaken ere; zati oyen eginkizunak kiri eder̃enean agertzen dira antolatuta, alkar̃ laguntzen beti ta gorputzaren bizia ongienik betetzen dutelarik. Nola ongi ulertu ain ar̃igar̃ia dan gorputzaren antolaketa, or̃ela, berez sortu dala ain egokiro, gizona beste zerbaitetik sortu dala uste bada? Ori eziña dala aitortu bear̃a zaigu, al eta ezin, eta goiko egil̃e batengana gure oldozpenak zuzendu bear̃.

Baña ba-du gizonak oindiño guzti ori baño gelgar̃iagoa dan beste zerbait, bere gogoa, ta gizonaren gogoan almenak ugari agertzen zaizkigu, beste iñungo izakirik aurkeztu ezin ditzakenak. Ortxe dugu, lenengoz, adimena, gauza guztiak nolakoak diran ikusi al-izateko, bizia bera ta biziaren agerpenak zeatzez ulertu al-izateko be; bai ta oldozpenak izateko, ta gogozkoak diran beste almen guztiak zeintzuk diran, nola jokatzen duten eta jokera guztiak aldatzeko ere almena duena. Adimenak zuzendu ditzake gogozkoa dan bizian ager̃ diteken edozer eta oro. Bai aundia dala adimenaren almena.

Eta beste almenak, aunitz, aipatu ditezke, bakoitzak bere eginkizun berezia duela: Oldozmena, gogamena, oroimena, ulermena, oarmena, zentzumena, irudimena, ezagumena, asmamena, naimena eta abar̃. Ba-dago or̃ gogo-aberastasuna, mugarik eztuela iruditzen dana, ta gizona goi-goyeneko izakia dala egiztatzen duena. Bidezkoa da, or̃engatik, gizona, bein jayo ezkero, ilezkor̃a dala ustea; egia da gorputza iltzen dala, baña nola il diteke bere arima?; eziña bezela agertzen da ori ta, or̃engatik, lur̃-gañean ez baña beste nunbait jar̃ai-

tu beaŕ duela. Yainkoa'k emango dio bakoitzari beste nunbait ori, gorputza il ondoren noski, jakiña guztia soŕerazi duen Yainkoa. Oŕa Izadia ulertzeko bide egokiena ta bakaŕa, siñestunok onartzen eta jaŕaitzen duguna. Nola azaldu ditzakete sinisgabekoek Izadia ta bere bizi guzia? Eziña zayela esan beaŕ, zalantzik gabe, ta orain arte aurkeztuak izan diran beste azalpen guziak oñaŕirik gabekoak bezela agertzen dira oso, ta siñistunen azalpena goi-goyan geratzen da indaŕ aundienaz.



## XV. ALDE TA ALDI

Ona emen alkaŕi buruz ia berdin diran bi itz: ALDE, ALDI. Baña beren egituraz ia berdin izanik, beren zentzunaz bi asmo oso ezberdiñak adierazten dituztela ikusi beaŕ. Ta egokia edo dirudi bi asmo oyek aztertzea ta berai buruzko gogayak ere argi ikusteko alegiñak egitea. Goazen bada ia ori egitea nolabait lortu ote dezakegun.

Zer ulertu beaŕ da ALDE itza esatean?, zer ALDI itza erabiltzean? Beste eraz ere: Zer ote da ALDE?, zer ote da ALDI? Eŕezagoa dirudi lenengo galderari erantzutea bigaŕenari baño. Ta ba-dauzkagu bi itz oyetatik sortutako beste bi auek: ZABALDE, ZABALDI, ots, zabala dan ALDEA ta zabala dan ALDIA; lits bereziak erakustean.

ALDE itzaren zentzuna argi dagoela uste dugu, TOKI edo LEKU beste bi itz oyen antzekoa dala agertzen baita, eta gure soin-zentzuetaz bereala oartu dezakegu; beraz luŕa ta luŕ gañean edo azpian naiz urpean eta goi-goyeneko zabalde guzian dagoena ere ALDE edo deitu dezakegu, ALDE edo da gayezko asmoa bera daukana. Oŕelaxe dala-ta, gure baitan ongi zedaŕi dezakegu bere zentzuna.

Eta ALDI zer ote da? Nola zedaŕitu bere zentzuna? Gure soñaren zentzuek ezpaitira gai ALDIA oartzeko, nola ikusiko dugu ongi zentzun ori? Eta itz au egunero ta eten gabe darabilgu lits batzuetan barna, onela edo: eguraldi (egurats + aldi) ona dago; aspalditik, aspaldian, aspaldiko, ..., antziñako asmoaz; ALDIA izakien iraupena adierazteko; itzaldi, ibiĺaldi, jayaldi, eroaldi, alpeŕaldi ta abaŕ eta abaŕ.

Guzia ALDI'an dagoela argi dago, notiñak eta abereak, landare ta gauza guztiak, ura, aidea, sua ta luŕa, odei ta

laño, otz eta bero, eguzki, iĺargi ta izaŕak, ..., oro. Bizia ere ALDI'an barna irauten ari da. Apika ALDIA biziaren bidea dala esan genezake, bide zabala noski, zedaŕiturik agertzen ez dan bidea, norabiderik gabe agertzen zaigun bidea, baña bai benetan bidea dala, utzi ezin diteken bidea eriotzean ezpada, beraz bakoitzarentzat iltzean amaitzen da ALDIA; edo iltzen dana da ALDIA uzten duena, edo ALDI'tik at doala. Naiz ludian naiz zabalde osoan, bizia dan bitartean ALDIA ere ba-dagoela oartu beaŕ; eta ALDEA dan guzia be ALDI'an kokaturik ikusten dugu.

Alakotz, ALDIA ALDEA baño lenagokoa dala esan beaŕ; baña uleŕ ote diteke ALDIA ALDEA gabe?, zabaldia zabaldea gabe?; ba-dirudi biak BETIKOTASUN'ean dagozela, edo ortik atera dirala; nola baña ta noizdanik eta noiz arte? Egitan bizi guzia ere BETIKOTASUN'ean dago, era ontaz ala artaz; oŕengatik bidezkoa bide da ALDE ta ALDI be berdin dagozela, gizonarentzat ulergaitza dan BETIKOTASUN'ean; eta BETIKOTASUNA, betikotasun izateko, iñoiz ezin izan diteke asia, iñoiz ere ez da amaituko; nola ulertu ori? Yainkoa betikoa dala siñisten dugu, baña Bera ez da BETIKOTASUNA, ez eta betikotasuna YAINKOA; Yainkoa izan beaŕ BETIKOTASUNA baño lenago ere; baña, esan dugunez, BETIKOTASUN'ak ez asia ez eta amairik be ez dituela egitzat artzen badugu, nola guzti ori ulertu?

Ba-dauzkagu beste bi itz: BETE ta BETI, len esandakoak bezela beren izenean ia berdin dirala, baña beren izanean oso ezberdiñak agertzen zaizkigunak. BETE itzaren zentzuna, ALDE lez, gure zentzuek oaŕ dezakete, baña BETI itzarena ezin, ALDI bezela; alakotz bi itz-bikote oyek ba-dute alkaŕi buruz zer ikusi, ta BETI'k ere BETIKOTASUN'aren zentzuna bera du. BETE esatean nolabait ALDE be adierazten dugu, ta BETI esatean ALDI ere; BETE'K ALDEa dan guzia berean ote du?, ta BETI'k be ALDIa dan oro?

Ba-dugu oindiño BETE antzekoa dan beste itz bat, BE-



TA, zerbait egiteko beaŕ dan astia adierazten duena; ta ASTI'k ere ALDI'aren zentzuna duena, orobat beraz BETA'k be. Eta azkenez ALDE ta ALDI, BETE ta BETI, BETA ta ASTI, BAT egitekoak al dira bikote bakoitzean?, BAT ori BETIKOTASUN'ean murgildurik geratzeko?.

ALDIa igarotzen dala esaten da, baña au ez da benetan egia, ta asmoa zeatzago adierazteko, auxe da esan beaŕ dana: Au, ori ta ura, zu ta biok, oro, aldian barna igarotzen gera, ALDIa igitzeke geratzean; eta oraingo gure ALDIa aspaldikoa bera da ta uŕengoarena be, noski. Beraz ALDIak bizia dan guzia inguratzen du ALDEa dan guzia bezela. Alan eta guzti, betikoa ez izanik, ez, jakiña, BETIKOTASUNA, noizpait edo jayo zan, asi zan, norbaitek soŕerazita, eta norbait ori, bidezkoa danez, YAINKOA izan beaŕ, ezin edo beste batengan oldoztu. Asi ezkero amaitzea ere beaŕa bide zayo, ta amayera ori YAINKOA'k be ipiñiko duela uste dezakegu.

Alakotz geu ta oro ALDE'an gagozela egitzat artu beaŕ dugu, ta, beste aldetik, ALDI'an barna bizi-izatean goazela be; noruntz? baña, galde dezakegu, ta, zalantzik gabe, BETIKOTASUN'eruntz erantzuteko, YAINKOA'ganuntz azkenez. Ortan al dago, nolabait zedaŕiturik, gure izatearena?; ezin ukatu oŕelaxe bederen dirudiela.

ALDEa dan guztia ulertzekoa da gizonarentzat, asieran esan dugunez bere zentzuek oartu dezaketelako; ezin berdin jokatu ALDI'ari buruz. Alaz ere neuŕi batzuk jaŕi al-izan zaizkio ALDI'ari, naiz eta ortarako ALDE'aren laguntza erabiltzean; EGUN, IL eta URTE dira neuŕi oyek, edonork dakienez onela zedaŕiturik: EGUNa, luŕak bere ardatzaren inguruan birunda bat egiteko beaŕa zayon ALDI-zatia da; IĹ'a iĺargiak luŕaren inguruan beste birunda bat ematekoa da; ta URTE'a luŕak eguzkiaren inguruan beste birunda bat betetzekoa. Beraz, iru neuŕi oyetan ALDE ta ALDI asmoak alkartuta dagozela argi agertzen da. Eta ba-dagoz beste ALDI-neuŕiak, esandakoak bezela ez diranak, naiz eta beren as-

moai dagozkiela; gizona da bere bearetarako jari dituena, auetxek: ordu ta bere zatiak eta mendea. Norbait edo zerbait igaroten dala edo irauten duela, ALDI'aren zati bat adierazteko eiki, ALDIAa bera beti bat igitzeke geratzean.

Guziok gagoz, bizi guzia bezela, ALDE'an eta ALDI'an bete-betean. Egitan ALDE'an gagoz eta ALDI'an gabiltz; beraz EGON eta IBILI aditzak ALDE ta ALDI'ari dagokiez ondo; ta egon bagagoz nunbaitetik ETORI gera, ta ibili bagabiltz nunbaitera JOAN bear dugu. Etori ta egon, joan eta ibili, ora lau egipen iragangaitzak ALDE'an eta ALDI'an burutzen diranak. Eta lau aditz oyek, iragangaitzak be izanik, oyetxek ain zuzen ditugu aditz iragangaitz nagusienak euzkeraz, ALDE ta ALDI asmoai buruz zuzen dagokienak.

ALDE ta ALDI itzak beste itzekin alkartzen dira itz beriak egiteko ta beste ainbeste asmo ezberdiñak adierazteko; ala ere itz beri oyetan beti ikus dezakegu ayen zentzun nagusia guztien oñari bezela agertzean: sortalde, sartalde, iparalde, egoalde ta abar; eta batzaldi, itzaldi, gizaldi, ibilaldi ta beste ainitz. Orela izkuntzan eta bizian garantzi aundia dutela erakustean.

Beraz, zentzun nagusi oyetan begiratu bear ditugu bi itz auek bereziki. ALDE'an gagozela ta ALDI'an gabiltzala esan dugu len, eta orela dago ta orela dabil bizia dan guztia ere, ALDE ta ALDI zentzunak bizia izateko be ezinbestekoak bezela agertzen zaizkigularik; bigarena lenengoa baño ulertzeko zalagoa izanik, ain zuzen ere, gure zentzuek ortarako bide ez diralako. Baña baitezpadakoa dugu zentzun orezaz itza erabiltzea ainbeste asmoak egokiro adierazteko.

Bai, ALDE'an eta ALDI'an, zabaldean eta zabaldian ari da beti gure bizia, gizadiarena osorik. Ondo atematen dugu ALDE'an egotea, ez ain ongi ALDI'an ibiltzea, len oarerazi dugunez, gure zentzuek lenengo asmoa nolabait ikutu ta ikusten dutelako, ta bigarena ikusteko ta ikutzeko gai ez diralako; nork ukatu, alarik ere, ALDI'an barna bizi guzia eten



gabe ari dala? Bakoitzaren bizia jayotzean ALDI'an sartzen dala oso argi oartzen da iltzean irteteko; ta orixe gertatzen zayo bizi guziari ere. Alakotz ALDIa bizia baño lenagokoa da zalantzik gabe —Ludi ontako biziari buruz ari gera, jakiña, mintzatzen— baña ALDIA amaituko al da emengo bizia itzali ondoren?; ora erantzun egokia ez duen galdera; agian bai, ta orduan ALDIA bizia izateko edo sortua dala oldoztu dezakegu, ta beste ainbeste ALDEA ere. TA ALDEa ALDI'an izateko be sortua izan dala ustea bidezkoa da; ta orela izanik ALDIa dugu lenengoa izatea; nola?, eziña edo zaigu nola ori atematea, apika betikotasunaren zati bat baño besterik ez edo dala.

Eta bizia bera bezela, egitan, gizonarentzat ezkutuki aundia bezela begiratu edo bear dugu, sakon eta gelgari dagoen ezkutukia; ta gure adimenak sakontasun ortan sartzeko almenik edo ez du. Orengatik ALDE ta ALDI asmoen zentzuna emen azaldu dugun neurian ulertu edo dezakegu bakarik.

## XVI. IZAERA - IZAKERA - IZANEZA - BETIKOTASUN

Zer edo da izaera —izan-era—? Nola ulertu beaŕ dugu itz onen zentzuna? Izatearen egipena edo, izan gertatzea apika. Notin bat jayotzen da ta unealdi artan bertan ba-da, izaeran dago oso-osorik; jayotzean bizian sartzen da ta izaeran ere batera. Baña bizia ez da izaera, ez eta izaera bizia, naiz eta gauza berbera lez agertutaŕen. Bizidun bat bizi dan bitartean izaeran dago zalantzik gabe, baña iltzen bada ta oŕela bizia ere uzten badu, izaeran jaŕaitzen dala egitzat onartu beaŕ da, gorpua biurturik. Ba-dakigu bizia bizidun batentzat noiz amaitzen dan, bere eriotzean; baña izaera noiz amaitzen da? Oŕa argi ez dagoen asmoa. Iltzean bakoitza nolabait betikotasunean sartzen dala esan dezakegu, naiz eta, jayotzean ere, egitan, ortan sartzen dala bayeztu beaŕ dugun aŕen.

Beraz iru gauza edo asmo ditugu emen, alkaŕen antzekoak dirala agertzen diranak, alkartasun ertsian ikusi beaŕ ditugunak; baña gauza berbera eztirala ere, alkartasun ortan gizakiarentzat bakaŕik diralako. Beste izakientzat ezin guzti ori azpegi berean begiratu; oŕengatik, apika, naiz bizia, naiz izaera, naiz betikotasuna, iru izaki-multzoai buruzko asmoa aztertzea egokia edo izango zaigu. Lenengo izakia gizakia dugu noski, bigaŕena abere ta landareak osotzen dute, ta irugaŕena bizi gabeko izakiena da.

Len ikusi dugunez gizakiaren izaera jayotzen danean asten da, enurarik gabe, naiz eta, benetan, ernalduta izan danean bada ere. Bein jayo ezkero biziduna ba-da, bizi betean dago ta bizi ortan ba-du bere izaera ere ta betikotasunean sartu da zearo; jayo baño len etzan ezer, edo ia ezer, jayo ta orduxetik ba-da, bizi da, bere izaeran kokatu da, bai ta



betikotasunean ere. Bakoitzarentzat izaera berea da, berarena bakaŕik, eta bizia bezela; betikotasuna, ordea, egoteko era bat edo dalako, ez da berea bakaŕik ororena baño, egitan bera ta guztiak egokera berean, egokera berezi batean sartu dira. Alakotz, bizia ta izaera, izatea bezela begiratu beaŕ ditugu, ta betikotasuna egotea bezela. Oŕa gizakiarentzat izan eta egon asmoak nola agertzen zaizkigun argi.

Bizia ta izaera, ain alkaŕen antzekoak izanaŕen, eztira gauza bera. Bizia dala-ta, gizakiarentzat joan, etoŕi, ibiľi ta egin be adierazten zaigu zeatzez; izaera dala-ta izatearen azpegian ikustekoa da soiľik. Oŕelaxe, irurak —bizia, izaera ta betikotasuna— ongi zedaŕiturik oartu ditezke garbi. Bizia ta izaera bakoitzarentzat noizpait asten dira, betikotasuna ez da bakoitzarekiko asten, eta bere zentzuna noizpait asi dala ezin esan dezakegu, bidezkoa da oŕela ustea. Ori da asierari buruz ikustekoa duguna. Amayari buruz, ordea, bizia eriotzaz amaitzen da, ez ala ere izaera, ta au amaitu ez baña eraz aldatzen da, lengo biziduna gorpu biurturik. jakiña, gizakiarentzat bizia bi eratan agertzen da, soñean eta gogoan; ta egiz biziaren amaya soñari bakaŕik dagokio, ez, iñoiz, gogoari.

Naiz bizia naiz izaera izaki bakoitzean dagoz, berarengan eta bere baitan; nolabait biak gizaki bakoitzarenak dira, bakoitzari dagozkion bezela; biak bakoitzarengan eta bakoitzaren baitan dagoz, bakoitzari bakaŕik dagozkiolarik; eta bakoitzari buruz ari bagera berdin ari izan gindezke gizaki guztiai buruz ere. Betikotasuna, ordea, naiz bakoitzarekiko naiz ororekiko berdin da, berbera da, ta bere betetasunean oro bildurik dauka.

Abere ta landareai buruz bizia ta izaera, gauza berbera dala esan edo dezakegu. Jayotzean asten dira bientzat biak, eta eriotzaren egipenean amaitu be berdin egiten zaye. Oyentzat eztago betikotasunik, edo obeto esateko, oyek ez dira iñoiz betikotasunean izango; oyek izanezanetik izanezan arte bizi dira edo izaera dute, eta jayo baño len ezer izan ezpa-

ziran, il ondoren ezer ere ez dira izango. Biziera ta izaera gertatzen dira oyentzat soil̄ik; beraz, ezberdintasun aundia agertzen da gizaki ta oyen artean. Abereak eta landareak be eztira berdin, lenengoak zentzundunak dira ta bigaŕenak ez; eta oyek ere oŕela guztiz zedaŕiturik agertzen zaizkigu ezmezik gabe.

Gauzak eztira jayotzen ez eta iltzen ere, gizaki, abere ta landareak bezela. Oyetatik asko betidanik dagozela uste dezakegu, edo betidanik ezpada, bai sortuak izan ziranetik bederen. Oyetan eztago bizirik, baña izaera bai, berak, bakoitza bere tokian, baitagoz, eta oŕela izaera egoteari buruz bakaŕik dagokiela ikus dezakegu.

Gauzak, noski, zentzungabekoak dira ta iru mota auetan ikusi ditzakegu geyenak; sendaŕ, ubil eta laspel, eta mota oyen artean saŕ ezin ditezkenak ere: gogoa, adimena, oldozmena, ezaguera, ...; oroimen eta giza-gogoan dagozen beste almenak; argia, soñua, usain, txasta, ikusi; aize, egu, egurasti; yakintza ta ezaguerak; maitasun, zaletasun, goŕoto, iñartzi ta abaŕ eta abaŕ; ezin oŕelakoak edo oyen antzekoak diran ainbeste zerki, ..., nun-nai dagozenak aipatu. Ezin esan dezakegu oyetan bizirik dagoala, baña bai ba-dirala edo ba-dagozela, ta oŕela guzti guztiak izaeran dagoz, bertan nolabait zedaŕiturik, bizidun eta zentzundun guziak bezela.

Alakotz, izaerak guzia biltzen du edo guzia izaeran dago, ezinbestean kokaturik. Eta izaera ez da bizia ez eta betikotasuna ere, eta bizia ta betikotasuna izaeran dagoz; orduan bi oyek baño lenagokoa al da izaera?; ezin ori be esan, eta ba-dirudi edozein gauza izaten asten dan unealdian berean, bakoitzarentzat ere izaera agertzen dala. Zer ote da, beraz, izaera?, egokera bat?; zentzundunentzat orixe dala uste diteke, bakoitza jayotzen da ta jayotzean bizian dago orduantxe ta izaeran ere, oŕa egokera argi ikus ditekela; jayotze, bizi-izate ta egote batera izaeran kokaturik bezela agertzen zaizkigula. Zentzungabekoak, ordea, noizdanik dagoz izaeran?,



sorturik izan ziranetik edo norbaitek sortu zituenetik; oyentzat sortzea, zentzundunentzat jayotzea dana baita, edo nolabait antzekoa bederen.

Izaera, alakotz, izatearen egokera dala esan dezakegu, len galdetu dugunez, zerki bakoitzarentzat izatean asten dan unealdi berean agertzen dala; ta bakoitzari buruz izan baño lenago iñun ez dagoela. Jakiña izan baño lenagokoa izaneza dala diñogu; baña, egitan, da'la esan al dezakegu?, ezer ezpaita; ez dana nola zer dan esan?, iñola noski, guztiz eziña dugu ori; oŕela izaneza gure baitan eratzen dugun asmo bat baño besterik ezta.

Izan al diteke izaera beste asmo bat bakaŕik?; orixe esan ezin dezakegulakoan gagoz, izaera zerbait ba-dala ukagaitza baita, izateaz azaltzen dana; gauza bera al dira izatea ta izaera?, ez dugu uste gauza berbera dirala, bearbada izaera izatearen egipena dala esan genezake, ta edozein eraz asmo biak oŕela guztiz alkarturik agertzen zaizkigula ikus ditzakegu, zerki bakoitzarentzat agertzen dala, eiki, izaera lits bateaz; zentzundunentzat ez edo dago litsik eta guzientzat berdin agertzen dala ikusi diteke; baña zentzungabekoentzat ezin guzientzat orixe bera esan; e.b., zer da izaera betikotasunari buruz? Betikotasuna, itzak adierazten duen bezela, betikoa da, ez du izan asierarik eta amairik ere ez du izango; alaz ere betikotasunaren izaeraz mintzatzen gera noiz-nai, betikotasunak bere izaera ba-duela adierazten; eta betikotasuna betikoa dan ezkero oŕela be izan beaŕ bere izaera ere.

Baña izaera ez da, beti, betikoa, batzuetan eta izaki batzuetarako amaitzen dalako; e.b.: tximist-indaŕa igarotzen danean bere izaera ba-duela diñogu, baña bein igaro ezkero bere izaera ere galtzen du. Oŕengatik, apika, izaeran oro ba-dagoela adierazteko, asmoa da ta ez edo da besterik; alakotz, egokera ta izaera batera datoz guzirako, egon eta izan lits bereziak agertzen, gauza bera baterako dagozkionak.

Orduan, izaera, benetan, izakera bezela ikus diteke, ta

orela aipatu ditugun egoera ta izaera esan baño egokiago deritzaigu egokera ta izakera esatea; orotarako «era»'k asmoa adierazten du, ots, nor-gabe edo zein-gabe dana; ta «kera»'k asmo ori dagokion egipena adierazten du ertsiki, ots, bere zeatza. Alakotz izaera ta egoera goiko galga berean ditugu biak, eta izakera ta egokera beste galga batean, lenengotik sortzen dana.

Orengatik edo, izaera aipatzean, beti, goi-goyeneko galgan ari gerala adierazten dugu ezeri atsikita egon gabe, ta atsikitasun ori agertzen danean, nor edo zein edo zer dan bati dagokionean bakarik izakera bezela ikustea egokiago dirudi; «izan», «egon» biurtuta.

Norberaren baitan agertzen da beti izaera, ta norberarengan izakera, asmo biak nola adierazten duten egokiro azaltzean eta onela ere berezi ditzakegu biak alkarenetik. Baña asmo bietatik lenengoa da, bereziki, aztertzeko nagusiena.

Noski, ez da eraz notin batentzat bere baitan eta beragan asmoak, lenengo zentzunak batik bat bigarenetik at erabiltzea, soilik aztertzea; baña orixe da, ain zuzen, emen egin nai duguna. Beraz, izaera edonori buruz ikustea dugu gure eginkizun bereziena. Eta goiko zentzun ortan izaera ikustea da gure elburu nagusiena.

Esan dugun guzitik ateratzen danez, zeribait atsikita egon gabe, zala edo da izaeraren gogaya argi ikustea, zabaldi guzian dagoen orori dagokionez begiratzean. Eta izaera guziai dagokie bete-betean, ortan zalantzik ez; baña oro dan guzitik at ikustea nai dugu, izaeraren egia bera dan bezela ulertzeko.

Izaera ez da, noski, ikutu diteken ezer, baña ba-dirudi asmo bakara baño geyago dala; ta geyago ori nola atsiki dezakegun ikusi bear da, ortan zailtasun aundia edo dagoelarik, ezerekin alkartu gabe begiratzean.

Izaera itzaren ondorio bezela izakera dugu, bi asmo auek



adierazteko: lenengoa emen aurkeztu duguna bera da, ta bigarena nolabait ondorioa ere dana, izatearen edo egotearen era, bakoitzean izaera nolakoa dan jakin-erazten diguna, izaki bakoitza bere izaeraz nola agertzen zaigun azaltzean.

Guziaren laburpena bezela auxe da esan ditekena: Izaera guziai dagokiela, bakoitzari era bereziaz noski, baña izan, bizi ta egoten dan guziari, bidezkoa danez. Izaerak, alakotz, orotasuna du bere nolakotasun zeatza, guzia inguratzen eta guziari eustean. Ez da ikusten dan ezer, ez eta guregan sortu diteken edozein burutapenik ere; beraz gugandik at dagoen zerbait, geu be, oro, izaeraren barnean gagozelako. Zer edo da, orduan, benetan, izaera? Onela edo agererazi liteke ongienik, itz laburetan, izaera zer dan adierazteko nayean: Izaera izate ta egote guziaren egipena da, besterik ez.

## XVII. SORKARIDIA

Zer ote da SORKARIDIA? Enurarik gabe, bizi dan eta nun-nai dagoen guziaren multzoa, bizidun eta bizi gabeko guztiena, oro da sorkaridia. Eta bera nolakoa dan ikusteko sorkari guztien beri zeatza aztertu bear osotasunarena, gero, atera al-izateko.

Eta bera nolabait aztertu nayean ari-izan ezkero, bere aunditasuna, guztiz izugari ta gelgaria dan aunditasuna, agertzen zaigu atematekoa dan lenengo azpegia bezela. Orixe ben--benetan aunditasuna, bere osotasunean neuri eziña dana; noski, muga-gabekoa bezela agertzen zaigun zabalde ikaragarian izar, izarbel eta beste izakiak milaka ta milaka ari dira, biraka guziak, zabalde ortan igerika ari-izango bailiran beti, iñoiz eta iñun gelditu gabe. Eta gizona sorkari yaukalena, Lur ontan bizi da, zabalde guziaren izarbel berezi ontan.

Guzti ori begiratzean eruz geron baitan sortzen diran galderak: Zerezkoa da zabalde ori?, ezereza ez izanik, bidezkoa baita zerbait izatea. Etera ote? Agian bai, zabalde guztia betetzen dan laspel antzekoa dan etera, ta zabaldea eter-itxaso zabala bezela begiratzekoa edo da, ta itxaso ortan izar guztiak tai-gabeko dantzan bide dabiltz.

Zabalde izugari ori nunbait asten al da?, nunbait amaitzen al da? Nork jakin! Iñun asten eta amaitzen ezpada, zabaldiarekin bat edo dagi bere zabaltasun zabalean. Eta nunbait asten eta amaitzen bada, mugaturik egon bear nolabait; baña orela izan ezkero, zer ote dago muga oren beste aldean?, beste zabalde ikaragariagoa ote?; zein eta nola izan diteke bigaren zabalde ori? Ezin jakin! Donokia apika? Irudimena ere oso motz geratzen da oren susmoa be eukiteko. Dana dala, aunditasun izugaria beti, iñun edo amaitzen ez dan aunditasuna.



Amaibageko asmoa geron baitan geratzen da, iñundik amairik ez duen zerbaiten asmoa. Andoiztian zenbakiak ematen digu amaigabekoaren susmoren bat, baña ori esatea eraza bada ere, zala benetan ulertzeko izatea; ta amaigabekoa dana bidezkoa dirudi asierarik ere ez izatea. Ez asi, ez amai, ora ezkutuki aundia!, argitzeko eziña bezela agertzen zaiguna.

Edozein eraz, zabalde oren nunbait bizi da gizona. Lura deitzen dugun izarbel ontan, eta bizi ori izan al-izateko ez dira gutxi izan bear diran baldintzak edo jazokerak; ona emen batzuen batzuk: Eguaren aidea bere antolapen bereziaz, arnasa artu al-izateko noski; egu orek lur guztia inguratzen du, irurogeiren bat aneurkin lodi dala. Aztuntasuna edo Lurak duen erakarpen aundia, oren bidez guziaren azta neurtu ditekela. Luraren kaizua, ain zuzen erakarpen ori zeintzen duena, kaizu ta erakarpena alkarekikoak diralako. Luretik eguzkiraño dagoen bitartea, bearezkoa zayon beroa euki al-izateko ta eguzkitik datozkion beste eragipenak ere artzeko. Ura, Ludian barna ain ugaria zabalduta dagoena, ainbeste bearetarako ezinbestekoa zaiguna. Urtean barna ainbat aldatzen dan giroa, azkuria lortu al-izateko ta ainbeste bear betetzeko ezinbestekoa dana. Luraren emankortasuna ainbeste landare-mota bizi ditezken eta gizonaren ainbat bearetarako baitezpadakoak diranak. Ludiak bere ardatzaren eta eguzkiaren inguruan egiten dituen birundak, neuri bereziaz egiñak diranak. Euriak, edurak, aizeak eta izotzak ere burutzen dituzten beren eragipenak, era askotan eta tokien zear ain ezberdiñak diranak. Eta giza-soñaren izakera, esandako eragipen guztiak artu al-izateko ta guztien bitartez bizi al-izateko. Ez dira gutxi ori lortu al-izateko ezinbestekoak diran eragipenak; eta oyek, beren neuri berezian, Ludi'an bakarik izan ditezkenak; beraz, gure izartian dagozen beste izarbeletan emengo bizia eziña dala bayeztu dezakegu zalantzik gabe.

Eta beste izaŕetan eta auen izarbeletan ba ote dago gurea bezelako bizia?; eztakigu baña izatekotan gure Ludi'aren antzeko beste izarbelean izan beaŕ. Izan al diteke beste erazko beste biziren bat?; ori guretzat gaur eskutuki osoa dugu ta eziña zaigu oŕi buruz ari-izatea. Gaurko ontan dakigunez ezin ikusi giza-bizirik Ludi'an dagoena baño. Idazteunak Luŕeko atsegin-baratzaz itzegiten digu; ez ote zan baratz ori gure Ludi guzia?, beste izaŕen artean bakaŕa? Bidezkoa edo da oŕela ustea.

Ain aundia dan izaŕ guztien multzoa begiratzean, zearo aŕiturik geratzeko gizona beti. Zeatzez ezagutzea guztiz eziña bada ere ba-dakigu zabalde osoan izaŕak eta izarbelak milaka ta milaka birundaka ari dirala, beren bidetik iñoiz irten gabe; birundaka beren ardatzaren inguruan eta beste izaŕen inguruan ere, alkaŕetik bitarte berean beti, igerika ibiliko bailiran. Ba-dagoz zabaldean barna beste izaki batzuk ere, isats-izaŕak bezela, baña auek, zergatik jakin gabe, noizean bein bakaŕik agertzen dira zabaldean zeaŕ, luŕetik osta-ostan ikusi al-izateko, ta oyei buruz gutxi, oso gutxi, jakin al dezakeguna.

Nola eusten diote beren buruari izaki guzti oyek izugaŕia dan zabalde ortan?, eter-itxasoan alkaŕen ondoan igitzean eta iñoiz alkaŕ jo egin gabe? Ba-dago argi-ziŕintz bat oŕezaz azalpenen bat ikusteko: Ororen erakarpenaren legea. Lege onek diñoenez izadian eta zabaldean dagozen izakiak alkaŕ erakartzen dute, berez eta neuŕi baten arauz. Erakarpena ez da berdin gorputz guztietan eta beren kaizua nolakoa dan oŕela izaten da, kaizua aundia bada erakarpena ere aundia, ta txikia izan ezkero txikia be erakarpena, alkartasun ertsian beti. Eta oŕela izatekotan zabaldean igitzen dan izaŕ edo izarbela bakoitzak bere kaizu berezia euki beaŕ du, beste baten inguruan eta bere tartean beti ibili al-izateko.

Benetan aŕitzekoa ori ere. Nola dauka bakoitzak ezinbes-



tekoa zayon bere kaizua?, bear-beaŕezkoa zayon kaizua? Guzia antolatu zuenak emandakoa eskierki. Oŕa oŕ, beraz, erakarpena, kaizua ta ibiĺera egokiro ta zeatzez ongienik antolatuta.

Guzia da aŕigaŕia sorkaridian zeaŕ, gizona guztiz txundituta geratzeko aña. Ona emen begiratzekoak diran beste bi azpegi: Ibiĺeraren lastertasuna da bat; nola dabiltze gorputzak oŕen lastertasunaz?; nundik datorkien edo eltzen zayen oŕela ibiltzeko beaŕ-beaŕa dan indaŕa?; indaŕ oso aundi ori noraezekoa baitzaye arin-arin ibiltzeko. Erakarpena nolabait ulertu diteke kaizuaz gogoratzean, baña ibiĺera ta onen lastertasuna nola ulertu?, gañera ibiĺeraz ta aundia dan lastertasunaz ibiltzen miĺaka izaŕ ari baitira, eta oso beaŕa baita ortarako indaŕ oso aundia izatea; nolakoa da indaŕ ori?, nundik sortzen da bera?, nork edo zerk ematen du oŕen izugaŕia dan indaŕa? Nork azaldu oŕen ulergaitza dan ori? Beste aldetik oŕela ibiltzean miĺaka ta miĺaka izaŕ diralarik nola ez dute iñoiz alkaŕ jo edo tanka egin?; kirian-kirian ibiĺi beaŕ baita oŕela ari-izateko; nork jaŕi ta antolatu ditu ainbeste izaŕ ain aŕigaŕia dan kiri ortan? Ezkutuki ori ere gizonarentzat, egitan sorkaridian guretzat osoa orixe baita, ezkutukia. Ezin ukatu, ala ere, sorkaridian guztia kirian jaŕita dagoela ta kirian be dabiĺeĺa.

Ba-dago, oindiño, beste zerbait begiratzeko: Zerez dagoz egiñak izaŕak?, sendaŕ, ubil eta laspelezko gayaz?, irutarikoaz eiki? Oŕela dirudi, oŕi buruz jakin al-izan dana oñaŕiz arturik. Gure izarbel-taldearen burua dan izaŕa, gure eguzkia osotzen duten metalak, aŕiak eta laspelak Ludi'an ezagutzen ditugunak berak edo dira, baña guziak pizturik bide dagoz, gaŕ izugaŕietan edo bildurik; eta gaŕ oyetatik edo piztuta dagoen guzitik argi ta beroa jalgitzen dira, izarbel guzietaraño ta gure Ludi'raño ere eltzen diranak, jakiña, gure bizirako beaŕa dan neuŕian.

Baña oŕela guztia pizturik baldin badago, ez al dira ango

gayak suntzitzen milaka ta milaka urteetan barna su artan eretzen egin ondoren?, orixe baita suaren eragipena beti. Nork piztu zuen su izugaŕi ori?, edo nola piztu zan? Eta ustekoa danez izaŕ guztiak bide dagoz berdin eginda; oŕela izartegi guzia sutan dagoela esan diteke edo milaka ta milaka zuziz beteta, ta berotuta, ta argituta. Dana dala bero ta argi oyek gureganaño eltzen dira egokia dan neuŕian eta oyen eskeŕ be bizi gera Ludi ontan. Bide batez erakarpen oso aundia eguzkian bertan, izarbel guztiak bere inguruan ibiltzeko neuŕi egokian be. Eta eguzkia ere ez bide dago geldirik oartu baita norabait igitzen dala, izarbel guztiak berarekin eramaten.

Izugaŕia da benetan sorkaridia ta bertan dagoen guztia ere. Siñismenak esaten digunez ba-dakigu guzia Yainkoa'k egiña dala; beraz ori izugaŕia bada, ben-benetan gelgaŕiagoa izan beaŕ guretzat Yainkoa bera. Eta bidezkoa da, ondorioz, Yainkoa betikoa dala ustea; osterantzean Yainkoa nork edo zerk egin zuen galdetu beaŕ-izango genuke; ta nor edo zer oyek be beste nork edo beste zerk egin ote zuen galdetzea bidezkoa dirudi. Ori eziña edo da ta bidezkoena izan beaŕ betikoa dan norbaiteaz oldoztea, Yainkoa'z noski. Eta sorkaridian dagozen ainbeste gauza izugaŕiak begiratzean, nola ez oldozttu Yainkoa dala?, nola ez Bera siñistu? Ezinbestekoa noski siñismen ori, gurea dan eta ororena dan bizia nolabait ulertzeko; ta gure aldetik, apaltasunez, orixe da gogotik siñisten duguna.



## XVIII. GAYA

Zer ote da, zentzun orokaŕean, gaya? Gogoa ez dana? Gogoa ez dan guztia? Jakiña, bai, orixe da gaya, zentzun oso zabalean erantzun beaŕ baldin bada; baña erantzun zoŕotzagoa eman beaŕ-izan ezkero, zentzunik ez duena dala ere esan dezakegu; beraz, gaya zentzungabekoa dala ontzat artu beaŕ dugu, asmoa zedaŕituago adierazi nai baldin bada.

Gizonarengan gogo ta gaya alkarturik dagoz, gogoak gayari eusten diolarik. Abereengan ez dago gogorik; oŕen ordez edo ba-dute beste zerbait, sena deitzen dana, eta oŕela berengan sena ta gaya nolabait alkarturik dagozela uste dezakegu. Landareetan ez dago gogorik ez eta senik ere; baña bizidunak dira ta oyetan biziarekin gaya ere ba-dagoela esan beaŕ da. Eta beste gauzetan, naiz sendaŕ, naiz ubil, naiz laspela izan, eztagoz, ez gogorik, ez senik, ez bizirik; oŕengatik oyetan gaya edo da bakaŕik dagoena.

Gizonak, abereak eta landareak, iltzean, gogo, sen eta bizia gabe geratzen dira, ots, gai utsa, beste gauza guztiak bezela; orduan guziak berdin, guziak gaya, eztago besterik, eta gaya bezela bakaŕik geratzen dira. Orduan, gaya izanik, gelditasuna da beren berezitasun aundiena; alaz ere gai batzuk —argia, beroa, otza, aidea, aizea— berez igidunak dira, beraz ezin esan diteke gaya dan guztia geldirik dagoela, naiz eta aipatutako gai oyetan igitzea beren izakeragatik sortzen dala bakaŕik izan.

Dana dala, sorkaridian dagoen guztia gaya dala oartzen dugu, gizona, aberea ta landarea izan ezik, baña auetan be ba-dago gaya, beste zerbaitekin alkartuta badago ere.

Gaya era askotan agertzen zaigu, amaika eraetan alaja-

ña. Lenengoz onela esaten da: gai bizigaria ta gai bizi eziña; lenengoa gizonarengan, aberearengan eta landarean; bigarena beste gauza guztietan dagoena. Gizonarengan dagoena gogoarekin bizi da, ta, egitan, biziari gogoa da bakarik eusten diona; gogoak soña uzten duenean, eriotzean, auxe da bizirik gabe geratzen dana, ots, gai utsa biurturik geratuz. Ontaz gizonari dagokiona argi dagoela dirudi.

Baña zer gertatzen da aberearengan? Onek eztu gogorik, gizonak bezela; zerk eusten dio aberearen soñari?, bere senak apika?; ez dugu uste ori eskierki esan ditekenik. Beste aldetik, soin-atalak alkaren antzekoak dira gizonaren eta aberearengan, biziari buruz berdin jokatzen dutenak. Orduan, gizonarengan ere soin-bizitza berez bizi dala uste genezake, ez gogoak eutsita, ta eriotzean bearbada soña ez da iltzen gogoak utzi duelako, gogoa da soña iltzeagatik alde egiten duena. Orela ote da? Bayetzean soin-bizia gizonarengan eta aberearengan berdin edo dala esan bear da.

Eta landarean zer?; onen soña ta soin-atalak ez dira zentzundunengan ikusten diranak bezela, baña landarea jayotzen da ta bizi da ta iltzen da, ayen antzera; bere bizia berez be bizi edo da; ta bizi ori ta zentzundunengan dagoena bi bizi--era dirala ontzat edo artu bear dugu.

Esandako iru izaki bizidunengan bizia da bakoitzari ta iruroi dagokiena; ta iltzen diranean edo ikus ditzakegu gaya bakarik bezela; ta bizi artean gai ori gai biziduna deitu edo dezakegu.

Beste izakietan eztago bizirik, gauza bizigabeak dira soilki, gai utsa. Berez ez dira bizi ez eta ezer egiten ere, ba-dirudi alperik edo jarita dagozela. Baña Ludi'an eta sorkaridi osoan ere ezer ez izateko edo ezer ez egiteko ezer eztagoela uste dezakegu, ziñez; zein ote da orduan bakoitzak jaraitzen duena?, zeintzuk guztien elburuak? Alperik ez izatekotan elburuak izan bear. Noski, bizigabeak diran oyek ba-dute berezitasunen bat ontarako edo artarako onuragariak egiten dituena, gizonak bere bearetarako ustiatzen dituena; ortxe ditugu burnia ta beste metalak, mota guziko ariak, mendi ta aitzak, ura ta sua, lura ta itxasoa, ta beste ainbeste; bakoitzak bere berezitasuna duelarik. Beraz, naiz eta bizigabe izanik, eztagoz alperik Ludi'an kokaturik. Eta guziak be gai-izena daramate, benetan gaya diralako.



Ludi ontan gizakiak, abereak eta landareak izan ezik, beste gauza guztiak bizigabekoak dira; oyek ez dira jayotzen, ez eta azten, edo koskontzen, ez eta iltzen ere, eta iru era auetan agertzen dira nun-nai: sendar, ubil eta laspel egokeraetan. Guztien artean osotzen edo dute gu bizi geran Ludi au, izarbela dan au, ta zentzun orokarean guziak dira gaya, izadiaren gaya; ta gaur jakiten danez gure eguzkiaren beste izarbel guztiak ere gai orezaz edo egiñak bide dira; ta ba-liteke sorkaridi guzian dagozen beste izar, izarbel eta gorputz guztiak be berdin egiñak dagozela uste dezakegu, guziek jatori berbera edo dutelako. Au eskier jakitea eziña da gaurko gizonarentzat, noski, sorkaridi osoan ari diran gorputzak alkaretik oso urutian jarita dagozelako ta guztiz eziña dalakoan egon gaitezke gorputz guzti oyen beri jakitea.

Dana dala, esandako iru era oyetan argi agertzen zaizkigu bizi geran Ludi ontan. Eta bizirik ezpadute, ba-du bakoitzak bere izakera; zerbaiterakoak dira guztiak eta guzien nolakotasunaz gizonak ba-daki zer egin eta bere bearetarako ongi ustiatzea; eztagoz alegia alperik eta, aitzetik, gizonarentzat oso egoki ta bearak dira; ezin ulertu diteke gizonaren bizia gai guztiak, ots, gaya ezagutu ta erabili gabe, ta gayaren izakera gure biziarentzat guztiz ezinbestekoa dugu, eziña da zearo ori ukatzea.

Baña bidezkoa bezela galdera au egitea otu dakiguke, Bizigabea dan gai ori edo bere zatiren bat bederik biziduna izatera eldu al diteke?, iñoiz eldu al da? Gai-aldekoak diranak, aldekundea onartzen dutenek, bayetz diñote, ororen aldakera-ustarirako baitezpadakoa baitzaye. Gure lenengo ata-

lean —BIZIA— esan genuenez, gai-aldeko oyek bein zibizti (bizi gabeko gaya) bat kizkin (biziduna), kizkin bat, biurtu zan eta ortan jartzen dute bizi guziaren jatoŕia; baña biurtze oŕi buruz ez dute ematen beste zertzaladarik, guztiz eziña baitzaye ori egitea ta beren ustarirako beaŕ-beaŕa zayelako bakaŕik ematen dute oŕen azalpenaz bakaŕik. Eta egiztapenik ez dagoelako, oŕezaz ere azkenez siñistu edo egin beaŕ.

Edozein eraz gaya oso zabala agertzen zaigu bizian barna, ta gañera amaika eratan banatua alde ta aldi guztietan. Era oyetan, bai, gaya edo gayak, bakoitzak eta guziak ere ba-dauzkate beren zeindasun edo egokitasunak, enurarik gabe zerbaiterako diranak. Ain zuzen gizonak ongi oartu ta ustiatu ditu zeindasun oyek, bere beaŕetarako, bere bizirako, oso egokiak agertzen zaizkiolarik, eta ustiatzean lortu du gizonak ezagutzen diran auŕerapen guztiak burutzea. Alakotz, bidezkoa da oso, gaya, gayak, gizonarentzat bereziki egiñak edo antolatuak izan dirala ustea, abereak eta landareak, bakoitza bere maiĺean, bezela. Eztago, beraz, alpeŕik gaya gure bizian eta biziaren inguruan, eta bere galgan, bere izakeran, gaŕantzi aundikotzat artu beaŕ da guztien aldetik; ez, ala ere, mail ortatik at, ezin, beste zerbait edo zerbaiterako artu.

Baña gizonak maiz egiten dituen okeŕak ortan ere sortu beaŕ. Eta gogoari dagozkion goiko bideak arbuyatu ditu zearo, ta beste batzuetan barna ibiĺi nayean gaya artu du guziaren oñaŕia bezela, Eroturik, eztu ontzat artu nai gogoa ez eta gogoak erakusten dizkigun lenengo ta orokaŕak diran lendabiziko asierak. Ez bide dute ikusten gizonaren baitan dagoen gogo-almena, ez eta ortik sortu zaigun gogo-bizia ere.

Guretzat guztiz ulerkaitza da asmo ori. Gizonaren oldozpenak, adimena, asmoak, oroimena, gogaketak, ez al dira zerbait? Nola goi-goikoak diran zeindasun eta egokitasun oyek ukatu ta ain beaŕa zaigun lenengo asieraen egia alboan utzi? Ez al da erokeri aundia gaya ororen asiera bezela onartu? Eziña dirudi guzti ori.



Alakotz, alegiñak egin beaŕ ditugu guziok gure begi ta adimenaren auŕean agertzen zaizkigun gauza guztiak beren kirian eta beren egiazko egokeraetan begiratu, aztertu ta onartzea; ezinbestekoa da ori benetan. Eta gaya, gaya bezela bakaŕik onartu beaŕ dugu; bere gaŕantziaz, jakiña, baña bera dan bezela, bere neuŕian gizonaren beaŕetarako egiña dalarik.

Bera dan legez onartu beaŕ dugu gaya, beste gauza guztiak bezela; oso beaŕa zaigun ororen kirian, berari dagokion maiĺan bakaŕik; oŕela gaya, gai guztia, abere ta landareak bezela, gizonaren beaŕetarako sortua izan da; onuratsua izango zaigu ori, oso, bizi guziaren zeaŕ beti ta eten gabe gogoratzea.

# XIX. GOGOA

Ona emen begiak ikus ezin dezaketena, bai ta belariek iñoiz entzungo ez dutena, noski gogoa, ain zuzen, gaya ezpaita, ta gaya da bakarik ikusten eta entzuten duena. Gogoa, jakiña, ez dagokio soñari naiz eta berarekin alkartuta egon eta aremanetan ari-izan. Orela eraz uler diteke gogoa guregan ez dagoela geron baitan baño; gaya, ordea, guregan ikus dezakegu argi; ora bada, nola bereizi ditzekegun izakera bi auek: gaya guregan eta gogoa gure baitan.

Gaya zer dan esatea eraza bide da, ain zuzen gure zentzuen bidez oar dezakegulako. Gogoa zer dan esatea ez da ain ereza, ta ez da naikoa gaya ez dana dala esatea; bayetzean esatea dugu bearago, gogoa zer dan adierazteko.

Gogoa, lenengoz, gure izakiaren goyeneko zatia da; gure biziari izateko indara ematen diona, biziari berberari eusten diona. Gogoa bere egipenen bidez agertzen zaigu, oarkizun eraza bezela; bere egipenak auetxek diralarik: Adimena, oldozmena, ulermena, gogamena, asmamena, oarmena, zentzumena, irudimena, ezagumena, oroimena, naimena. Almen guzti oyen bidez ondo oartzen dugu gogoa ba-dala ta gure baitan kokaturik edo dagoela, bai ta or bertan gure soñarekin alkartuta dagoela, gogoa bereziki soñari eustekoa dala, bien artean gure bizia osotzeko.

Gogoa gure biziaren euslea izanik, bera da gure bizi ori eutsi ta zuzendu bear duena; orengatik gure bizia baño geyagokoa da, bere galga gu geran osoarena baño lenagokoa edo ta indar aundiagokoa ere. Bizi al da nunbait gizonaren gogoa au jayo baño lenago?; ora erantzuteko zala dan galdera sakona. Bizi bada, nun bizi da?, ta nola dator gizona jayotzen



danean onen gayarekin bat egiteko edo alkartzeko? Baña egia al da gizona jayotzen danean datorela?, ala jayo baño len, gorputza amaren sabelean gatzatzen ari danean edo eltzen dala?, umontzian bizi beria asten danean apika?

Eta iñundik ezpadator, edo gizona jayo baño lenagokoa ezpada, nola sortzen da gure baitan?, edo nork sorerazten du gizon bakoitzarentzat? Siñismenak esaten digunez Yainkoa da gogo guztien sortzalea, ta gizon bakoitzarentzat edo sorerazten du bere jayotzean ala umontzian bere bizia asten danean. ortaz eziña edo da gizonarentzat argi zeatza ikustea.

Gogoa, soña, bizia; ora gure izakian dagozen iru zerki edo egiazkiago iru norki dirala esan dezakegu. Bere bidetik, ezaguna dugun bidetik, sortzen da bizi bakoitza izaki bakoitzarentzat be; ortaz ba-dago argitasuna naikoa; baña gogoaren bidea guztiz ezezaguna da guretzat; nolakoa dan, nola sortzen dan, edo nola kokatzen dan; ora eskier jakiteko almenik edo iñorengan ez izatea.

Baña gogoa gure baitan ba-dagoela, nola ukatu?, ain argi agertzen zaigularik? Jayotzean aragia da sortzen dana, ta aragia sortzeko jarita dagoen bidea ezin gogoarentzat ere bidea izan. Abereen aragia be berdin sortzen da ta abereengan eztago gogorik; gogoa eztago gizonarengan ere, baña gogoa ba-dago ta bidezkotzat artu bear beste nunbait dagoela, gizonaren baitan noski. Ta zer esan nai dugu gizonaren baitan diñogunean?; gaya edo aragia ez dan beste zerbaiteaz ari gera eskierki; zerez baña? Gizona auxe dala esan dezakegu: Nor eta zer; zer zer dan argi dago, gure gaya, gure aragia; nor ezta gaya, ez da aragia, beste zerbait izan bear; zer ikusten da, bai ta entzuten, usaintzen, ikutzen ere, gaya dalako; nor ez da ikusten, ez entzuten, ez usaintzen, ez ikutzen, gaya ez dalako ain zuzen. Zer eta nor gure bizian dagoz, bertan alkarturik, baña zer ezta nor, nor ezta zer, bi zera dira guztiz ezberdiñak. Zer zer dan ikustea eraza da; nor nor dan ezta ikusten, eta oso zala bide da nor nolakoa dan esatea; no-

labait gure baitan oartzen dala esan genezake. Alakotz, zer gure soñean, guregan bide dago; nor, ostera, gure baitan.

Orduan nor ori gogoa bera dala esan beaŕ al da, otean?; ez dugu uste ori egitzat artzekoa dala, ta nor gauza bat bezela begiratu beaŕ dugu ta gogoa beste bat. Asmoak oŕela jaŕita, eziña dirudi nor ori argi zedaŕitzea, ta, apika, asmo bat bakaŕik edo da, gure baitan dagoen asmoa. Bearbada *nor* gogoak soŕerazten duen norbait edo da ta nortasuna da bere bereiztasuna. *Zer*, ostera, soñari dagokiolarik, onek nolabait ere soŕerazi duela esan genezake.

Eta *bizia* nun eta nola dagoen begiratzekoa da guretzat beaŕa. Noski, bizidunak jayo ta orduantxe ba-du bizia, ta oŕela ikusi ezkero bizi ori soñarena bakaŕik dala bayeztu genezake. Baña jayotzean ere gogoa soñarekin alkartzen dala oartzen dugu, ta gogo-biziaz be ari gera bereala mintzatzen. Alakotz, bi bizi ezberdiñak al dagoz?, gogo-bizia ta soin-bizia?; lenengoa bizidunaren baitan eta bigaŕena bizidunarengan? Ala biak, egitan, bat ote dira?, baitan eta ganengan batera egoten?

Baña iltzean soin-bizia amaitzen da enurarik gabe, ta gogoa, iltzen ez dalako, bere biziarekin jaŕaitzen bide da. Beraz, arazoa oŕela aurkezturik, bidezkoa dirudi, benetan, bi bizi dagozela ustea, ta bizi-izaten dan bitartean bizi biak alkaŕekin guztiz batuta dagozela dirudi, bat bakaŕik izango bailiran.

Ta gogoa, iltzen ezpaita, betikotasunean bide dago sortzen danetik. Oŕengatik edo, bizidunaren nortasuna gogoan egon beaŕ bereziki. Ta soña, il-ondoren, noizpait piztuko da, ta bidezkoa dirudi bera ere orduan betikotasunean sartuko dala ustea, gogoarekin beŕiz eta betiko alkarturik bat egiten.

Esan dan bezela edo ari dira emen aipatu ditugun zortzi azpegi oyek, beren izakeraengatik onela edo aurkeztu ditezkenak:



| | |
|---|---|
| GOGO | SOIN |
| NOR | ZER |
| BAITAN | GAN |
| BETIKOTASUN | BIZI |

onela bi berezitasunez alkarturik, gogo ta soñari dagozkielarik.

Zortzi azpegi oyen artean gogoa izan beaŕ, enurarik gabe, nagusiena, jayo ta bereala betikotasunean izateko dalarik. Oŕengatik, noski, mail goyenean dugu beti, beste azpegietatik oso gañean ikusteko ta bizidunaren nortasunerako gaŕantzi aundiena duelarik.

Gizonaren izakeran zortzi azpegi oyek dagoz alkaŕekin batuta eta bere nortasun osoa betetzean, gaŕantziari buruz bakoitza bere maiĺean agertzen dala, baña alkartasun betean beti guztiak.

Len aipatu ditugun gure almenak (adimena, oldozmena ta abaŕ) gogoaren ekintza ari-izateko bideak bezela begiratu beaŕ ditugu, ta alderantziz, beren bitartez gogoa ba-dala ta ba-dugula adierazten dutela oartu, argi-argi geron ustez.

Alakotz, esan dezakegu gogoa dala gure nortasun osoaren zati negusiena, ta gogo-bizian dagokigula gure bizi bereziena ta beñena ikusi ta onartu egiazko gizona bezela ari-izateko; ori gure betekizun onena ta gure duintasuna izateko beti. Gogo-gizona, beraz, gure eredu yaukalena.

Ortan ikus dezakegu, arean, gure apeta aundienaz irixteko dugun gure azaga beaŕena, nagusiena, edeŕena; ezin beste elburu egokiagorik iñun eta iñorentzat; eta asmo ortaz begira dezakegu gure amaikera nagusiena ta onena. Ta gure zorion aundiena be gogo-bizian gozatu al-izango dugu, ezmezik gabe.

## XX. IZATEA

Zer ulertu beaŕ dugu IZATEA itzaren bitartez? Ene ustez, izaeraren egipen osoa, ororena dana: Izan, izaera, izatea; izaerari buruz, XVI'gaŕen atalean, zerbait esan genuen. Egipen diñogu, izatea egipena baita. Izana dan guztia izatean dago, baña ez dira gauza bera izan eta izatea, noski. Izan'ek zeingabeko asmoa edo du; izatea'k, beŕiz, zeatzarena, naiz eta zeatz ori oro izan; izaeraren zentzuna zeatza ere izanik. Iru asmo oyek ba-dute alkaŕekiko zer ikusi; ta izan'arenetik bide datoz beste biak. Baña orain izatea begiratuko dugu bereziki, ta beste asmo biak be zerbait ikusita geratuko dira, beti izatea'ri buruz erabiltzean.

Asmo zeatza duen izatea, izaera dan guziari dagokio ertsiki ta ezinbestez, eta bere baitan izana dan guzia be bilduta dago. Izana ta izaera ere ez dira gauza bera, bigaŕena lenengotik datoŕ zuzen zeatza izateko, ta izana beti izango da zeingabe. Ta egokia dirudi oso zeatza zeingabetik etortzea, onen uŕengoa izateko edo.

Zer inguratzen du izateak? Asmoa zeatza duenezkero, izatea ba-da edo ba-dago nunbait; beraz, ikustekoa dugu ta entzutekoa be; ez da, eiki, gure baitan bakaŕik oartu dezakeguna, guregan ere ikusi, entzun eta ikutu egitea, guzti ori egin al-izatea, bidezkoa da oso-osorik. Eta gure zentzunaz orixe lortu al dezakegunezkero, ez da zal̄a esandako galderari erantzunen bat edo geyago aurkitzea. Eta arazoa ain nabaria agertzen zaigularik, ona emen erantzun egokia ta beaŕa: Izateak guzia, oro, inguratzen du, naiz notiñak naiz abereak eta landareak eta gauzak ere; dagoen guziari dagokio izatea; ez al dugu mintzatzen Yainkoa'ren izateaz ere?



Alan eta guzti, egitan, izatean dagoena da ertsiki ikusi edo entzun edo ikutu al dezakeguna, nolabait izatea bera be; orduan izatea gauza bat edo izaki bat ez izanaŕen, oŕezaz zerbait izan beaŕ da, ikusteko edo entzuteko, ikusi ta entzun al-izateko. Nola zedaŕituko dugu egokiro izatearen izana? Ez ote da, apika, gogai bat baño besterik, adigai bat edo?

Asieran izatea egipena dala esan dugu; baña egipena bada, izan al diteke batera gogaya ere?; agian bai, baña gogaya lendabizi izana dala bidezkoa dirudi; orduan gero eltzekoa edo da egipena, naiz eta azkenez biak bat eginda agertu.

Beste azpegi bateaz ari-izatean, izatea, izaera bezela, zeingabeko ta oro batean arturik, gogai bat bezela artzea egokia edo da; ta izaki bati buruz zedaŕiturik egipena dirudi gogaya baño obeki; orduan izatea izandakoa biurtuta ikus bide diteke, izaera izakeraren antza bezela; oŕela, izatea zeingabekoa izango litzake ta izandakoa zeaŕezkoa.

Ikusgaŕi ta oldozgaŕi dauzkagu bi asmo auek, izatea ta izandakoa ordez izaera ta izakera artu ezkero; baña azken itz bi auetan —ERA ta —KERA atzizkiak bide dira, zeingabeko ta zeaŕezko asmoak adierazten dituztenak; biak aditzai lotuta agertzen dira, ta bigaŕena lenengotik eratoŕia dirudi, ta zentzun oŕezaz amaika itz-bikote aipatu ditezke: biziera ta bizikera, egoera ta egokera, igoera ta igokera, ta abaŕ eta abaŕ; beti bigaŕenak lenengoetatik edo sortuak.

Izatea izaki guztietan dago, edo obeto izango litzake izaki ta gauza guztiak izatean dagozela esatea, bakoitza bere izakeraz. Noiztik eta noiz arte? galdetu dezakegu; noski, gizaki, abere ta landareak, zalantzik gabe, jayotzen diranetik; guzti oyek jayo ta orduantxetik ba-dagoz guziak izatean, bakoitza bera dan lez. Oyen antzera, egiten diran gauzak be, egiñak geratzen diran unealdian asten dira izatean egoten, emen be bakoitza bere izakeraz. Baña egitan gauzak ez diranak eta izatean dagozanak, e.b.: luŕa, ura, aidea, izaŕak, zabaldi

osoa, noiz asi dira izatean egoten?; sortu ziranetik edo irazanak izan ziranetik, noski; siñisten dugunok bayezten dugunez, Yainkoa'k irazan zituenetik, jakiña. Eta Yainkoa betikoa dalarik, betikotasunaren unealdi berean ori izan zala uste beaŕ dugu ezinbestean; betikotasunean aldirik ez, eta ez ote zan, ain zuzen, sortu aldia bera unealdi artan?; oŕela dirudi irazana izan dan guztitarako; eta irazana eztana, Yainkoa bera, noizdanik?, Bera bezela betidanik be esan beaŕ dugu; alakotz, Berarentzat, eta Berarentzat bakaŕik, izatea betikoa dala ontzat artu beaŕ dugu, enurarik gabe.

Eta noiz arte izatea?; zal̃agoa dirudi asmo ori ondo zedaŕitzea; bearbada izaki bakoitzerako begiratzea beaŕa edo zaigu. Ikus dezagun: Gizona jayo zanetik eta bizi dan artean, biziduna bezela dago bere izatean; ta iltzen danean?, orduan ere izatean jaŕaitzen dala esan dezakegu, arean, zendua biurtuta, ta noizpait piztuko dan ezkero, zendua edo onen ondorekoa nunbait egon beaŕ, bere izakeran eskierki.

Beste bizidunak diran abere ta landarea, berpiztuko ez diran ezkero, il ondoren zendu ta beste ondakiñak biurturik, noiz arte egongo dira egokera ortan?, zeaturik, zearo ezabaturik geratuko diran arte erantzun beaŕ da, nai-ta nai ez.

Eta bizirik ez duten gauzak, noiz arte izatean, beren izakeraetan? Oyei buruz be ezabaturik izan arte al da uste beaŕ duguna?, eta noiz izango da ororen ezabatze orokaŕ ori? Eta ezabatze orokaŕean izaŕak be beren izakeraetatik at eragotzita izango al dira?

Ezabatze orokaŕ ortan ez ote da gertatuko aldiaren amaya? Au be ustekoa dirudi, ta orduan betikotasuna edo geratuko da bakaŕik, luŕekoetatik gizonak soil̃ik jaŕaitzeko edo agian obeto esateko benbenetan izateko. Eta betikotasunean izatea ere ikusteko jaŕaitzean.

Izatea ez bide da, alakotz, itz bat edo asmo bat bakaŕik, ez da egipen bat be; izatekotan egote bat dala esango genuke, dagoen guziaren egote mugagabekoa bezela begira dezakegu-



na, ta naiz bakoitzarentzat naiz ororentzat gaŕantzi aundienekoa dalarik, dagoena beti ba-dago ta. Gizon'ak dagoenaren egote ori oñaŕiz artu baitezake, luŕaren eta zabaldiaren ezagupena ondoenik oartzeko; aundia da gizonaren baitan jakiteko egaŕia, ta esandako egote ori egaŕia asetzeko bide ona izango da beti berarentzat.

Izatean barna dago edo bizi dan guztia, dagoen oro izatean dagoelako, bai, dagoen ezkero izatean baitago; ezin izatetik at ezer izan, ulerkaitza benetan oŕ zerbait dagoela ustea, ezerezean ezer ez. Izatean, alakotz, bayezkoa da guztia ta ezer ez ezetzean.

Noizdanik dago izatea?, eta noiz arte izango da? Noski betidanik eta betirako. Yainkoa'ren izatea ontzat artzeko asmoa da; jakiña Bera dan ezkero ba-dagoela esan eta ontzat artu beaŕ dugu, ta Bera betikoa dalarik orobat bere izatea be, ta betikoa ere gure gerokoan izango dan ezkero, oŕa bere izatea be betikoa izango dala. Bai ta betikotasunean bizidunok noizpait sartuko gerala-ta, izatea gugan ere izango da eskierki. Beraz, beaŕa zaigu auxe be esatea: Izatea ere betidanik eta betirako dugula. Ta izatearen asmoa, egitan, guretzat ezkutukia ta ezkutuki aundia da, bera ondo ulertzea gure adimenerako eziña bide dalarik.

Saŕi ta eŕaz izateari buruz mintzatzen da, ezmezik gabe, gure begien auŕean argi agertzen zaigulako; baña bere zeingabeko asmoan, egitan, bai, zal̃a dala bera ondo ulertzea. Emengo edo ango izakeraz, zeatzeko asmoaz, obeto ta eŕazago ulertzen dugu, zeraren izakera noiz asi zan eta noiz amaitu dan ala amaituko dan ikustea eŕeza izan dakiguke-ta. Ongi bereizteko, beraz, izatea, zeingabeko asmoan eta izandako zeatzezko asmoan, naiz bigaŕena lenengotik sortua bezela ikusi.

Izatea ta bizia eŕaza da gauza bera bezela artzea, baña ez dira bat. Bizia izatea baño lenagoa da, eiki, baña bizia sortu ta bereala oŕ agertzen zaigu izatea ere, aren ondoren eta ura ba-dala adierazten; oŕela ongi esan dezakegu: bi-

ziaren izatea, iñoiz ere ez alderantziz, eta izatearen bizia esatea zentzungabekoa bezela begiratu beaŕ da zearo. Bizia ezerezetik sortu zan Goi'ko egiIearen naimen eta almenaren bidez. Ezerezean eztago ezer, beraz izatea ere ez; eta izatea biziarekin sortzen da, ain zuzen, biziaren bedegaŕa bezela.

Alakotz, izatea biziaren ondorioa lez begira dezakegu, ta alaxe da; ori lenengoz, baña gero bizian sortu ta egin dan guziari buruz berdin esan dezakegu, guzietan izatea ba-dagoela edo bai ta ere gauza guztiak izatean dagozela, ta au baño obeto, apika, izatea gauza guztien bedegaŕa dala, biziarena bezela.

Len, XVI'gaŕen atalean izaerari buruz yardutean ibiIi gera, ta orain izateaz ari geralako, biak, izaera ta izatea, asmo baten litsak bezela ikus ditezke; jakiña, biziaren asmoa ere oyen ondokoa bezela ikus dezakegu, ala ayek onen ondokoa obeki edo; apika irurak soŕeraztearen beraren alkaŕen antzekoak diran azpegiak ditugularik.



## XXI. GIZA - BARNE

Zer ote da giza-barnea edo gogapea? Gure adimenaren zati bat, eiki, oso gaŕantziduna dan zatia; gizonak beraren bitartez bere buruari ona ta gaitza, egoki ala ez egoki, zerbait onartzeko ala astantzekoa ote dan adierazten dio, ta oŕela era ontaz ala artaz jokatzeko, bidea erakusten dio argi. Ezagupena ta argitasuna agertzen dira oŕ giza-barnearen iritzia eratu al-izateko, egia dana ere ederto oartzean. Beraz, gizonaren baitan gogapea jokatzean, bere bizian norabide ona erakusten dio ederki.

Giza-barne onaz ezagupena eukitzea lortzen du gizonak eŕaz; ezagupena eukitzea ez ote da gure adimenaren almen aŕigaŕia?, eta almen ori gizonaren baitan bakaŕik dagoelarik, argi agertzen da izaki guztien gañetik, duintasunaz beterik, gizona dagoela; ta oŕela izanik yardespena be ikusi beaŕ da, beaŕezko ondorioa bezela.

Ezinbestekoa da giza-barne argi izatea, iritziak eta gogapenak gizonaren baitan on eta egokiak izan al ditezken, batzuk eta besteak, berez, eŕaz aldatu ditezkelako. Iritziak eta gogapenak gure gogoan kordoka ibiIi ditezke, ta oŕelaxe ari dira maiz; oŕengatik zerbaiten beaŕean dagoz tinkotzeko, ta ez edo dago bide oberik ortarako gogape zoŕotza baño; ta beaŕ-beaŕa bezela agertzen da orixe egin al-izatea. Oŕ ikusteko, alakotz, giza-barnearen gaŕantzi aundia.

Jakiña, gauza bati buruzko gogapea ere aldatu diteke, ta guztien gogapeak ezin neuŕi berberakoak izan. Oŕengatik naiz eta gogapeak, iritzi ta gogapenak tinkotu, oyen izatea okeŕ azaldu diteke. Alakotz, ezta uste beaŕ gogapearen erakuspena guztiz egitzat artu beaŕ dala. Orduan iru mail ditu-

gu emen begiratzeko: lenengoa iritziak ala gogapenak eratzea, bigarena gogapeak oyek tinkotzea ta irugarena tinkotze ori egi osoa izatea.

Dana-dala, gaur emen, bigaren mail ori dugu ongienik aztertu bear duguna, ots, iritzi ta gogapenak, gogapearen bidez nola tinkotu ditezken. Gizonaren irudimena sutsu ta arin ibil diteke gure baitan asmo ta iritziak berarekin eta edonora eraz eta kaskarin eramateko, ta egipen oren aurka gogapea agertzen da guzia baretzeko, bide egokia bezela. Orengatik, bada, ederkienik datorkio gizonari giza-barnea, oro kirian sartzeko bide onena bezela.

Askotan giza-barnea norberaren epaile onena legez izaten da gure jokerak edo gure egipenak nolakoak diran oarerazten, gizonari oar-erazten diolarik. Gizonak, jokatzeko, sari bere gogapearen aurka jartzen da ta batzuetan esanekoa bezela agertzen zayo gogapeari; orixe dala-ta, maiz entzuten da gogape oneko gizona ta gogape txareko gizonaz mintzatzea, ta lenengoa agertzen da beti onena bezela onartzeko. Bide on eta ereza ori gizonari buruz iritzi egokia izateko.

Garbi ikus dezakegu geron baitan, gogape ta ona ala gogape ta gaitza ari ote dan yarduten eta bi mota oyetakoa izan ditekela be. Ori dala-ta ezi ere egin dezake norberak bere gogapea. Ta ondo ikus dezakegu, ondorioaz, egitan, gogapea norberaren baitan guztiz tinkoturik dagoen zerbait ez dala, ta len esan dugunez giza-barnea ona ala txara izan ditekela, ta naimenak eman dizayoke margo bat ala bestea.

Gizonak, askotan, ondo jokatzen duela adierazteko, onela ari da ozenki: Nire gogapeak onela edo ala agintzen nau; nire gogapeak oarerazten didan bezela jokatzen dut; gogapez ari naiz edo ari-izan naiz, eta abar, beti bere zintzotasuna adierazteko nayean, eta gogapea epaile onena bezela agererazteko gogoaz.

Bi azpegi bereziak ikusteko giza-barnean, ezagupenezkoa bat eta eginbideari buruzkoa bestea. Lenengoari dagokio orain



arte esan dugun guzia: ezagupena lortu, iritzia eratu, egipenen ondorea nola izan diteken usmatu, ta iru bide oyen esker, nola jokatu bear duen ikusi. Garantzidun aundikoa, beraz, gizonak bere baitan izan dezaken gogapea, esan liteke bere bizirako ortxe duela bear-beara zayon argi-ituria.

Bigaren azpegia, enurarik gabe, ezinbestekoa zayo gizonari, arazo guztietarako bidezkoa dan zuzentza, jokabide onenaz ari-izateko beti, arau on eta berezia legez erabiltzeko; beraz, on eta gaitza bereizteko bide egokia da beti gizonarentzat. Esan genezake epaile on bat bezela —gizonak bere baitan eta berarentzat duen epaikaria— jokatzen duela; orela oren bidez gizonak ba-daki nola ongi yardun bear duen.

Eta oso zabalduta dago jokabide ori ta egunero entzun oi dira onelako esakuntzak: «gogapez ari bear da», «gogapez orixe da ain zuzen egin bear dudana», «gogapez ezin beste jokerarik erabili», ta abar.

Ora gizon guztiek eta bakoitzak ere ongi yarduteko bide on eta egokia dutelarik. Eta orela dala-ta argi agertzen zaigu gogapearen garantzia, gizonen arteko eramankizunetan ongienik ari-izateko bide edera; osotarako noski baña gizartean ain beara dan gentza jartezko ta eusteko be.

Orela dalarik eta guztien onurako, ba-dirudi gizonen artean gogapez ari-izatea bide egokiena lez onartu bear dala, guztien aldetik alkarekiko bizi-jokera ondo zuzentzeko onartua izan dedin. Elburu ortarako ezin beste bide oberik izan, eta orengatik ez ontzat artu bakarik, guzietarako zabaltze ta indartzea da guzien aldetik burutu bear dana.

Txikitatik irakasi bear-izango litzayeke aurai beti gogapez ari-izatea; orixe azitasun onerako bide oso egokia. Noski, egiazko azitasuna eten gabe ematen eta eratzen azle ta irakasleentzat kexutasun aundia ta jokera bearena izatea ezinbestekoena bezela onartzeko. Ez da iñoiz aiztu bear gizonen izaera beti beruntz abiatzeko gerturik dagoela ta orengatik ayer ori da egokienik zuzendu bear dana. Ori azitasun ego-

kiaz lortu diteke azitasunaren azpegi guztietan barna, ta azpegi oyetako ona izan diteken bat, onena ezpada, gogapearena izango da beti ta ororentzat beaŕ-beaŕa benetan.

Azitasun ona izateko ta burutzeko, alegin aundienak tai gabe egin beaŕ, giza-bizia ondoenik eratua izan dedin baitezpadako bidea bezela onartzean, eta azitasunaren bide txit egokia gogapea agertzen da edeŕ-edeŕa. Alakotz, ori gogapearen irugaŕen azpegia legez onartu diteke enurarik gabe.

Ororen buruan, egitan, iru azpegi ditugu giza-barnea osoan ikusteko: Ezagupena, zuzentza ta azitasuna; oso beaŕ eta egokiak irurak. Eta ortik ateratzeko, gizonarentzat eta gizartearentzat arazo onek duen gaŕantzia. Iru azpegi oyek, gañera, alkaŕekiko zer ikusi aundia dute, asmo yaukala osotzen dutelarik, bai ta ororentzako elburu on eta egokia be izatean.

Guziengatik, beraz, ortxe dugu gogapean eratu ta zuzentzeko, guziok onartu beaŕ dugun azaga berezia, ororentzako egokera oso ona gertutzeko ta gozatzeko. Len esan dugunez, ortarako zudua azle ta irakasleengan bizi beaŕ da; baña ez oyengan bakaŕik, ororengan bizi-izatea ezinbestekoa bezela ikusteko, zaintzeko ta indartzekoa da erabat, oŕela ondorio bikañena lorturik gera dedin.

Gogapeduna izatea dugu gizon guzientzat elburu yaukala, azitasunean bereziki lortzekoa dana; ororentzat biziera onena gertutzeko bide oso egokiena izanik, gentzaz eta alkaŕenganako begirunez eta maitasunez bizi al-izateko; asmo ta jokera auek, asteko ta jaŕaitzeko ere, egokienak diruditela.

Eta giza-harnea, guztiontzako, geron bizian barna zaindu, indartu ta zabaltzea, baitezpadakoa lez onartu beaŕ da nun-nai ta ororen aldetik beti, naiz eta azitasunezko lenengo uŕatsetan asmo oyek gureganaturik izan. Gizonaren bizi guzian barna tinko eramateko jo-muga egokiena bezela onarturik.



## XXII. EGIA - ESKIERTASUNA - ZALANTZA

Egia ..., zer da egia? Onela edo esango genuke geuk egia zer dan: Danaren ezagupen zeatza. Guztiok nai dugu edozein arazoan eta guztietan egia ikustea, egia jakitea, egia ezagutzea, egi oso-osoa, egia eskiertasun aundienaz, zalantzarik gabeko eskiertasunez.

Jakitunak egiaren biĺa ari dira, ikasten eta aztertzean, beti egia ikusi nayean, egia iŕikitzen, gaya edozein izan, egia jaŕaitzean, itzalik gabeko egia jakiteko, egi utsa guziaren gañetik atemateko. Egia eskiertasun osoaz eukitzea nai dute, ta bidezkoa da, noski, elburu ortara eltzeko nai bizia.

Egia, gizonak duten jakiteko egaŕia asetzeko beaŕ-beaŕa da, egaŕi ori gure izaeraren yoran aundia dugu, alegia, bai ta gure adimenaren egipen bat ere, ain zuzen adimenari berari zuzen dagokiona; beraz, geron baitan daramagun apeta berezia; oŕa adimenaren almen zabalean agertzen dan beste azpegi edeŕa, aipagaŕia, goragaŕia.

Nork eztu nai egiaren jabea izatea? Edonork eta nun-nai ta noiz-nai auxe esaten da ozenki: «Neuk egia jakin nai dutt», eta naiz jakitunak naiz ezer ez dakienak ere naimena bera ageŕerazten dute eten gabe, egia jakiteko gurari bizia. Ororena beraz gizon guziai berdin dagokiena, ziñez, eta guziena izatean gaŕantzi aundiena be egiaren asmoa bizian barna ari-izateko ta egokitasun oso zabalean.

Beaŕezkoa zaigu egiari eustea, ororena dan yoran edeŕ au geron baitan indartzea; ezin uleŕ diteke asmo au ontzat ez artzea, baña zoritxaŕez ba-dagoz orixe egiten dutenak, gezurtiak arean; alaz ere gezurtiak berarena bezela erakutsi nai duen egia aipatzen du indaŕez, eta oŕela bera ere egiaren

euslea lez agertzen zaigu, ezinbestean, eta egiaren yaukaltasunari zearo men egiten.

Egizale izatea gizonarentzat oorea, ta berarenganako lotsa agefeTaztea dagokio benetan. Nun-nai on eta zintzoa bezela onartzen da egizalea, ta berak esan dezakena egi-egitzat artzen da oso, guziak berarengan entzindurik geratzean. Beraz, egizalea esatea ontasun eta onbide aundia esatea bezelakoa da.

Guziok maite dugu egizalea izatea ta gure adimenean ez dugu iñoiz gezufik onartzen, ori ulergaitza egitan gure adimenarentzat, egia ezinbestekoa baita edonorentzat; eta geron baitan arazo guztietarako egia bilatzen dugu ziñez eta gurari aundienaz beti; berez sortzen zaigu guzioi egia guztiz maite-izatea.

Oso beafa da egia gizartean eta edozeiñi buruz ari-izatea; gizonak anayak geralarik bidezko ta noraezekoa da egia, gure arteko eginkizunetan baldintza ertsia bezela erabiltzeko, baitezpadakoa benetan zintzotasunez jokatzeko; ezin af diteke anaizufian gizon batek beste bat atzipetzea; zorigaiztoz au maiz ikusi beaf da gure artean eta gezurtiak ugari nun-nai; baña gizartean zintzotasunez jokatzeko, egiazti izan beaf gizona beti, lagun-urkoa beaf danez laguntzeko nayean eta ofela onbide edefenari egokiro eustean; orixe ororentzako bidea, orixe alkaf maitatzeko beaf-beafa dana.

Amaika gayetan barna ari da beti jakituna, bakoitzean dagoen egiaren bila, orixe jakitunen egafi bizia, ori beren lan guztien elburu bikaña; safitan egiaren bilaketa zala izaten da argi agertzen eztalako, ta orduan egia jakiteko naya aundiago biurtzen da, ta bera aurkitzeko eginkizunak geyago ere burutu beaf, ibilaldi luzeetan jasaten dan neke aundia bezelakoa artzean, eta gogoz onartzen du aztertzaleak izan diteken neke guzia bere lan oro betetzean.

Egia batzuetan erdizka bakafik agertzen zaigu, azpegi gutxiai buruz dagokienean edo nai-izango litzaken argitasunaz ikusten ez danean, noizpait be ilun xamaf erakusten dalako;



aztertzalea orduan urduri dabil bere ezintasunean. Baña besteetan oso-osorik ikusten da egia, eskiertasuna, oso aundia izan diteken eskiertasuna biurturik, eta aztertzalea pozik uztean. Eta orixe lortzea nai du aztertzaleak bereziki, eskiertasun aundiena ongi bereganatzea.

Eskiertasuna dala-ta, okef ere egin diteke, eskiertasuna iritsi dala uste ondoren azterketa befiak gero orixe izan eztala erakusten duenean; beraz, eziña bezela agertzen da eskiertasun osoraño eltzea, ta ortan ikusten da gizonaren adimenak, ain almen aundikoa izanik ere, beti bere mugak be dauzkala; alaz ere, maiz, gizonak eskiertasunean dabilela uste guzia izaten du ta ez du efaz onartzen okef egiten duela ustea, naiz eta gizonarentzat okefa egitea ain bidezkoa izan.

Maite ere maite du gizonak eskiertasuna eukitzea; au, ori edo bestea dala, beti eskiertsunez ikusi nai ditugu gauzak, berdin yakintzan eta eguneroko arazoetan ere, orobat biotzondo guzietan barna, berebat adiskidetasunean, maitasunean, alkafen artean ditugun gorabera guztietan be. Beafa zaigu guztioi eskiertasuna, safitan gugandik ufun dagoena, egafi bizi-bizia gugan eskiertasun ori gureganatzeko. Ortxe ditugu egia ta eskiertasuna, egiaren eskiertasuna ain zuzen.

Oso zala da askotan eskiertasunean egotea ta efaz zalantza da gure baitan sortzen dana; zalantza ugari ta aundiak oso maiz egiaren bila dabilarengan, eta ofengatik bere ifika aundiagoa biurtzen da, yoran zoliagoa ere aurkitu nai duen egia lortzeko alegiñetan, eta zalantzak argitzea eziña bezela agertzen danean etsita bezela geratu beaf. Ofela eskiertasuna ta zalantza alkafen aurka lez egiaren inguruan, egia ontzat artzeko ala ez, eragiten digutelarik.

Bidezkoa da zalantzak eukitzea, ugariak ere izatea; eta batzuetan mingafi oso, batez ere maitasun edo zaletasunai buruz diranean; eskiertasunean egon diteke, baña bat-batean ori apurtzen bada, gutxienez zalantzak datoz apurtze ortatik eta ori gertatzen zayonari minduta geratu beaf oso.

Eskiertasunik izan gabe, egiaren biľa ibiltzean agertzen diran zalantzak, noski, batzuetan ez dira mingaŕi ta egia biľatzeko, lagun onak izan ditezke; orduan on eta egokia izan beaŕ zalantzak eukitzea. Alakotz zalantzak margo batzuetakoak ditugu, on ala txaŕ, lagun ala oztopo, egoki ala kaltegaŕi, bakoitzean dagokigun arauz eta berez agertzen diran bezela.

Oŕa oŕ, egiaren biľa ibiltzean eta ezinbestean, alde ta aurka aurki ditezkela, margo guzietako goraberak, biľatze ori guztiz zudugaŕi egiten dutenak eta egi-egaŕia aundi-aundia biurtzen dutelarik.

Egi-egaŕia gizonaren yoran aundi ta edeŕa, azkatasuna ematen duena. «Egiak azke egingo zaitue» idazti deunean esaten danez; eta nor edo zein egi ori?; enurarik gabe «Ni naiz bidea, egia ta bizia» esan zuena. Egi utsa oŕ, ezmezik gabe, gure baitan enura guztiak zearo ezabatzen dituena.

Alaz ere, ta ori oŕela izanaŕen, beti gizona egiaren biľa kezkatsu ta urduri; ez bide zayo naikoa siñistu, ta ikusi ta ikutu nai bide du beti, ia egia nun dagoen, zertan edo norengan dagoen, eskiertasun osoa lortu nayean, iŕikitzean, ari ta ari beti, eten gabe yardutean. Eta egian bizia ere dagoelarik bizi-beaŕa egiaren bideetan barna izango du, eskieŕ, gizonak.

Egi-biľa ibiltzean bizi da bereziki gizona, ta biľatze ortan barna auŕeratzean gero ta bizi geyago bere baitan; egi aundiago ta bizi mardulago, egi-biľa bidea dalarik. Beraz, egi ta bizia alkarturik agertzen dira beti, egia bizirako ezinbestekoa dalarik, gezuŕean bizia eziña baita; bai, egiaz bizi da gizona, ta egidun izanik bizidun ere ikusten du bere burua. Egia guzientzat bizi-ituŕi, beaŕ-beaŕ dugula-ta. Maitagaŕia ere egia, eskiertasunean egoteko bidea baitzaigu. Egia artuta, egiaz bizi ta egian egon, orixe zoriona.



## XXIII. ZUZENTZA

Zuzentza onbide bat da, ta onbide ori eukitzea norberari dagokiona ontzat artzea da. Oŕela ematen da nun-nai zuzentzaren esan-naya.

Ez bide da beti zuzentzaz ari-izatea eŕeza, ta amaika oztopo alde guztietan oŕen aurka aurkitzen diranak. Beaŕen bat, norberaren buru-zalekeri, lerak, maitasun aundiegiak ere, emengoari edo angoari laguntza emateko naya, asaŕea, begikotasun ala gaitzestea, norbait begitan artzea, ta amaika oŕelakoak, zuzentza ez egiteko indaŕez eragiten dutelarik.

Zuzentzaz ari-izateko adimen zoliaz ari-izan beaŕ da lenengoz, arazoen gorabera guztiak ongi atemateko. Oŕengatik askotan zaľa izaten da zuzentza egitea; bai ta oldozmena ongi ta sakon jokatzea, arazoen lits guztiak zuzen begiratu al-izateko; era berean gaitasunez yardutea ezinbestekoa dalarik; zertzeladak ere bereiztea baitezpadakoa bezela agertzen dala; ezin ontzat artzea edonoren eskariak; eta beste amaika zioak zuzentzaren aurka saŕi aurkezten diralarik.

Guztiak ari omen dira zuzentzaren alde jokatzean; baña oŕela jokatzeko, asmo onenaz ibiltzen bada ere, oso maiz —beti ez esateko— batentzat zuzentza onena agertuaŕen, beste batentzat ezin oŕela onartu ta zuzengabekeria bezela ikusten du; nor bi oyen artean izpidean egon? Beraz, ez da eŕez ororentzat zuzentza utsa ikusi.

Oso zaľa dirudi guzientzako epaikari ona izan; batzuetan arazoen beŕi zeatza peitzen dalako; besteetan, beŕi zeatzak ezagutuaŕen, beŕi guztiak guzien aldetik berdin ikusten ez diralako. Ori dala-ta eziña bezela agertzen da gizonaren aldetik zuzentza zeatza ezagutzea; alaz ere gizonek beti ta eten gabe zuzentzaren atzetik diardute isi.

Betidanik agertu da gizonen artean zuzentza egiteko yoran aundia, ta ustekoa da gerokoan ere ořelaxe jařaituko dirala. Amaika urtekoa da gizadiaren bizia, ta orain arte egiazko zuzentza egitea eziña izan bazayo, ezin uste dezakegu ori iñoiz bete izango dala. Ařigařia da ori, guzien aldetik eta beti zuzentza egin nai ta gaur arte bederen ori lortzea eziña izatea. Baña ezintasun ori ain aundia agertuařen, gizonengan, egun arte bezela, beti ere gurari aundia zuzentasuna lortzeko gogoa gizonaren baitan jařaituko duela baitezpadakoa lez uste dezakegu zearo.

Aundia da zuzentza itzak duen erakarpena, ta ba-dirudi bertan dagoela gizon guztien apeta aundiena ta lenengoak izan ziranengandik asi-ta. Noski lenengo gizonen artean sortu ziran lendabiziko lipiztaen ondorioa legez, lipiztak bereala bidegabekeriak sortzen baitituzte. Ořengatik bidegabekeriak zuzentza baño auřekoak izan dirala uste diteke, ta zuzentza oyen uřengo, beren ondorioa bezela ta berak zuzentzeko bidea izanik. Geroztik zuzentza ta bidegabekeria alkařen ondoren ibili dira, alkařen aurka eiki, nun-nai ta noiz-nai, enda ta Eři guztien barna sortuta.

Bidegabekeriak bereziki indařez izan dira buruturik, eta ořela, bidegabekeri ta indařa, biak, batera ari-izan dira anai kutunenak izango bailiran; eta bidegabekeri aundienak be, indařa izan duenak, bere zuzentza bezela agertu-erazi du saři, egiazko zuzentza dala bayeztean, beti bere esan-nayak duen zentzun yaukalak eraginda. Jakiña iñork eztu iñoiz aitortu nai-izan berak zegiena bidegabekeria zala «bere zuzentza» baizik.

Zuzentzari betidanik gizon eta endeři guztien aldetik gařantzi aundia eman diote; orain ere berdin eta betirako beste ořenbeste gertatuko dala eskieř uste dezakegu. Naiz endeři naiz gizon, bakoitzak zuzentza betetzeko, alegiñetan ari-izan zaizkigu, bidegabekeri guztien aurka gogoř jokatzeko xedeaz. Eziña dala dirudi Eři'ak jauři ta onela edo ala zu-



zentza betetzeko erakunderen bat asieratik antolatu gabe egotea, beti, jakiña, agintza edo legetik at jokatzen ari-izan diranak atzitu ta zigortzeko asmoz; bide batez eta oři eskeř enderietan gentza gordetzeko gurariaz. Noski, noiz edo noiz zuzentza gordetzea aitzakia baño besterik ezta izan, itz ori ozenki erabiltzean, bidegabekeriak be betetzeko bide eroso bat bezela artzean.

Endeřia gero ta auřeratuagoa izan eta zuzentza antolatzeko xedea zořotzagoa ere. Gaurko ontan, jaurtzeko, lau almen aundiak aipatzen eta jartzen dirala edonun ikusten da; almen oyetako bat zuzentzarena dugu, ta ongi joka dezaken besteetatik guztiz azke izatea baldintza berezi ta zořotzaz erabiltzea nai da, ořela zuzentza alik eta ongienik, utsa, bizi diteken.

Almen ori betetzen dutenak Auzi-gizon eta epaileak dira, guztien artean zuzentza-erakunde orokařa Eři bakoitzean osotzeko; oyei dagokie, jakiña, zuzentza betetzea, ta beren erabakiak ontzat artzen dira nun-nai; baña erabaki oyek ez dira artzen beren iritziak soilik erabiltzean. Auzi-mayan auziratzea osotzeko, epaituak diranen alde auen aldezleak ere jokatzea ontzat artzen da, ain zuzen, zuzentza alik eta ondoenik beteta gera dedin. Eta ořela ařeta aundiaz jokatzean ere, batzuetan, saři edo, eziña da auzi-gizonen erabakiak bear-izango litzaken bezin ondo artzea.

Argi ikusten da, beraz, zuzentzari ematen zayon gařantzia, bai ta bera lortzeko egiten diran alegiñak, asmo onenaz beterik izanařen, maiz poto egiten dutela ere. Eta ortik atera dezakegu zein zala dan beti zuzen-zuzen jokatzea.

Ezintasun onek, ainbesteetan ikusitakoak, ondorio au dakarkigu garbi: Ben-benetako zuzentza egiteko, gizona lain ez izatea, ta berarentzat okeř-egitea guztiz eřaza dala oartzea. Mendez-mende gizonak, egiazko zuzentza egin nayean eta nai ori bete al-izan gabe utzi beař. Eta gizonaren baitan zein al-

mena da uřitasun ori duena?, adimena, oldozmena, ezagumena, oarmena, ... ?; azken bi oyek, apika, asieran bai, baña azkenez lenengo biak eta bereziki lenengoa izan diteke utz--egiten duena, bera baita beste guziak inguratzen dituena ta beren asiera edo izanik.

Alegiñetan oř beti gizona, ongi ta ertsi jokatzeko asmoz eta naimen onena jokuan ipiñiařen mendeetan barna ezer ez lortzeko; alakotz, eziña bide zayo gizonari ben-benetako zuzentza iñoiz burutzea. Gure baitan daukagun gogo-almenak ain aundiak izan eta ortarako gutxituta edo geratzen zaizkigula dirudi; ta ořela gertatzen dala aitortu beař dugu, naiz eta mende ta mendeetan barna xede onenaz ari-izan. Noski gizonaren almena mugatua dagoela gogoratu beař dugu, gertapen ori bidezkoa dela usteko.

Alarik ere gizona betidanik zuzentzaren bil̄a ari-izan da, gizaldi guztietan era berean, iñoiz egiazko poto egin duela ta gutxiago beti poto egingo duela onartu nai gabe. Ba-dirudi, ta auxe da oso aipagaři gizonarengan goi-goiko mail̄etan ibiltzeko yoran edeřa bere baitan duela; ta ořela yoran ořek egiazko duintasuna ematen edo dio. Guztia ez da, eiki, deitoragařia gizonarengan ez eta gizonaren baitan ere; yoran eta apeta oyek gizona goratzen dute egokienik, beste izaki guztien gañetik ondo ta ongi jasotzeko.

Zuzentza onbide bat dala asi gera esaten, eta onbide guztiak bezela gizonari dagokio izatea ta eřotik bertan eta berari atsikita egotea; damurik, gizon guztiak ez dute ontzat artzen onbiderik eukitzea, ta nayago dute gaitz-bideetan barna bizi-izatea, gogoari baño soñari begiratzean; eřazagoa da, noski, beruntz joatea, ta ořela dala-ta, ulertzekoa da ainbeste ta ainbeste gizonak, geyenak edo, jokera ori berentzat onartzea. Alaz ere oyek ere, guziek, guztiz ontzat artzen dute zuzentzaren alde jokatzea, ta bidegabekeriak be ez dituzte begi



onez ikusten, bakoitzak norberarenak izan ezik. Baña zuzentza onartzekoa dute beti.

Bere eziña apalik onartzean, gizona goyeneko galgan egon diteke onbideak betetzean, eta bere ezintasunean duintasunetik jetxi gabe. Ta ařokeririk gabe auřera jařai diteke gogo onez eta gurari bizienaz zuzentzaren bil̄a; naiz eta ori atematea eziña izango zayola jakin.

## XXIV. AZKATASUNA

Azkatasuna zein edeŕ den ! diño gure Eŕi-abestiak. Egiaz, benetan, iñor izan ezpaita Ludi ontan azkatasuna euki nai-izan eztuena; azkatasuna gizonarentzat, azkatasuna Eŕi'arentzat, azkatasuna guzientzat; jakiña, nork maite dezake jopua izatea? Eta ez gizonak eta Eŕi'ak bakaŕik, nolabait abereak ere azkatasuna maite dute ta ez dute eŕaz men egiten eziak izateko. Bai, azkatasuna zein edeŕ den!

Azkatasunean bizi nai dugu guztiok; orixe gizadi osoak betidanik izan duen aundienetako apeta. Jopu izatea gizonarentzat zoritxaŕ gogoŕa. Ta, ala ere, gizadia sortu zanetik, gizonak bere jopuak euki nai-izan ditu beti; beste gizonak zearo menperatu, egokera ortan indaŕ biziaz jaŕi arte. Eta eskubide guziak menperatzaiľearentzat beti, jopua gauza bat bezela erabiltzeko, jopua iauliketan jasan-erazteko, onen bizia be noiz-nai kentzeko ere. Nola baña oŕelakorik mendeetan barna gizonen aldetik onartu?; gezuŕa dirudi, egitan, gizonaren duintasuna aintzakotzat artu ezkero. Gizonak beste gizona jopu egin eta euki!, oŕa ankerkeri izugaŕia!

Gizadiaren edestia azkatasunaren alde jokatzea izan dugu, nun-nai ta noiz-nai; ta alaz ere, ezin esan dezakegu gaurko ontan be ororentzako azkatasuna egiazko egipena dala. Jopuak ugari, alajaña, Ludi'an barna, mota askotako jopuak arean gure egunetan ere, zoritxaŕez. Oŕa oŕ gizonarentzat duintasun-eza! «Gizonak gizonari otso» diño gure esakun zaŕ batek, eta «supitak egiak» be beste batek; eta egipenak biei darien eskiertasuna egiztatzen digu argi. Bai, doakabea gizona!

Gizonak, zoritxaŕez, asieratik izan du besteen gain jaŕi



ta agertzeko naya; ortarako, noski, besteak menperatu beaŕ-izan ditu eta oŕela egin du gogoŕ, eta ankerkeriz jokatzean geyenetan; ezta ortarako naikoa izan iñoiz beste gizon eta emakume otseinketan ari-izatea, ta zearo menperatzea izan da alde ta aldi guztietan jokera berezia. Aintzakotzat artzen zan aspaldi-aspalditik batzuentzat eta askorentzat beren mendean jopuak eukitzea; eta nola gañera, ez notiñak bezela, gauzak legez erabiľi arte; ondorioaz, gauzak bezela ere erabiltzea, ankerkeri aundi ori egiten zutenentzat eskubide bat lez onartua izan zan.

Jakiña, bidegabekeri oŕen aurka jopu guziak jaŕi beaŕ, oso bidezkoa zanez, eta azkatasuna agertu zan ayentzat beñena zan elburua. Batzuetan matxinadak egin ziran azkatasuna lortzeko xedeaz, baña geyenetan ezer ez iristeko. Alaz ere asmo berean jaŕaitzen ziran jopu guztiak, azkatasunaren alde, beaŕa izan ezkero, bizia bera emateko ere gerturik.

Naiz era ontaz naiz artaz, oŕela izan da gizadiaren bizia beti, ta ezin esan dezakegu, gaur ere, jokera ta boŕoka ayek amaitu dirala, naiz eta gizonaren eskubideak ain ozenki aintzakotzat onartzen dirala aipatu. Dakigunez, joputasuna ez da beti berdin izan ez eta berdin erabiľi; alakotz, azkatasunaren egaŕi ta beaŕa bizi-bizirik izan beaŕ gaur be edonun.

Joputasuna ez da berdin izan beti, ez eta azkatasuna ere. Eta azkatasuna dala-ta, berezi beaŕ dira soin-azkatasuna ta gogo-azkatasuna, bai ta gizonaren azkatasuna ta Eŕi'arena; ikus ditzagun bat-banaka lau azkatasun-mota oyek.

Noski, lau azkatasun-mota oyen aurka ba-dira indaŕ eta jokera asko, azkatasun oyek gozatzeko, batzuetan oztopoak ipintzen dituztenak, eta saŕi guztiz ezabaturik ere uzten dituztenak be. Ona edo izango da batzuk eta besteak nola ari diran ikustea.

Asi gaitezen gizonaren azkatasuna begiratzen. Eta bereala ikusten dugu aspaldi-aspaldidanik gizona deadarka azkatasuna goratzen eta berarentzat eskatzen ari-izan dala; ta oŕela

adierazten du, lenengo-lenengotik ere bere azkatasunaren aurka beste gizonak ziardutelarik. Ořela izan zala-ta argi agertzen da bere lagun-urkoak zearo menperaturik euki nai zutela gizon batzuek; eta egikera zital ori alde guztietan gogoř sortu zala ikustean, ba-dirudi gizonaren baitan berez edo agertzen zala besteak menperatzeko apeta. Ořela, betidanik jopuak ezagutzen dira gizadiaren edestian, eta gure egunetan be ezin esan diteke joputasuna zearo lekutu dalarik. Aldi batzuetan, ez gutxitan alajaña, gaur ulertzen ez diran mugaetaraño onartzean, ots, jopuak gauzak bezela erabiltzeko eskubide osoa menperatzailleengan izateraño.

Eta jopuak, bidezkoa zanez, beren azkatasuna deadařez eskatzen, eta batzuetan ořen alde jokatzean odolezko buřukan sartu arte; maite ta beařa baitzan ayentzat peitzen zitzayen azkatasuna. Bizian barna gizona beti azkatasunaren alde; alarik ere ba-zirudien noizpait gizona bezela azkatasunik gabe bizi beař zala.

Ořen antzera Eři'ak be, berez endeřiak diranak ere, beste ainbeste edo geyago jasan beař-izan dutela, aspaldidanik eta egun arte. Antziñan, erdi-aroan eta gure egunetan be, oř ikusten dira Eři ta Lateři aundiek txikiak zapaltzen. Lengo bakaldunak, beren eskubidea bezela, ontzat eta bidezkoa bezela, beren ečialdeak zabaldu ta aunditzea artzen zuten; eta ortarako bide egokia legez beste Eřiak zapaldu ta berentzat artzea ere, ayen iřitsa iñoiz zearo aseturik ikusi al-izan gabe; ontzat edo artu zan jokera ori, ta ořengatik beste Eřiak erailtzea be beste eskubide bezela onarturik izan zan; esate baterako, europařak Amerika osoan ankerkeri aundienaz bete zuten ango Eři'en erailtzea. Amerika'n endeři batzuk dagoz, oraintxe ere, Ludi'an barna ongi erakustean zein zala dan auentzat beren azkatasuna lortzea, ta oyentzat be azkatasuna izatea ametsa bat bezela ikusi beař, gozatzeko eziña bezela azaltzen zayela.

Gizona burutzen duten soña ta gogoa ere, azkatasuna iřikitzean bai, baña azkatasun ořen aurka aurkitzen diran oztopoak aundi ta ugari, len bezela orain ere. Giza-soñaren azkatasunaren aurka agertzen diran oztopoak ez dira gutxi, ez, mota aunitzekoak ditugunak: Lenengoz bere berezko eginbeařak oso loturik daukatenak; gero lekoretik datozkion aunitz: otz eta bero, ura, aide ta aizea, lučaren erakarpena, nekabidea, oñazea, atsegiña ere, argia ta iluntasuna, ta abař eta abař, guziek eragiten diotelarik eta atzituta bezela daukatenak, bere azkatasunaren arerioak lez agertzean.

Gogoa, giza-gogoa noski, aurka zaizkion beste oztopoen auřean aurkitzen da beti, azke ezer egin eziñean, eta esan genezake soña baño lotuago egoten dala, bere oztopoak eragingařiago jokatzen dutelarik. Ona emen gogoaren azkatasunaren aurka agertzen zaizkigunak: Ogenak, gaizpideak, jokera txařak; eřak, gořotoak eta aseřeak; saldukeriak, arbuyoak eta ezezpenak; apetak, geyegikeriak eta iñartsiak; eta beste ainbeste. Guziek gogoa zearo menperaturik daukatenak eta bere azkatasuna azaldu gabe eukitzean.

Ikusten danez, azkatasunaren asmoa, edozein aldetik begiratzean ere, naiz gizon, naiz Eři, naiz soña, edo gogoa diralarik, ba-dirudi lortzeko eziña dala beti. Ta alaz ere, gizadia betidanik izan zaigu azkatasunaren atzetik gogo ta apeta aundienaz. Noizean bein, eta oso zedařitua dan baranoan, azkatasunaren zati bat edo beraganatu duelakoan, ařo ta pozik gizona, naiz eta lortutakoa utza izan.

Baña nun eta noiz izan da gizona azkatasun osoaren jabe?; iñoiz noski ta iñun be, ta gizadiaren yoran aundienetakoa bada ere, ori lortzea eziña izan zayo zearo beti; ortxe dago edestia orixe egiztatzeko. Ta gizon guztien yoran aundi ori ez al da iñoiz edo iñun, ez al da bete beař?; ořela dirudi ta eziña bezela edo onartu beař dugu; alan eta guzti gizadia ořen billa jařaituko dala eskieř egon gaitezke; asmoa ain edeřa izanik, len bezela gero ere gizonak deadarka ari-izango zaizkigu goi-amets aundi ořen atzetik.

Osoa bederen gizonak ez du iñoiz iritsiko azkatasun osoa, ta bere zatitxu batzuk bereganatzea askitzat artu beaŕ-izango du. Azkatasunaren ametsa amets edeŕenetakoa dugu, ziñez, eta ez da aŕitzeko gizona bera atzemateko gurari biziaz dabil, ibiľi ta ibiľiko dala oartzea, ta, beste goi-amets guziak bezela, ori ere izatea bidezko ta edeŕ.

Ontzat eta guztiz egokia bezela begiratu beaŕ dugu yoran aundi ori, ta aro guzietako gizonak oŕen atzetik bizi-izan dirala ikustean, ba-dirudi noizpait eta nunbait lortu beaŕ-izango dala; noiz?, uste dugunez geroko bizian?, geroko betikotasunean? Izatekotan oŕela edo elduko zaigu bakaŕik ororen apetazko azkatasuna.



## XXV. ESKUBIDEA

Zer ote da eskubidea?, nola ulertu beaŕ dugu itz onen zentzuna? Onela edo erantzuteko. Berezkoak diran arauen artean, legeak zedaŕitzen dituen mugaen barnean, gizarte erakundeak jaŕitako bideetan barna edo ekanduzko eduetatik irten gabe, norberak, gizon bakoitzak ari-izateko duen almena; gizon guztiek eta bakoitzak erabiľi dezaketen almena, ororena dana.

Oŕela dalarik, oso mugatua bezela agertzen zaigu eskubidea; jakiña iñork egin ezin baitezake nai duena edo otu dakioken ezer, burutuaren gañetik azke yarduteko, egiten duenaren erantzupena aintzakotzat artu gabe; bai yardespena gizonarentzat alboan utzi ezin diteken jokera da, ezinbesteko jokera.

Bidezkoa danez gizon baten eskubideak beste gizonen alkea eskatzen du, ta beaŕezkoa da oŕela izatea, osterantzean eskubidea ezereztuta geratuko litzakelako. Onela batzuen eskubideak eta oyei buruzko besteen lotsaren artean gentzan bizi al-izateko gertatu beaŕ oreka egokia. Oŕa gizonak alkaŕekin bizi al-izateko jokera edeŕa, baitezpadakoa bezela onartzekoa dana.

Oso zabala da arauen artean dagoen landa, bertan eskubideak erabiltzeko; oŕengatik zaľa dirudi bere eskubideak erabiltzeko oztoporik aurkitzea; aitzitik, alde guztietatik ori egiteko, mota guziko laguntzak azaldu beaŕ-izango lirake. Alaz ere askotan agertzen dira besteen eskubideak ukatzeko gerturik dagozenak, saŕi bidegabekeriak aunitz burutzean.

Norberak gorde beaŕ ditu bere eskubideak eta egokia izango zayo besteen aldetik beaŕezkoa dan alkea gozatzea;

ta bakoitzak be besteen eskubideen aurean bere alkea erakutsi bear-izango du. Gauza oso ereza dirudi orela jokatzea, baña maiz, oso sari, sariegi be, ontaz edo artaz oreka ori apurtzen da, ta ortik sortzen diran erak eta lipiztak ere ugari ikusi bear; beraz, askotan, eskubideak guztiz arbuyaturik geratzen dira, Gizaldiaren asieratik gizonen artean orixe jazo dana, ta ez dirudi eraz gaitz ori zearo menperatzea.

Gizonaren eskubideak maiz eta ozenki aipatu ta goratzen dira alde guztietan, erakunde ta jaurlarien aldetik sendo ta bero aldarikatzean, eta batzuetan oyekiko alkea gordetzea lege baten bidez babestuta jari nai edo dutela dirudi baztere-tan. Irudi ere ba-dirudi aldarikatze oyen atzetik gizon guztien eskubideak, zalantzik gabe ta esamesaka ibili gabe, zearo tinkoturik geratzen dirala, baña, orain arte berepein, emendik edo andik, aurkako jokera gogorak sortzea ikusi da, zoritxarez. Ondorioaz, galdutako eskubideak beriz iristeko, amaika lan eta borokan sartu bear, buru-belari jokatzean. Eta gizonak bein eta beriz alkaren aurka gogor, gentzaren aurka bipilki beti.

Gizona dala-ta, eskubideak bere gogoarenak izan ditezke, bai ta bere soñarenak ere, garantzi aundiko guziak; baña bere baitari dagozkionak beñenak bezela eukitzeko edo. Soñarenak, berarengan dagozenak be aundiak izan ditezke, eta beti, ayen aldean, beko galgan agertzekoak, ia abereengan izan ditezkenak bezela ikusteko edo; ezin egin oyekiko aurka izan diteken ezer, baña edozein eraz gogoarenak ikusi bear dira nagusi, ta egitan ororen aldetik orela artzen, aldarikatzen eta onartzen dira nun-nai.

Esan dugunez, asko ta goraki mintzatzen da gizonaren eskubideai buruz; oso gutxi, aitzitik, enderien eskubideetaz, benetan bidegabekeri aundia egitean. Ots, enderienak dira bereziki aipatzen ditugunak, ez laterienak, naiz eta auek ere aintzakotzat artzeko izan.

Bidezkoa ta bear-beara dugu Enderi'en eskubideak aipa-



tu, goratu ta beren alde alik eta geyena egitea, gizonarenak bezela onartzean. Jakiña gaurko Lateri aundiak ez dute orezaz ezer entzun nai; batzuek beren menpean Enderi bat edo geyago azpiraturik dauzkatelako, ta Enderi guztien eskubideak aurera aterako balira ayentzat kaltegaria izango lirakelakoan dagozelako; orengatik olakoek beti eragozpenak ugari ipiñiko dituzte elburu ortaraño ez eltzeko. Baña enderiak, dagoaneko esnaturik dagozelako, beren eskubideen alde gogor jokatzen ari dira, gero ta kementsuago; ta ustekoa danez, noizpait ororen erakunde berezi ta indartsua antolatu bear-izango dute, beren eskubideen alde egokiago lanegiteko ta aurera eramateko ere.

Askoren aldetik, Lateri aundi oyen aldetik batez ere, Enderi'ai beren eskubideak orela dirala ukatzen diete gogor, beren nausigoari indarez eusteko xedeaz, eta ez dute iñoiz amor-egingo ezertxoaz be. Ori dala-ta, oso egokia edo izango litzake gizadi osoa, berez, iru galga auetan kokaturik dagoela aldarikatu ta goratzea, guztien aldetik orela onarturik izateko: Gizona, Enderia ta Gizadia. Oyetxek dira gizon guztien berezko taldeak; antolatuta dagozen beste taldeak, Lateriak eta besteak, ezin ar ditezke berezkoak bezela, gizonak erabakitakoak baizik, ta orengatik ezin onartu oyengan ayengan dagozen eskubideak, eta orixe dalarik Enderi'en eskubideak dira onartu bear diranak nun-nai ta guztien aldetik.

Eskubide batzuk berezkoak dira, esate baterako, biziarena ta azkatasunarena; ta biak naiz gizonarentzat naiz enderiarentzat; eta orelako eskubideak guztien aldetik onartuak izan bear beti; ikusi dugunez, ez da ori beti jazoten, eta orengatik jopuak izan dira, besteen indarkeriaz orelaxe egiñak.

Beste eskubide batzuk gertagariak, al-izan edo ezin-izan ditezkenak, eta gizonen bearetatik edo egokiak edo berezkoak ez diran beste zioetatik sortu ditezke, noski; ta oyetatik ba-

tzuk edo asko be ontzat arturik izan ditezke ta beste asko ez; esate baterako: ikasteko eskubidea, alde batetik beste batera joatekoa, ta abaŕ.

Naiz gogo-eskubidea naiz soñarena, norberaren baitan edo norberarengan dira eusteko eskubideak bakaŕik, besteen lotsa gozatu beaŕ dutenak; eta eskubide guztiak beti azpegi bi oyetan ikusi beaŕ ditugu; berea dana bakoitzak eusteko ta besteena dana onartzeko ta berari lotsa izateko. Orixe, egitan, alkaŕenganako ondo ta egoki bizi-izateko ta alkaŕi buruz egokiro yardun al-izateko.

Eskubideak dirala-ta, adimenari dagokio oŕelakoak ongi ezagutu ta aztertu, ta naimenari, beaŕari edo egokitasunari eskatzea ta ondo erabiltzea; alakotz, berak ezagutzean eusteko lenengoz, eta bein ondo ezagututa, erabiltzeko gero; oŕa norberarentzat jokatzekoa dan egoki ta ezinbesteko bidea.

Eskubideen ezagupenean eztago gizonentzat ebazkizun aundia; aitzitik, eskubideen eskatzean eta erabiltzean maiz sortzen dira amaika ebazkizun, oso zaḻa baita ortarako ororen iritziak batera etortzea. Buru bezenbat aburu diño euzkal-esakun batek eta eskubideak onartzeko ta erabiltzeko oŕela gerta diteke askotan; oŕengatik oŕ inki-anka sortzeko ituŕi egokia.

Zio ori dala-ta, ain zuzen, kexu bizi-izan dira gizonak mendeetan barna, beti eskubideak bideratzeko nayean. Argi dago ori lortzeko aldi guztietan zailtasun eta eragozpen aunitz izan dirala; ori dala-ta be gizonen eskubideen alde bederen jokatzeko ozenki eskatu dala, goyeneko erakundeen aldetik batez ere. Bein eta beŕiro eskari ori egin dala ikusi al dezakegu, ta oŕek erakusten digu garbi ortan dagoen zailtasuna nolako aundia izan dan beti.

Dana dala, auxe oartzeko beaŕa: Gayaren gaŕantzia aundia dala, izateko ta onartzeko, eskatzeko ta erabiltzeko; ebazkizuna gizadia bezin zaŕa edo dala ta gizonaren ayuŕiagatik bein-betiko antolatzea oso zaḻa bezela agertzen zaigula. Ezinbestekoa oŕengatik gizonentzat bide on eta egokiak aurkitzeko, tai gabe yardutea. Ta len, orain eta geroko ebazkizun aundia bezela onartu beaŕ dala.

## XXVI. EGINBIDEA

Eginbide, eginbeaŕ, bearkun itzez guztiok eta norberak egin edo bete beaŕ duguna adierazten dugu. Eginbidea, noski, Yainkoa'renganako edo lagun-urkoarenganako edo sendiarekiko edo norberaren buruarenganako; bakoitzari buruz, beti, beste baten edo batzuenganako edo bere buruarenganako egin edo betetzekoa dalarik. Alkaŕenganako ere esan dezakegu, ta oŕela alkartasunari dagokio ertsiki.

Len eskubideaz ari-izan giñan eta orain eginbideaz yardun nai dugu; ta bi asmo auek alkaŕ betetzekoak bezela begiratu ditzakegu; ta betetze ortan ere giza-biziarentzat egokia diteken oreka ona eskeiñi diteke; ta, oreka izanik, gizonen arteko gentza jaŕi ta eusteko berebiziko bide edeŕa izan diteke ororentzat. Beraz, biak ongi ezagutu ta onartu beaŕ dira guztien aldetik; eta lenengoaz len aztertu ondoren, beste ainbeste burutzea dagokigu bigaŕenaz.

Eginbidearen asmoa, bete-betean, gure baitan ikusi beaŕ dugu erabat; noski, asmoa izan ezkero ezin gurea izan diteken beste nunbait egon. Jakiña, eginbidea zer dan eta nolakoa izan diteken lenengoz, eta gero bera nola erabiĺi dezakegun edo nun erabiĺi beaŕ dugun edo nola zedaŕitu diteken ere, gure egikera guztietan barna. Eginkizuna dugu, alakotz, eginbidea, egin edo bete egin beaŕ dugun zerbait.

Guzti ori gurekikoa bezela lendabizi, baña gero lagun-urkoarekiko be ezinbestean, eginbide bat burutzeko, besteenganako askotan, ari beaŕ-izango dalako; bizian barna, baten eginbidea beste baten eskubidea osotzeko izan beaŕ dalako, ala eskubide bat onartzen bada, baitezpadakoa dugu beste eginbide bat ura osotzeko; apika, obea izango litzake biak, eskubidea ta eginbidea, zearo alkartzeko ditugula esatea.

Betidanik ezagutu da gizonen artean eginbidearen asmoa,



gizartearekiko asmo au ain bidezkoa agertzen baita, biziaren kirirako beaŕ-beaŕezko oñaŕia bezela ikustekoa baita. Gizonak mail batzuetan jaŕita dagoz, batzuetan egoki ta onak diran maiĺetan barna ta besteetan ez, eiki; ta mail oyetan gizonak kokaturik izatean, bidezkoa dirudi beko maiĺetan dagozenak goikoetako besteai buruz eginbideak izatea, bai ta goikoengandik bekoenganako ere beste eginbideak izatea ere; ez dira bearbada berdin batzuen eta besteen eginbideak, baña ezin ukatu biak eginbideak dirala.

Ez dira onartzen beti eginbideak betetzeko, askotan betetze ori atsegiña ez dalako; noski, beti atsegiña izango balitz, eziña izango litzaiguke betetzen duena goraltzea; ta Ludi ontan oso goratua izaten da bere eginbidea betetzen duen gizona, bidezkoa danez; eta betetze ori onbidea izaten da, ta ez onbide txikia. Oŕa bada gizonak txikitatik ikasi beaŕ duena; ta eskubideak aipatu ondoren eginbideak ere aipagaŕiak izan beaŕ ororentzat, lenengoak eta bigaŕenak guztiz alkarturik begiratzeko.

Baña Ludi ontan eskubideak dira ozenki aipatzen eta goratzen diranak; iñoiz edo oso gutxitan egiten da ori eginbideai buruz. Jakiña, eskubideak zerbait artzekoa dala adierazten du, ta aitzitik eginbideak zerbait be eman beaŕ dala; ta gizona beti dago gerturik artzeko ta oso gutxitan emateko. Emateak eztu etekiñik ekartzen eta artzeak bai, geyenetan; ulertzekoa da, alakotz, lenengoa onartzea ta bigaŕena astantzea.

Alaz ere, eginbidea betetzea lagun-urkoarentzat on eta egokia izaten da; beraz, gizartearentzat ere; oŕa zergatik auŕen aziera egiteko, onena izan dedin, eginbidea aipatu ta goratzea bide egokia bezela erabiĺi beaŕ dala, guztiai txikitatik betetze ori onbidea dala erakustean; eta bere eginbideak ondo betetzen dituena ororen aldetik ereduz onartzeko; oŕela, naiz gizonarentzat naiz gizartearentzat alkaŕen aŕemanetan ongienik bizi al-izateko bide egokia dalarik.

Bai, eginbidea betetzea onbide aundi bat bezela begiratu beaŕ dugu, ta onbide guziak legez, gizonaren baitan dagoz bere izatea ta bere egikera, ezin beste iñungo tokian aurkitu. Bere ondorioak gizonaren baitan bereziki baña gizonarengan ere, alde guzietara eltzen baita eginbideari darion oro. Ta oŕela begiratu beaŕ da eginbidearen betetzea, on guziaren ituŕi egokia dana.

Orixe dala-ta, betetze ori, egiten duenarentzat lenengoz, eta guzientzat gero, on guziaren iturburu yaukala izango zaigu beti, bertan gizonaren barneko leya asetzeko ere bidea izatean. Gaŕantziduna, beraz, eginbidearen betetzea ororentzat, oso gaŕantziduna beti, ona bai eta gaitzik ez bertan oartzeko. Egokia be, guztiz, ezin besterik izan; egokia bai ta onurakoŕa ere noiz-nai ta nun-nai be.

Guzti oŕengatik auŕen azitasunerako ezinbestekoa bezela begiratu beaŕ da eginbidearen asmoa, azitasun ori auŕa biarko gizona biurtzeko baita; orixe auŕarentzat gizon betea izateko bide edeŕ-edeŕa; ta oŕengatik azle ta irakasle guziek auŕai bide ori erakusteko ardura aunditzat onartzekoa ziñez. Azitasuna, benetan, oŕela izateko, eginbide betetzearen asmoa barnerano sartu ta erein beaŕ da azleen aldetik auŕen gogoan.

Aintzakotzat artzeko ororen aldetik eginbidearen betetzea; bearbada eztago bide oberik ez gizonarentzat ez eta gizartearentzat be, ororen on eta gentza egitan gozatu al-izateko. Ortarako, eiki, eztago, ezin, beste jokera oberik geron gardiz. Alakotz, aziera osorako, baitezpadakoa onartzeko beti; al eta ezin eztago egiazko azierarik, asteko onbide ori auŕen baitan indaŕez, gogoŕ eta isituki onaŕerazteko alegindu gabe.

Ez da esan beaŕ eginbideak gizon guztientzat oŕela izan beaŕ dirala, eginbide; ta oyek betetzeko, gizon guztien baitan yoran biziena izan beaŕ dala. Orixe ezinbesteko bidea, noski, gizon eta Eŕi guztiak ondo, beaŕ dan bezela ta gentzan bizi



al-izan ditezken. Zoritxaŕez, gaur oindiño ez da arazo au aintzakotzat artzen alde guztietan, beaŕ-beaŕa izango litzaken bezela; baña oŕengatik ere eginbideak betetzeko beaŕa eten gabe ta gero ta areago aldaŕikatzekoa da, betetzeko asmo ori gizonen artean sendo ta sakon bizi dedin.

Eginbideai buruz ezta gutxi esan eta idatzi dana; nola baña, berai buruz yardutean, Goi-Yakintza'ren zati berezi-berezi bat eratzeko aña ere. Zati berezi oŕek OIDERTI edo ONIZTI du izena, ta Ikastola Nagusi'etan eta ikasteko dagozen beste goiko erakundeetan be, irakasteko gai bikaña bezela dago jaŕita. Oŕek erakusten du argienik eginbideak betetzeak duen gaŕantzi aundia gogo-lantze guzietan barna, aspaldltik ere erabiŀita izan dala sakon eta bereziki.

Bai, guztiz aintzakotzat artu beaŕ da gizonen artean eginbideak eta beren betetzearen arazoa; gizadiarentzat ez edo da oŕenbeste gaŕantzia izan dezaken ia besterik. Eta eginbideen betetzea eskubideen gozatzearen betegaŕia bezela ikusi dezakegu egokitasun edeŕean. Nolabait, asieran, eskubide ta eginbidea aurkako asmoak agertu edo ditezke, baña arazoa sakon begiratzen bada, aurkako izan ordez, alkaŕekiko betebidea bezela artu beaŕ ditugu ongi; ta asmo bi oyen artean, oŕelaxe ikustean, Ludi'aren bizirako egoki ta beaŕa dan orekari eusteko, bide ona ta ezinbesteko bidea ere osotu dezakete ondo.

Alakotz, guzia oŕela buruturik gera dedin, baitezpadakoa bezela begiratu ta onartu beaŕ gizonen aldetik, guziak eta bakoitzak, ororen eginbidea betetzeko, gogoz, alegiñak egitea naitaezpadako bezela onartzea. Ona, bazteŕ guztietarano zabaldu beaŕ-izango litzaken asmoa, gizadiaren bizia laguntzeko, bizi ori alik eta onena izateko, ta bertan gizonak be obeto ta eskiertasun aundienean ari-izateko ta azkenez bizi-izateko ere.

## XXVII. ONIZTIA

Oniztia Goi-Yakintza'ren zati bat bezela begiratzen da. Bere elburua Zileizti, Zileiztasun, Eginbide ta Eskubide'ari buruz ari-izatea da. Zileizti-Yakintza ere deitzen da. Beraz, ona ta zuzentza aztertzen ditu bereziki; jakiña, gizonaren izakerari, izakera onari eusteko, gizonaren goiko bizia bere goyeneko galgan izateko, egoteko, irauteko ere; ba-dirudi ona dan guzia dala bere jo-muga; ta ona izanik zuzentza be ezinbestean.

Oŕela izanik, gure baitan erabiltzeko beti, noiz edo noiz guregan ere erabil ditekelarik, baña bakanki.

Betidanik, ona ta gaitza izan dira gizonak begiratu dituen biziaren azpegi gaŕantzidunenak bezela, eten gabe alkaŕen aurka gizonaren izakeran ari diranak, gogo-bizian noski. Dirudienez gogo-bizi ortan ona dan guzia kokatzea izan beaŕ-izango litzaken izakizun bakaŕa; bertan gaitzarako tokirik edo ez izateko, ezin izateko bearbada; alaz ere, gugandik sortuta apika, gogo-bizian be agertzen da gaitza.

Ona ta gaitza alkaŕen aurka beti, gure baitan gañera; auxe izateko bi oyen jokabide ta etiketa guziak erabiltzeko leku berezi, egokia ta, egitan bakaŕa; jokabide oŕen ondorioak bai, eiki, geron baitan eta beste tokietan ere agertzeko, baña jokabide ori bera geron baitan beti, ezin beste iñun azaldu ez eta bizi ere; ta oŕengatik, ain zuzen, on eta gaitzaren gaŕantzia gure bizirako, batik bat giza-gogoarentzat. Alakotz, oso bidezkoa izango zaigu egin dezakegun azterketa guzia galga ortan, geron baitan noski, erabili ta burutzea.

Asieran esan dugunez, oniztia zileizti-yakintza ere deitzen da; zer ote da Zileizti edo Zileiztasuna? Noski, ona jaŕaitzeko ta gaitza astantzeko arauak erakusten dituen Yakintza; ta Oniztia zer ote?, Zileiztasun'ari buruz ari dan beste Yakintza; ta azkenez biak gauza bera dirala dirudi, ta oŕengatik edo deitzen da Oniztia Zileizti-Yakintza ere. Ona onartu ta gaitza astandu egiten bada, nolabait eginbidea betetzea dala dirudi. Beraz, oniztia, zileiztasuna ta eginbidea alkaŕi buruz ari dirala uste dezakegu, alkaŕen urbil eiki.

Naiz eginbidea —auŕeko lanean ikusi danez— naiz zileiztasuna, naiz oniztia geron baitan ikustekoak dira ez iñoiz guregan, egitan goyeneko asmoak diralako ta gure gogoan tinkoturik ditugulako; ta iru zera oyek yardespena dute ondorioa bezela; ona onartzeko ta gaitza astantzeko jokera, oŕa beren yardespen aundia. Alakotz, oyei buruz ari-izateko, beti ta ezinbestez gure baitan erabiltzekoak ditugu.

Ona edo txaŕa onartezko naiz astantzeko ere, geron baitan xedetasun osoa izan beaŕ da, egitan yardespena egon al-izateko; xedetasuna ere gure baitan ikustekoa dugu ta gure gogoari dagokio bete-betean; eta eziña edo guregan izatea. Zer atera ote genezake egia deritzaigun guzti ontatik?; yardespena xedetasuna dagoenean bakaŕik izan ditekela? Eta oŕela izan ezkero ezin guregan yardespena izatea; bidezkoa dirudi oŕela ulertzea, baña bene-benetan asmo au onartzekoa al da?; bayetz uste dugu, xedetasuna geron baitan bakaŕik bizi ditekelako.

Zileiztasuna, beste aldetik, egipena dugu erabat, geron baitan burutzen dan egipena, ta bi motazkoa ere izateko, ala beaŕean: bat, ona onartzeko egipena, ta bestea gaitza astantzekoa eiki; benetan, bi bidetik alkaŕenganako aurka agertzen diran bi bideak, iñoiz bat egin ezin dezaketenak; beraz, alde ta aurka jokatzeko egipena, gogo-egipena.

Geyenontzat edo, ona artzea txaŕa astantzea baño eŕazago; ona onartzea, enurarik gabe, atsegiñezkoa bezela ikuste-

ko; ez, agian, txaŕa astantzea oŕela ere izatea, ta aurka egiteko guziontzat edo zal̃agoa agertzen zaigulako. Oŕengatik, apika, zil̃eiztasuna aipatzen danean egokiago deritzaigu ona onartzean ari-izatea ulertzeko bereziki. Alaz ere, beaŕezkoa izango zaigu onelako gure lan ontan bide bi oyetaz yardutea, ta orobat gertatuko da onen antzeko beste lan guztietan be.

Ona onartzea ta gaitza astantzea gizonaren bizian ere gaŕantzi aundiko bi arazo ditugu. Zil̃egitasunaren galgan ari-izanez, gogoetan ari beaŕ beti, baña gizonarentzat oŕ bere bizia zuzentzeko bidea, bide egokia, izateko zalantzik gabe, lenengo jokeraren ondorio edeŕa bezela.

Ona ta gaitza zer diran, beren artean dagoen ezberdintasuna oartzeko ta beren artetik zein onartu beaŕ duen eta zein astandu atemateko, ba-ditu gizonak bere baitan aukera egiteko bidea ta jokatzeko almena be. Bere baitan noski ta bere adimenaz ari-izateko beti, oyetxek baitira gizonari dagokion erabakia artzeko beaŕezko bide egokienak. Argi agertzen da oŕ gizonaren almena bai ta bere goyeneko duintasuna ere, beste izaki guztien gañean bere burua ikusteko.

Zil̃eiztasuna gizonarentzat bizian ari-izateko norabide eskieŕ eta edeŕenetakoa, arean; oŕengatik alakotzat da gizaldiz-gizaldi, biziaren zeaŕ, alde ta aldi guzietako gizonen aldetik. Ba-dirudi berez sortzen zayola gizonari barnean zil̃eiztasunaz ari-izateko yorana yaukala, egitan beti aintzakotzat artuta izan dana. Ba-da bidezkoa ere oŕela izatea, biziari dagokion goyeneko izaeran barna ibil̃i ta auŕera diteken.

Zil̃eiztasuna gogoari dagokio zuzen-zuzen eta oŕengatik noski, len esan dugunez, geron baitan ari da bere azpegi guztietan. Eta oŕela izanik, gayezkoa danak nunbait edo noizpait ikutzen al du ura? Noizpait ba-dirudi soñaren egipena eta soin-atal baten egipena, beŕitzen danean batez ere, zil̃eizti-itxura artzen duela, baña orduan ere egiazko zil̃eiztasuna



izan dedin, xedetasunak ari-izan beaŕ oŕela izateko, ta xedetasuna geron baitan bakaŕik bizi da.

Zil̃eiztasuna ekandu onai buruz dagokie bereziki; ekandu ta oitura onak gorde ta erabiltzean zil̃eiztasuna bete-betean ari-izatea dugu. Beraz, oniztia ere ekandu onen barna ikusi beaŕ, bere jo-muga berezian eutsita izateko. Labuŕ, onizti, zil̃eiztasun eta oitura onak gauza beraren azpegiak bezela agertzen zaizkigu alkaŕekin.

Zil̃eiztasunaren aurkakoa eskugeikeria aurkitzen dugu, zuzen-legetasunaren aurka bereziki ari-izatean, alde guzietan beko jokera txaŕa bezela begiratzen dana izanik iñork ez du onartzen oŕelakoa bezela agertzea, onela, beste aldetik, oniztiaren goiko izakera aitortzean, ala beaŕik.

Zil̃eiztasunik gabe ere izan diteke, eskugeikeriraño eldu gabe. Auxe berekoikeri aundia bezela ikusi dezakegu, zil̃eiztasunaren aurka ezer egiteke, oŕen eskabideak ontzat artu nai ez izatean. Oniztiaren baranoan eziña da jokera koldaŕ au aintzakotzat onartzea, ta, auŕekoa bezela, zil̃eiztasunaren aurka legez oartzekoa dugu bete-betean.

Alakotz, oniztia osorik onartzekoa dugu; berak bideratzen gaitu egokienez bizian barna jokatzeko, ororentzat bide on eta egokiena bezela azaltzean. Lenengo onbide bezela artu dezakegu, ziñez, ta gaizpiderik gabekoa dala, oso-osoan, gureganatzeko ezinbestekoa bezela agertzen zaigu zearo.

Oniztia, zil̃eiztasuna, ekandu onak, argi ta garbi onartzekoak ditugu benetan, iruen artean onbide nagusia bezela ikustean. Ezin bizian barna ondo bizi ta auŕeratzeko beste bide oberik.

## XXVIII. BIDEZKOTASUNA

Zer adierazten du BIDEZKOTASUN itza? Ontzat artzen danez, auxe: Yakintzazko ezagupenen legeak, erak eta gisak aztertzen dituen yakintza berezia. Asmo au onartzean beste au ere esan dezakegu: Yakintza osoaren legeak, erak eta gisak begiratzen dituela zeatzez; bai ta azpegi edo baldintzak be.

Eta esan-nai ori onartzen badugu, lege, era ta gisa oyek zeintzuk eta nolakoak diran ikusi beaŕ-izango da, bidezkotasunaren jo-muga ateman al-izateko.

Dana dala, geron baitan erabiltzeko adierazpena dugu enurarik gabe, yakintza au; adimena jokoan zearo jartzeko eskatzen digularik. Eta yakintza-motak asko diralako, ez da eŕaz izango guziai dagokion bide edo jokera orokaŕa ikustea. Goi-goyeneko galgan aurkitzekoa dala egi-egitzat onartzea zaigularik.

Naiz legeak, naiz erak, naiz gisak, azpegi edo baldintzak deitu, yakintzari dagozkion zeatz auek dira, gutxienez, gure burutakizunean tinkoturik euki beaŕ ditugunak: Egia, argitasuna, egiztabidea, bakuntasuna, gogo-aldagetasun, ulergaŕitasun, ezmez gabetasuna, eskiertasuna.

Azpegi guzti auek, noski, benetako ezagupena euki al-izateko, alik eta zoŕotzenak gertatu beaŕ dira, ezin gutxi-berako izanez agertzea, Yakintza'ri buruz, jakiña, ari izateko oŕela izatea ezinbestekoa izan beaŕ; Yakintza'k, eiki, guztia sakon eta zeatzez begiratze ta aztertzea noraezeko beti. Goazen guztiak bat-banaka begiratzen eta aztertzen.

Egia. Auxe, ezagupenak ongi bereganatzeko, izan beaŕ dan lenengo baldintza; ezagupenak beaŕ dan bezela eukitze-



ko, egiaz okiturik artzeko, egiaz inguraturik, egi utsaz beterik egotea. Ezin ulertzeko, iñoren baitan egiazkoa eztan ezagupena, ezinbestekoa, beraz, ezagupen argi eukitzeko, egiaz elikaturik izatea; ezagupen eta egia bat eginda bizi beaŕ, eskieŕ egoteko, lenengoa enurarik gabe jasotzeko. Egia, egi utsa edozein ezagupena geron baitan indaŕez beterik kokatzeko. Egirik gabe ezagupen guztiak antzu ta gezuŕ, ezertarako ezer ez.

Argitasuna. Itzalik gabe ta argitasun osoaz agertu beaŕ da ezagupena, atzipetzearen galbidea astantzeko. Gauza guztiak ez dira agertzen beti beaŕa zayen argitasunaz. «Argi ta garbi» esaten da euzkeraz askotan, iĺuntasunean, oartzeke edo, jausi nai ez dala adierazteko. Argi-egaŕi bizi beaŕ da beti gizona, argiz inguraturik bere burua ikusteko gogoaz; iguin izateko iĺuntasuna, noski, nola ezer ondo ikusi argirik gabe, ta ikusi nayean ari beaŕ ikasi nai duenak, aztertzen ari danak. Oro argi ta garbi ikusteko egaŕiz bizi da adimena, gogaldietan eta oldozpenetan yarduteko. Ezinbestekoa, beraz, argitasuna gogo-bizian barna.

Dan danez. Beaŕezkoa zayo ezagumenari, aztertu ta ikusi nai duena ben-benetan bera dan bezelaxe agertzea; ezin oŕ enurarik izan, ezin uste beste era batean begiratzea dagokionik. Au, ori edo ura, onela, oŕela edo ala azaldu beaŕ dira agerpen guzietan egokiro ikusi ta aztertu al-izateko. Dan dana, dan bezela izatea, danean tinkoturik egotea, danetik at ezin besterik izan, ezagupena beaŕa zayon eraz burutu al-izateko, orixe baita ezinbestelako baldintza gotoŕa, orixe bere bidea, orixe bere yarduera, ta oŕela ezagupena bete-betean egiña ikusia izango da.

Egiazko jokera. Len egiari dagokionaz ari-izan gera, ta orain, oŕen ondorioa bezela, egiazko jokera begiratu beaŕ dugu arekin bat egiteko xedeaz. Noski, egia ezinbestekoa baldin bada, oŕi buruzko jokera berdin izatea noraezekoa zearo. Ezin egiarekiko ondo jokatu, yarduteko jokera be galga berean

erabiĩi gabe. Beraz, beaŕ-beaŕezkoa izango da gogo zintzoaz ari-izatea, ezagupena ertsiki eratzeko, ezagupena itzalik gabe gureganatzeko. Alakotz, egia ta egiazko jokera batera etoŕi beaŕ-izango dira beti ezagupena gure adimenean sendo kokaturik, uts-utsa egiña gera diteken.

Zindotasuna. Ona emen ezagupena ongi borobiltzeko, beaŕ-beaŕezkoa zaigun bidea; erabiltzeko ta zindotasunez bete-betea noraezeko arazo ontaz yarduteko. Alegia, maltzuŕa izan diteken guzia, eziña bezela astandu beaŕ da lan ontatik, ta ulerkaitza izateko oŕelaxe zerbait onartzea. Zindo zuŕian erabiĩi beaŕ da oldozpena eten gabe, ezertan atzipeturik ez geratzeko. Ekitean, apika, maltzurkerizko margoaz soŕ diteke, zerbait lana erosoagoa edo egiteko asmoaz, baña ezin oŕelakorik onartu, naiz eta jokatzea zaĩagoa azaldu. Alakotz zindotasuna baitezpadakoa bezela agertzen zaigu ezagupena burutzeko.

Ulertzea. Guzia ondo ulertzea beaŕezkoa oso, atzipeturik gabe ibiltzeko. Ulermena buru-belaŕi edo erabiltzeko, guzia dan bezela ikusi al-izateko, ta guztiz eziña, eiki, ongi ulertu gabe ezer erabiltzea. Noraezekoa oso ongi ta garbi guzia egokiro ulertzeko, oro aztertzean auŕeratu al-izateko. Ulermen almena, arean, adimenean dago ta geron baitan beti ari-izateko, ta noraezekoa oso bertan jokatzea, begiratzen dan guztia zeatzez bera dan bezela ikusi al-izateko. Alakotz, jokoan ipiñi beaŕ almen au, edaturik oso, ezagupena ongi buruturik gera dedin, orixe ibiltzeko bide guztiz egokia.

Enuraeza. Ezagupena bere osotasunean lortuta izateko, ezinbestekoa bezela agertzen da enurarik ez izatea. Enuraren bat izan ezkero, argi dago ezagupena buruturik gabe geratuko dala; ezin arazo ontan zalantzik izan, ezin ezmezean ibiltzea burutapen ontan, ematekoak diran uŕats guztietan sendotasunean ari-izateko. Enurarik ez, esan beaŕ da beti eratuko diran oldozpen guztietan, enurarik ez, jakiña, burutapen



guztietan barna, ta aŕetaz ibiltzeko tai gabe soŕ diteken ezpai txikiena ere zearo ezabaturik izan dedin. Bai, enuraeza ezinbestekoa bezela izan beaŕ ezagupena oso-osorik egiña geratzeko.

Eskiertasuna. Enuraezaren bitartez ontaraño ibiĩi beaŕ, guztiz egokia dan eskiertasunera eltzeko. Ezin ulertu ezagupena oŕela egiten ezpada, eskiertasunez beterik ikusi gabe. Ba-dirudi baldintza au beste guztien burutzea dala, ororen amaya bezela agertzean. Eta eskiertasuna bete-beterik iritsita ukan beaŕ da ezagupenaren izatean, eziña bezela ikusteko oŕelaxe ezpada. Guztiz beaŕa, beraz, eskiertasuna, ezagupena beaŕezkoa dan eraz izateko, ta eskiertasunaz ari-izatean eŕaz eta egokiago ezagupen osoa bete al-izateko. Arean ezkiertasuna nai ta nayezko bidea, esandako baldintzaen baranoa ixteko.

Eta baldintza guzti oyen bitartez bidezkotasuna benetan buruturik geratzen da ezagupen guztiak izateko bidean, eta egiazko araua bezela agertzen zaigu adimena ta oldozmena egokiro erabiĩi nai baldin bada. Gure almen edeŕ oyek beren beaŕezko jokeran ibiĩiko dira ezinbestekoa bezala erabiltzeko duten bide zabalean.

Gogo-bizia ere ongienik edatuko da almen guztiak egokiro erabiltzean, gaya dan guzitatik goruntz abiatzean eta berari dagokion galgan beti jokatzean, gogarte ta gogaketan barna ari-izateko, irudimenari sartzeko ateak zearo itxita uztean. Gogo-bizia da, bai. aŕeta guziaz elikatu beaŕ dana, orixe gizonari jasota egoteko dagokion bide on eta beaŕa.

Beraz, alkaŕen ondoren ibiltzeko, ortxe ditugu ematekoak diran noraezeko uŕatsak, bidezkotasunean egiñak, eta auxe agertzen da ezinbesteko bidea bezela, adimen eta oldozmena bidezkoak ere zaizkion jokeraetan edatzeko, ta oŕela ezagupena guztiz buruturik izateko.

Obo zabalean geratzen da kokaturik ikusi duguna ta ikasi al diteken guzia ere, ta oŕela beterik edo geratzen zaigu gogo-bizia oso. Argi oro ortan eta zalantzik gabe egiteko lana zabaltasun aundienaz ari diteke.

Eta baitezpadakoa bezela ortxe bidezkotasuna egokiena lez.



## XXIX. BURUTABIDEA

BURUTABIDEA Goi-Yakintza'ren jokera bat da, adinketa ta onen legeak (erak eta gisak), yardun-erak eta yardun-gisak aztertzen dituena. Guzirako adin-antzea zuzen eta garbi erabiltzea beaŕ-beaŕezkoa bezela ikustekoa da nai ta nai ez. Eta burutabidea egia lortzeko bidean barna ibiĺi beaŕ da, yardukelan ongienik eusteko.

Adinketa, noski, adimenaren jokera bat bezela ikusi beaŕ da, adimena arau baten barna bezela ari-izateko, ta beste ainbeste esan diteke oldozmenari buruz ere; adinketa, beraz, beste almen oyen bidea bezela agertzen zaigu. Adinketa, jokatzean, adinkunde biurtzen da, ta auxe izaten da gogo-yardukelan erabiltzen dan bide egokia.

Beste gogo-almenak, gogoetak, asmamenak, oarmena, ulermena ta abaŕ, adinkundea dute beaŕa zuzen yarduteko, ta adinkundea esandako almen oyek erabiltzeko ezinbesteko bidea bezela agertzen da. Alakotz, orixe dugu adikundea, gogo-almen guztiak ari-izateko bide yaukala, egiazko gogo-bizia ongi edaturik gera dedin. Auxe be esan genezake: gogo-bizian, alde batetik almenak dagozela, ta bestetik almenak ari-izateko bidea; oro egokienik burututa geratzeko.

Ortan edo dugu gogo-biziaren izatea, izate guzia, ta ortik lekorean ezin gogo-bizirik izan. Ikustekoa, bai, gogo-bizia nolakoa dugun; almenak ugari gogo-bizia ba-dala erakusteko, ta ori egin al-izateko, nola jokatu beaŕ duten, nola agertu al ditezken ere, guztia barano edeŕean yarduteko, oro ekin-bide barnean azaltzeko be.

Nola egin, baña, adinkundea, nola erabiĺi, beste itzez, adin antze?, ba al dago arauen bat adin-antzeaz ari-izateko?,

zer ote da, egitan, adin-antze ori?, bidea ote?, era?, gisa?, ez ote da guzti ori batean?, eta almena be lenengoz? Bai, auxe bereziena, almena, gure adimena ta gure oldozmena egokiro erabiltzeko almena, bi auek, adimena ta oldozmena, almenak ere dirala aiztu gabe, guziak gure gogo-almenak osotzen duten gogo-jokeraren katea egiten dutelarik.

Adin-antzeak, zalantzik gabe, gizonaren duintasuna adierazten du ondoenik; izadiaren beste izaki guztiak baño goratuagoa dala argiro erakusten. Garbiro azaltzen da gizonagan duintasun ori, ta bera nolakoa dan atemateko, ortxe dugu adin-antzea, ortxe bere jokera edeŕa, ta berari eskeŕ gizonak izadiaren erpiñean dagoela bere burua ikusten du. Beraz, adin-antzea beaŕ dan bezela erabiltzean, benetan gizona adimenduna dala egiztatzen du era egokienaz.

Gogo-bizian barna erabiltzekoa da adin-antzea, jakiña; bertan ari-izateko beti, bertatik almen guztiak igitzean jartzeko edo; ta nola erabiĺi beaŕ da adin-antzea?, bidezkotasunez lenengoz, adinketa ongi zuzentzean eta adinkundea be ondo eramatean. Alakotz, adin-antzearen ibiĺerak berezkoak zaizkion mugaen barnean erabiltzean beteko ditu ondo bere elburuak; eta oŕelaxe jokatzean oldozmenaren baranoa buruturik geratuko da oso. Zuzen erabiĺi beaŕ, alegia, adin-antzearen jokera guzia bere lana ongienik betetzeko.

Lan eta erabiltze guzti ori burutabidea deitzen dugu, ta ba-du ala nolako bidezkotasunaren antza ere. Esan al liteke burutabidea adin-antzearen erabiltzea dala?; oŕela dirudi, baña oŕ ezeren menpekotasunik onartu gabe; adin-antzea almena da, ta burutabidea jokera, bien artean alkartasun aundia dagoelarik. Eta bidezkotasunaren antzera erabiltzen da, adinkundeari egokia zayon ayuŕia edo neuŕia emateko bidea bezela; oŕela, ezagupenari bidezkotasuna dana, oŕen antza eiki burutabidea adinketari; ortxe beraz begiratzeko tartidetasuna.

Burutabideak egia lortzeko yarduketan egingo dan guziari eusten dio egokitasunez, eta ortaz egingo dan lanari ona izango zayon laguntza ematen dio benetan. Beraz, burutabidea, ongi jokatzean, bide zabala bezela agertzen da gogaldietarako ta gogarteetarako; esan genezake oyetarako legea dala, bete egin beaŕ dan legea. Alakotz, eta len, asieran esan dugun lez, burutabidea jokera bat da bete-betean, eta jokera izateagatik, aŕetaz erabiĺi beaŕ dana, zalantzan ez egoteko ta okeŕak ez egiteko; oŕela erabiltzean agertuko da burutabidea egoki ala ez egoki.

Beraz, buruz, ertsiki buruz, yarduteko, burutabideaz ikusten, ikasten eta aztertzen, eta oŕela jokatzean benbenetako bide egokia izango adinkundea edatzean. Eta oldozpenak be ongi buruturik izango dira burutabideak zuzenduta. Gaŕantzi aundiko jokera, noski, burutabidearena, arazoak ondo zedaŕitzeko ta egokiro ibiĺerazteko ere, ta oso aintzakotzat artzeko bere jokabide osoa. Gogo-eginkizunetan be, guztietan, burutabideaz jokatu egin beaŕ, kordokaturik ez geratzeko; ta era ortaz oro guztiz ongi buruturik lortzeko ta egoteko.

Lanabesa egokia adin-antzea geron baitan adinkundeak egiteko, ta, zuzen erabiltzean, egokia oso gure oldozmenarentzat eta gure gogaldietarako ere. Oŕela, adin-antzea, argi ta garbi jokatzean, buruaren egipenak eta gogoaren bizia beaŕak zaizkien bideetan barna ibiĺiko dira beti, gure baitan oro ongi zuzenduta ta erabiita tinkotzeko ta sendo buruturik gera dedin. Naimena be jokoan ipiñi beaŕ gogaldiak eta gogoetak norabidean barna ibiĺi ditezen. Guztia, beraz, barano egokiaren barnean alkarturik, ertsiki batuta geratzeko.

Adinketaren batean adikundearen estunak alkaŕi oso atsikituta agertzea ezinbestekoa bezela ikusi beaŕ ditugu beti tinkoturik; eta adinkundearen bitartez adinketa egokia zayonez ari-izango da keŕ-keŕ. Oŕela adinketa ez da itz bat bakaŕik izango, jokera edeŕ-edeŕa baizik; gogoaren igidura geron baitan ondoenik yarduteko, ta igidura oŕek ere gogo-bizia eratuko du guztiz egokiro, tai gabe jokatzean eta gizo-

naren duintasuna be goi-goyan ageŕ dedin. Eta burutabideak bere elburua be ondo ta sendo buruturik uzteko; jokaera edeŕa, bai, burutabidearena.

Baitezpadakoa izango zaigu, oŕengatik, burutabidea erabiltzea, beaŕ danez jokatzean eta zuzen ibiltzean; geron baitan yarduteko, lan berezi ta egokia bezela burutu al-izateko. Ta adinketa ere, laguna bezela, berarekin beti bat egiten alkartasun edeŕean, eta burutabidea bere yardunketa osoturik euki al-izateko.

Adin-antzea jaun eta artezkari adimenean, oldozmenean, adinketan, gogo-bizi guzian; berak zuzentzen ditu egokienik almen eta jokera guzti oyek, eta bera gabe ba-dirudi geron baitan ezer eztagoela. Alakotz, bera erabiĺi beaŕ da aŕeta aundienaz, isituki, gogo-gogoz, bere laguntza beti ustiatzean, berak mugatzen edo erakusten duen bidetik iñoiz atera gabe. Ezinbestekoa oŕela jokatzea gizona gizon izateko ta bere duintasunean eten gabe irauntzeko.

Bidezkoa oso, adin-antzez eta adinkundez ari-izatea, adinketa guzia ekintzetan ongi edatzeko, ta gizonaren gogo-bizia bere osotasunean zabalduta izan dedin, ta oŕela gogaldietan eta gogoetan barna lasai ta gogoz yarduteko, goiko egaŕiz beterik eta ia oro gogoa biurturik izateko. Orixe elburu yaukala gizonarentzat, oŕen atzetik tai gabe bizi ta ibiltzeko; ta oŕela jokatzean bere duintasuna, dirdai egiten, nun-nai ta noiz-nai agertzeko; ezin edo jo-muga oberik.

Burutabidea eztabaidearen antzean be, noiz edo noiz, zabaltzen da, baña zentzunez eta goraki egiteko eztabaidea. Ta ortarako ere bidezkotasunarekin bat eginda bezela jokatzean; biak jokera on eta egokia buruturik.



## XXX. IRIZMENA

Irizmena, iriztearen almena dala esan dezakegu, ta beraren bitartez gauzak, egipenak, oldozpenak, jokatzeko erak, asmoak eta abaŕ, alkaŕetik bereizten ditugu ta beren artean dagoen edo egon diteken ezberdintasuna atematen dugu. Gauzai buruz eta aipatu ditugun gogai guzti oyekiko erabiĺi diteke irizmena, ondo ezgutzeko ta nola ikusten ditugun oldozteko edo esateko, ta oŕela gure iritziak eratzeko edo jakin-eraztek o ere.

Noski, irizmena gure baitan ari da bakaŕik, guregan agertzeko eziña dalarik; gogoari dagokio, alegia, bete-betean gogoari. Ezer al da gure adimenari buruz?, bayetz erantzun beaŕ da, baña adimenetik at irizmena ari diteke. Ezer ote oldozmenari buruz?, bayetz ere erantzuteko, baña oldozmenetik at begiratzeko be; ta orobat esateko beste gure almenai buruz.

Orduan, irizmena egiazko beste almen bat bezela onarttu beaŕ dugu, gure baitan ari dan almen berezia, bere jokera bedegaŕa duena ta berez berezkoa dana. Itz batean, gure gogoaren beste almen guztien artean, beste bat bezela, azke ari dana. Alakotz, berarenak diran bere izakera ta bere jokaera, aŕetaz, aztertu beaŕ dira.

Bere izakera dala-ta, zer eta nolakoa dan ondo ikusi ta begiratu beaŕ dugu, ala beaŕik. Zer ote dan len esan dugu, gure baitan bizi dan almen bat. Nolakoa ote dan ikustea ez edo zaigu eŕaz egitea; gauza bati edo notin bati edo egipen edo asmo bati buruz gure iritzia izateko edo eratzeko ezinbesteko bidea bezela edo da irizmena; oŕengatik asi dugu gure lantxo au, irizmena iriztearen almena dala esaten. Eta

iritzi au emen esan beaŕ dugunaren oñaŕia bezela artu dezakegula uste dugu.

Almen aske bat izanaŕen berezkoa zayo adimenarekin edo oldozmenarekin aŕemanetan ari-izatea. Jakiña, iritzi bat izateko, beaŕezkoa dala dirudi oldozmenak jardutea ta guztiz eziña da oldozmenik izatea adimenak jokatzen ezpadu; beraz, beaŕa zayo irizmenari beste bi almen oyekin aŕemanetan ari-izatea, jokatzeko bideak bezela beñepein.

Bidezkoa dugu, eiki, gizonak notiñen edo gauzaen izakera, egokera ta ari-izatea nolakoak diran ikustea ta jakitea, ta zergatik burutzen diran eta esakun eta egipenetan dagoena ona ala txaŕa, egoki ala ez egokia ote dan begiratzea, ta oŕi buruz norberaren ustea eratzea. Noski, ori egiteko iñoiz ez dira gizonak batera etoŕi, ta bakoitzak bere ustea edo bere iritzia izan du beti, ta oŕi egiteko, jakiña, norberaren irizmena da guzia zuzentzen duena; beraz, nolako irizmena alako iritzia, alako ustea.

Iritziak edo usteak ez dira berdin guztien baitan, eta eskiertasunez esan dezakegu: zenbat irizmen ainbat iritzi, orixe baita gizonen artean gertatu ta gertatzen dana; eta ortik edo datoz eztabaidak, boŕokak, ezin ikusiak eta, zoritxaŕez, goŕotoa be. Ortan ikusi beaŕ, alegia, irizmenaren gaŕantzia, irizmena agertzen baita beste zera guzti oyen asiera edo iturburu bezela.

Guztiok geron irizmena berezia euki nai dugu ta bakoitzak besteen iritziak, berarena danaren bitartez, onartu ala ez erabakitzen dugu. Geyenentzat orixe da eguneroko jokera ta ez bide da eŕaz besteen irizmenai men egitea. Ortan bakoitzak epaiĺe ta eragiĺea izatea nai du.

Geyenetan norbera bere irizmenari atxikita dago gogoŕ; eta besteai buruz saŕi au esaten eta entzuten da: au, ori ala ura irizmen onekoa da, edo: onek, oŕek ala arek irizmenik eztuela maiz ere esaten eta entzuten da. Bai ta oŕen antzera beste asmo edo uste auek agertzen dira: Ori irizmen gutxikoa da, ala oŕen irizmena zoŕotza da oso. Alegia, iritziak eratzean okeŕ ere egin diteke gogo onez ari-izatean be; edozertarako bezela ontarako be okeŕ egitea ain bidezkoa baita.



Asieran esan dugunez, irizmena naiz eta adimena ta oldozmenari buruz zerbait dala izan, oyetatik at ere yardun diteke yarein; izan baititeke adimen ona duen nork edo nork irizmenik ez izatea edo areri men edo indaŕaren galgan ez egotea; bai ta adimen gutxikoa dana irizmen onaren jabe izatea be; ta orobat esan dezakegu oldozmenari buruz ere; baña askotan bai, bi men oyekiko kidetasunean edo ari dala begira dezakegu, geyago ala gutxiago, eiki. Edonolaz beti izango dugu irizmena bera dan bezela ta bere neuŕian barna edatzen eta yarduten.

Egoki ta beaŕa zaigu, ziñez, gizonai, geron irizmena nolakoa dan ezagutzea, beraren eskeŕ guzia aztertu ta arazo edo ikustekoa dana ongienik ateman al-izateko. Bidezkoa ta beaŕezkoa da, enurarik gabe, azterlea norabide onenean ibiltzea; guztiz lagun ona izango da irizmena, oro ongienik ikusteko ta bere yardunetan era egokienaz jokatzeko, ari-izan dediñarentzat beti. Ori ezinbestekoa dala dirudi, ta oŕengatik bete-betean esan dezakegu: Irizmen ona, ondorio ona orotan.

Zergatik ote da ain zaĺa bi notiñen iritziak batera etortzea?; ta bi notiñenak bakaŕik oŕela baldin badira, zer esan beaŕ dugu askorenak izan ezkero? Bidezkotzat artu beaŕ edo dugu iritzi guziak ezberdiñak izatea, naiz gai bati buruzkoak izan naiz anitzekiko. Obe edo oŕela izatea be, oŕelaxe agertzen baita gizonen adimenak eta oldozmenak ere berdiñak ez izatea, ta ezberdintasun ortan ikus diteke oyei buruz gizonengan dagoen aberastasun aundia, biziarekiko oŕela ain egokiro agertzean.

Bere iritzia ematen ongi adierazten du gizonak berarengan dagoen nortasun berezia, ta iritzia sakonagoa izatean gizonaren nortasuna be nabariago agertzeko, aintzakotzat be aundiagoa izateko. Ta iritzia ematen bere duintasuna be

ageŕerazi al-izango du gizonak. Beraz, irizmena gizonarentzat barnean daraman izakera egokienik ageŕerazteko bide ona izan beaŕ beti, ongi ta aŕetaz zaindu ta erabili beaŕ-izango duen bidea.

Berez bizi diteke irizmena gizonaren baitan; baña buru-lanaren bidez ere lortu diteke irizmena eukitzea, bai ta lendik zegoena obetzea be. Buruz egin diteken lanari eskeŕ ortaraño eldu diteke; bai ta era berean guzion baitan bizi diran beste almenak ere. Oŕengatik egokia izango zaigu beti buruaren bidez eten gabe yardutea. Oŕa, arean, gizonen baitan ikus diteken bizi ontan jokatzeko almen orokaŕa ta berezia, gizona nor dala egiztatzeko.

Gure barneko almen guztien artean irizmenarena dugu gorapaitzeko bereziki. Aundia dala berealaxe atemateko, ta oŕela beste izaki guztien artean, gizona nola dagoen goratua argi ikusteko ere. Bide egokia oso, irizmenarena, norbera bere nortasunean bere gaŕantzi guztiaz ari-izateko ta aurkezteko ere.

Obea ala txaŕagoa, guztiok dugun gure baitan berez eratzen dan irizmena; baña irizmen ori obetu diteke ezagumenak lortzen ditugun arauz. Noski, ezagumenak gero ta aundiagoak izan, oñaŕi aundiagoa ere beren bitartez izakiak eta gertapenak eta egipenak obeto ikusteko ta beren beŕia be zabalagoa izateko. Alakotz, irizmenaren almena aldatu diteke bizian barna, obe ta egokiagoa izateko, ta bakoitzarena besteenarekin erkatzeko be, ta, apika, guzienak gero ta berdiñagoak izatera eltzeko ere, ta oŕela ororen bizia obeto be egiteko.

Oŕa bada irizmena gizonentzako laguntza aundia izatera eldu ditekela; oŕengatik, on eta egokia izan ditekela ororentzat. Oŕa ere ondorioz bere gaŕantzi aundia.



## XXXI. ERIOTZA

Eriotza biziaren amaya dala esango bagenu, ezin izpidean gagozela ukatu, egi-egia baita bizia eriotzean amaitzen dala. Baña eriotza askoz geyago dalakoan gagoz; eta zein bizia ote da eriotzean amaitzen dana?, galdetu dezakegu, guregan bizi bat dagoelako ta gure baitan beste bat, naiz eta eriotza eldu baño lenago bat bakaŕa dirala irudi, ain alkarturik baitagoz biak gure izakian.

Bai, enurarik ez, egitan bizi bat dago gure soñean, guregan; eta beste bat gure gogoan, gure baitan; bi bizi oyek ondo alkartuta, bat lez agertzen zaizkigu giza-izatean, soña ta gogoa guztiz alkarturik dagozen artean. Gizonarentzat gaŕantzi aundienekoa, noski, alkartze ori izatea, bere nortasunerako oso beaŕa zayolako. Eta nola egin da alkartze ori?, nola dirau eriotza eldu arte? Oŕa oŕ, geron gardiz, gizonarentzat ezkutuki aundia, ondo argitzeko eziña edo dana. Oŕa biziaren eta eriotzaren berbera ote dan ezkutuki aundia.

Diñogunez, eriotzean, gogo ta soñaren alkartasunak, batasunak, eten dagi, bi izaki oyek alkaŕengandik at geratzen dira ezinbestekoan; bigaŕena —ongi dakigu— luŕera doa, bertan azkenez autsa biurturik geratzeko, berak zeuzkan almen guztiak zearo galduta, bizirik gabe alegia, gorpu. Bein-betiko ezerezturik?, oŕela dirudi, bera zan guztia, il ondoren, auts baño besterik ezpaita, ezer ez. Ala ere, siñisten dugunok ba-dakigu pizte orokaŕaren egunean, soin guztiak bizian izan ziran bezelaxe berpizturik izango dirala ta beŕiro ez iltzeko. Oŕa gizonarentzat beste ezkutuki aundia, ulergaitza benetan guretzat.

Eta gogoa, bizirik jaŕaitzean, nora doakigu?; eta berare-

nak ziran doayak: adimen, adin, oldozmen, adin-antze ta abaŕ? Berarekin doazela, eiki, guzti oyek gogotik at eziñak diralako. Beraz, gogoa ta bere baitan dagoen guzia, ezin eriotza ezagutu, bizirik dagoz bein-betiko, il̃ezkoŕak izanez, betikoak benetan. Eta nora doakigu gogo ori, galdetu dugu len; oŕa beste ezkutuki aundia, siñismenak bakaŕik argitzen diguna. Yainkoa'rengana zuzen, onen erabakiaren zai urduri; epaitu ondoren artuko dan erabaki lazgaŕiaren begira, betikoa ta alda eziña izango dan erabakia; gelgaŕi ta izugaŕi batera. Eta aragia, piztu ondoren, berarekin, beŕiz eta betiko, alkartzeko. Nola baña guzti ori?, nolako ezkutuki aundia guzti ortan?

Nolanai ere, eriotza, soñaren eriotza alegia, zigoŕ ikaragaŕia dirudi; soñak bizi guzian izan duen lagun zintzoena galtzen du zearo iltzen danean; eta gogoa, soñaren eusle on eta bakaŕa dana, soñagandik aldentzen danean, bakaŕ-bakaŕik geratzen da soña, ezer egin eziñean, bere burua zutik egoteko be al-izan gabe; oŕa deitoragaŕia dan egokera; jausita, igitu al-izan gabe, bizia diteken apurtxo txikiena gozatu eziñean, ots, zearo gorpu; orixe baita, egitan, gorpu izatea, bizirik gabe geratzea oso; oŕa aŕ lezaken zigoŕik aundiena bezela, egitan zigoŕa soñarentzat benetako zigoŕa baldin bada.

Guztiz auengaŕia soñari eldu zayon egokera; bizirik zegoenean aŕo ta andinayetan zebil̃en beti Ludi'an barna, luŕaren nagusia bezela bere burua ikusten; nai zuena erabakitzen, noranai ibiltzen, naimena beti betetzean, nor ni aña usten eta esaten ere. Ta bat-batean guzti ori bera, al-izatea ezin-izatea biurturik; len ororen jaun eta jabe, ta orain, il ondoren, jopua baño gutxiago, ezer ezean biurturik, ezertarako ezer ez.

Oŕeraño eldu beaŕ duela gogoratzean, ezuŕetaraño daŕ-daŕ egitea dagokiola bizidunari eiki; nola baña?, osasuntsua naizen au, adimenez eta adoretsua oso nagoelarik, eta guzia galdu beaŕ?, guzia utzi beaŕ?



Gizonaren bizia gure baitan eta guregan dago batera yarduten, bizia berbera izanik; eta eriotza datoŕenean guregan dagoena amaitu beaŕ; gure baitan dagoena, beŕiz, ez da amaitzen gogoa iltzen eztalako. Orduan bizi bat, berbera, al da bietan, gure baitan eta guregan, ari dana?; ala bi biziak, bizi ezbardiñak, ote dira bi oyetan dagozenak, bakoitza berean? Geron ustez bizi bat bakaŕa dugu gizakiok, gu geran guziraño edatua, gogo ta soñaren izaeran, izaera osoan yarduten. Orduan zergatik eta nola eriotza eltzen danean, bi oyetako batean amaitzen da ta bestean irauten eta jaŕaitzen? Ez da ori ondo ta bereala ulertzen, eta ba-dirudi gertakera ortan guretzako ezkutuki aundia edo dagoelarik.

Eriotza eltzen danean soñaren bizia amaitzen da noski; ta soñaren zentzuak eta ibilbidea dan guziak, beren almenak oro galtzen dituzte zearo; begiek ez dute gero ezer ikusten ez eta adikiñek entzuten, ez eta oñak ibiltzen, ez eta oŕela beste guziak be; geldirik geratzen da soña dan oro. Gogoa, ordea, ibilbidea bezela jaŕaitzen da bere biziaz, Yainkoa'k erabakita, berari dagokionera joateko.

Ta gogoarekin batera berarenak diran almen guztiak be: Adimena, oldozmena, gogamena, zentzumena ta abaŕ, gogoarena dan guztia; almen guzti oyek, gogoa bezela, il̃ezkoŕak diralako.

Eriotza, alakotz, lagun eta lankide onak ziran gogoa ta soña, alkaŕengandik aldentzea da; ta gogo-almenak il̃ak geratu diran soña ta zentzu ta ibilbide guziengandik alde egiten dute, bizi-legearen arauz, eta gogo ta soñaren artean zegoen alkartze aundi ta sendoa, eriotzaz, zearo apurtuta geratzen da, ezinbestekoan. Nola burutu zan alkartze ura, nola amaitzen dan ain gotoŕa zan alkartzea..., oŕa guretzat ulertzeko eziña zaigun ezkutukia.

Len esan dugunez, gizonaren bizia, gogo ta soña alkartzen dituena dugu; ta bizi baten ordez bi ez ote ditugun ere ustea bezela aipatu dugu, ortan gertatzen dana guretzat ezku-

tukia edo dalarik aitortzean. Baña naiz bat bakaŕik naiz bi izan, egitan bizia ez ote da berdin gogoan eta soñean dagoen oyen egokera, egokera oso berezia noski?, oyen egoteko era? Orduan bidezkoagoa dirudi bi egokera izatea, bata gogoarena ta bestea soñarena; ta oŕela baldin bada, nolabait ulertzen da eriotzean gertatzen dana: gogoaren egokera ezertan aldatzen eztalako, gogoan bertan jaŕaitzen da, bizia gogoan betirako irautean; baña soñaren egokera zearo aldatzen dalako, bizi zan soñak zeukana, bizi ez danaren egokeraz aldatzen da, gorpuarena biurturik ain zuzen. Alakotz, il baño lenago bizi bat bakaŕik bezela agertzen bada, eriotzean bi edo zirala ikusi beaŕ; bat, gogoarenak irauten duena, ta bestea, soñarena, zearo aldaturik ikusteko. Oŕela, eriotza soñarena bakaŕik bezela onartu beaŕ dugu, agian.

Beste aldetik eriotza beaŕa bezela agertzen zaigu, beste bizira igarotzeko ate edo bidea bezela; baña eriotzean gogoa da bakaŕik igarotze ori egiten duena; ez, noski, soña, gorpu bat biurturik luŕean geratzen dalako, ta luŕ azpian eortzita izaten baita. Ezinbestekoa da, alegia, eriotza, bizi-aldatze ori egin al-izateko, gogoarentzat bide bakaŕa dana; ez dago guztientzat beste biderik, eta oŕengatik guztiok eriotza gogo onez onartu beaŕ dugula dirudi; baña, ongi dakigunez, iñork eztu ontzat artzen eriotza; zergatik?, gure siñismena txikia dalako?, Ludi-bizia edeŕ zaigulako?, eriotza, beti gizonen artean, gauza txaŕ bat edo zigoŕa bezela betidanik begiratzen dalako? Nork esan!, dana dala iñork eztu nai il; guztiok alegiñak egiten ditugu eriotzaraño alik eta beranduenik eltzeko; guztiontzat emengo bizia ona ta naikotzat artzen edo dalarik.

Siñismenik gabe, batez ere, ulergaitza oso guztientzat eriotza, ta benetan oŕ ere gizonarentzat ezkutuki aundia bezela onartzeko.



## XXXII. LERA

Zer ulertu dezakegu LERA itzaz? Diñotenez lera gure baitan izan dezakegun gurari bizi-bizia edo da; norbaitenganako edo zerbaiterako ayeŕ aundia ere; baña bai ta soñean be sortu diteken noribait buruz edo gauzaetarako be gogoaundia ta ayeŕa gotoŕa.

Gogo-lera izan diteke bai ta soin-lera ere; lera ona ta lera txaŕa be. Lera, berez, ez da gauza txaŕa, ta ona ala txaŕa izateko, bera erabiltzean eta nori ala zeri buruz izatean ikusi beaŕ da. Beraz, lera soilki begiratzean ontzat artu beaŕ dugu erabat; eta argi dago, oŕengatik, gertaera bakoitzean nola agertzen dan ikustea ezinbestekoa zaigula, ziñez, onartzeko ala astantzeko.

Edozein eraz, lera alde guztietan eta arazo edo iritzi bakoitzean agertzen da; egitan gizonagan edo bere baitan azaltzen da bereziki ta beti, arazo ta iritzia edozein izan. Alakotz, gizonaren baitan izan ditezken onbide edo gaizpideak bezela begiratu beaŕ da. Ezin esan diteke lera onbidea dala edo izan ditekela, ez eta gaizpidea ere; nola, beraz, esan dezakegu lera zer dan?, gogoaren edo soñaren igidura bat?; bai apika, baña edozein eraz, naiz gure baitan naiz gure soñean gogoŕ eta luzaro eragiĺe bezela azaltzen dala.

Eta beti gizonak bere lerak zuzenduta ari beaŕ duela onartzekoa da, oŕelaxe baita; onela, bidezkoa da, maiz entzuten danez, gizona lerak menperatuta izaten dala onartzea, egiazko jopua bezela askotan. Noski, gizonak egokera ortatik at bere burua eukitzea nai du, baña saŕi ori oso zaĺa izaten zayo, benetan edozein lera indartsua dalako, oso indartsua. Oŕengatik azke egotea nai duen gizonak eta eŕaz sortu da-

kizkioten lerak alkařekiko guda gogořean ari beař du, ortan gizona beti garaiļe bezela irten ezin ditekelarik.

Ba-du gařantzia, beraz, lera gizonaren bizian, eta zaļa edo da lerak jasan ez dituen gizon bat ere aurkitzea. Bai, lerak gogoř eta indařez eragiten du gizonen bizian, batzuetan ondo baña besteetan, geyenetan, gaizki oso, ta gizona, maiz, bere leraen jopua da zearo. Zoritxař aundia ořela izatera eltzen dan gizonarentzat.

Eresiaren lera izan diteke gizon batzuengan, eta beste ertien lera berdin; kiroletan berdin ere eta ibiļaldietan eta gizonen beste amaika eginkizunetan be. Ezin esan diteke lera oyek txařak dirala, naiz eta batzuetan, neuři aundiegian gertatzen badira ere. Alakotz, auxe esan edo genezake ziñez: leraetan bertan ezin ikusi ditekela gauza on ala txařa dagoela, ta nolakotasun ori, obeto, lera zein egipenari dagokiola begiratu beař dugu bat ala bestea dala esateko, ta azkenez zera oyetan bakařik dago on ala txařa izatea, leraz ari-izan edo ez izan.

Lerai buruz ari-izatean, batzuk gogo-lerak dirala esan dezakegu ziñez, beste batzuk, beřiz, soin-lerak. Lenengoak onbide naiz gaizpideekin agertzen dira geyenetan; onbide--lagunak, onbidea agertzeagatik, onak izateko; bigařenak, gaizpideagatik, beti txařak. Beste gogo-lerak be izan ditezke, e.b. ertiari buruz sortzen diranak; auek, geyenetan eta geikerietan yarduten ezpada, onak bezela onartu ditezke. Bigařenak, soin-lerak, soiñeko bost zentzuen ondorioak bezela ař ditzakegu ta geyenetan txařak dirala esan beař benetan; apika, zentzu batetik sortuařen, neuřiduna agertzen bada ona bezela ař diteke, alegia. Geyen-geyenetan, lera bakoitza da, ona ala txařa dan esateko, ongi begiratu ta aztertu beař dana.

Lerak, naiz gugan naiz gure baitan, bietan izan ezkero berdin, geyago ala gutxiago, indař aundikoak dira, gizonaren jokera gogoř, eta batzuetan gogořegi, eragiteko. Eta gizonak leraen auřean amor egiten dute maiz, eta askotan lerak eta



beren aurkakoak alkařen artean bořoka aundienaz jokatzen dute isituki, ta joko ortan ageri diteke gizonaren izaera nolakoa dan; zoritxařekoa ortan amor-egitea nayago duena; zorionduna, aitzitik, gurenda lortzen duena. Alakotz, beti azaldu ditezke lerak, gizonak nolakoak diran adierazteko.

Berez sortzen zaizkie lerak gizonai, naiz eta askotan egipen edo jazokun batzuk eragiñak izan; baña zerbaitek eragin ala ezerk eragin gabe, beti lerak gizonarengandik edo bere baitetik sortu beař. Beraz, lerak ez dira iñun ez iñoiz egiten, ez eratzen, ez antolatzen ere; beti norbaitengandik sortzen dira, zioak noiz edo noiz aundi ta ugari izanařen. Bein lera bat sortu ezkero, ez da berealaxe ezabatzen; indař aundiaz sortzen dala dirudi ta, ořela, iraunkořa egiten da saři; ta nai-izanařen ez da eřaz gizonarentzat ořen jokera gañeratu, ta gaitz erdi gizonarentzat bere jopua biurturik geratzen ezpada, auxe gertatzea ařitzekorik izango ezpaita.

Eta deitoragařia gizonarentzat ořelako jopua izatera eltzea, ezinbestekoa izango zayo edonori, edozein leraren auřean asieratik gogoř egitea, lerak indařa artu baño lenago aurka ta bipilki jokatzean azaltzea. Baña zerbait amor-egin ezkero, gero ta zaļagoa izango zayo edonori bere buruaren jaun eta jabe izatea, ondatuta geratzea izango zayo baitezpadakoa, zoritxařez.

Leraen indařa gizonaren gaztezaroan agertzen da bereziki, ta eraginkořa, geyenetan. Zergatik ote?, ustekoa da gizonak gaztezaroan ipiñi ta erabil ditzakela bere almen eta kemen guztiak sendoenik edozein arazoan ari-izateko; ořengatik edo, lerak yarduteko bideak zabal eta ugari aurkitzen ditu bere yoran guztiak atemateko ta betetzeko; ta bere bizi guzian eziña izango zayo jokatzeko aukera obeak aurkitzea. Ori dala-ta, askoz bidezkoa izan beař berarentzat gaztezaroaren aldia, kezkarik gabe ta azke ibiltzeko, ta ořelaxe lerak jařaitzea askoz eřazagoa dala dirudi.

Beařa izan beař, ořengatik, edonorentzat leraen pean ez

geratzeko, alegin aundienak egitea, bere buruaren jokera txafak aurka bipilki ta kementsu ari-izatean eta jokera oyek zearo ezitzeko egiñal aundienak betetzea. Alaz ere, zaĩa izango zayo edonori ortan bereala garaiĩea irtetea; apika, ortan edo dago gizonaren bizia ongi eramateko, eragozpen aundienetakoa, ta berarengandik sortzen zayolako ortan ikusi beaŕ zailtasun aundiena.

Buŕuka aundi-aundia ori, aundiena edo gizonarentzat, ain zuzen bere buruaren aurka jokatu beaŕ duelako; jokatzean bere burua izango zayo menperatu beaŕ duena, ta kemena izan beaŕ buŕuka ortan sartzeko; guztiz argi ikusi beaŕ-izango zayo auŕetik ori berarentzat bide oberena dalarik. Alakotz, adimenak yardun beaŕ du lendabizi arazoa argi ta garbi ikusteko, ta naimenak ari beaŕ-izango du gero, lerak beaŕ dan bezela menperatzeko.

Lerak menperatzea edonorentzat eta beti izango da zaĩa; oŕengatik ez da aŕitzeko esandako buŕuka ortan garaiĩe gutxi ikustea. Ta lerak zuzentzen dituzte geyenetan gizonen jokerak, eta Eŕi'enak be, ondorioz oyen pean bizi beaŕ-izateko, zoritxaŕez. Gizonarentzat bezela, gizadiarentzat ere, auxe gizonen multzoa izanik, ortan ebazkizun gotoŕa, gañeratzeko oso zaĩa dana. Ebazkizuna berez zuzentzeko ain zaĩa dalarik, ez bide da geroko batean ongi burutzeko, ta ustekoa da bizian barna oŕela jaŕaituko dala. Alarik ere, azitasunean ori beti gai oso gaŕantzitsua izateko ta aŕeta aundienaz erabiĩi beaŕ-izango dana; ba-dute oŕ irakasle ta azleak nun gogo bizienaz jokatu beaŕ duten.



## XXXIII. GOGAPEA

Zer ote da Gogapea? Gure barnean, gure baitan noski, gizon guziok dugun almen berezi bat; eta almen oŕen bidez eta eskeŕ, ona eta gaitzaren ezagumena egokiro lortzen dugu. Batez ere geuk dagiguna on ala gaitza ote dan ondo ezagutzeko bide egokia da.

Bizian barna gizona ari da beti zerbait egitean; batzuetan buruz, besteetan burua erabiĩi gabe; noizpait zentzunez eta noizpait ere ero bezela, zoro-moro. Ta egipena burutzen dan bitartean edo zearo burutu ondoren, ara noiz sortzen dan gogapea egindakoa ona ala txaŕa ote dan ikusteko. Oŕela, gizonaren egipenen epaiĩea bezela ari dala esan genezake; ta gizon bakoitzak du bere epaiĩe ori, bere gogape ori.

Gogapea geron baitan dagoelarik, bertan dagoen beste menekin aŕemanen bat duela edo ukan dezakela bidezkoa dala dirudi. Adimenarekin batez ere beaŕezkoa dala esan dezakegu; jakiña zeredozer epaitzeko, zer ori nolakoa dan jakitea ezinbestekoa bezela onartu beaŕ edo da, ta ezagupen ori eukitzea adimenari dagokiola nola ukatu? Oŕengatik gauzaen ezagupena adimenaren bitartez edo dauka gogapeak.

Beste men batzuk be ezagupen ori lortzeko, geyago ala gutxiago, jokatu bide dezakete: oldozmena, zentzumena, ezagumena, irudimena, adin-antze, oarmena; guzti oyek bederen, bakoitza berari dagokion baranoan, eiki; baña ustekoa da guziek laguntzen edo dutela gogapearen ari-izatean; ustekoa be ba-dala, gañera, almen guzti oyen artean alkartasun egokia izan ditekela, eta guziak gogapearekin, esan dugunez.

Ongi ta zuzen jokatzen duen gizon bati buruz, gogape--gizona dala esaten da askotan; ari-izateko, bere gogape-az-

pian egotean jokatzen duelako. Oŕ gizadiaren onurako izango litzakela ikus edo diteke, gizon geyenak bederik oŕelaxe izan balediz. Bide oso egokia, gizon guztian aŕemanetan barna ondo ibiltzeko, ta beren artean gentza jartzeko ta sendotzeko ere.

«Gogapeari dagokion auzia da ori» saŕi entzuten da, arazoa edozein izan; ta oŕela mintzatzean argi agertzen da guzien aldetik gogapeari ematen zayon gaŕantzia, gogapetik gora edo ez dalakoan, eta gogapea erabakitzeko bide onena bezela onartuz; esakun ori edonork aipatzean ere, aipatze ori oŕen saŕitan egiten dalarik, oŕek adierazten du ondoenik nolako zabala dan gogapearen asmoa guztien iritzian oso goratua bezela dagoela.

Gogape ona ta gogape txaŕa ere ba edo dagoela, ororen aldetik onartutako asmoa agertzen da nun-nai, ta guztien ala geyenen ustean ikustekoa da. Baña gogapea, berez, ez bide da ona ez eta txaŕa be; on eta txaŕ izenondoak bakoitzaren jokerari dagozkio bakaŕik, eta ala izanik, ustekoa edo da, naimenak edo menak edo egokitasunak edo lerak gogapea eragin dezaketela, berak baño indaŕ aundiagoa erakustean, eta menekoa bezela eŕaz erabiltzen dutelarik; dana dala eziña dirudi gogapea aintzakotzat ez artzea, beti berez jokatu edo dezakelako.

Bai, amaika bideŕ ikusten da gogapea jokatzean. E.b.: Txaŕa dan zerbait edonork egiten badu, gero, gogapeak eragiten duelarik, damua sortzen da maiz gaizki egindakoa gogoratzean, eta bera nolabait ordaintzeko gogoa soŕerazten. Auxe aipatzen edo da azleen artean beren ikasleak bide ortatik eramateko nayean, urte gutxiko auŕen baitan asmo oŕi gaŕantzi oso aundia eman dakiokelako; ta azle ta irakasleak ere auŕai gogapearen artxoaz itzegiten diete maiz.

Guztiek eta orotarako onartuta dago gogapea izatea, bai ta ondoriozko bere eragipena; ta ez da eŕaz bereizten gogapearen izatea alde batetik eta bere eragipena bestetik, biak



oso alkarturik bezela baizik. Alakotz, gogapea baldin bada, bereziki eragiteko bizi dala dirudi; ezin onartu, oŕengatik, gogapea geldirik dagoen gauza bat bezela izatea, ta aitzitik ari-izatekoa dugu bera dan guztia. Bai, eragitean eta egitean ikustekoa, ziñez, gogapea.

Aintzakotzat artzeko, egiz, naiz gogapea bera naiz bere izatearen ondorioa dan bere eragipena be; ta bertan dagoen gizonaren biziari buruz duen bere gaŕantzi aundia ere; oso nabari agertzen zaigu gaŕantzi ori, ta ezinbestekoa bezela ikusi beaŕ, guztien aldetik, nolakoa dan gaŕantzi ori, gizonaren bizian oŕen gogoŕ eta sakon erabiltzeko dugularik.

Norberaren gogapea oartzeko dugu lendabizi; baña, gero, talde baten gogapea ere izan diteke, eta bazkun batena, eŕi batena, endeŕi batena ta gizarte osoarena ta ororena be, ots, gizadiarena. Azpegi guztietarako agertzen da gogapea, berez eta bereala ta edonorengan ere; beraz, orotarako, neuŕi zabalean, eta gizon guztien bizirako, jokatzeko bide sendo ta edeŕ zayelarik; esan dezagun beŕiro, gogape ona izatekotan. Oŕengatik, oŕa lenengo ikastolan ezagun-erazi beaŕ dala gogapea zer dan eta zertarako dan bidea, bide ona jakiña; irakasle ta azle guztientzat beren jokabiderako ezinbestekoa bezela agertzen dana.

Jakiña, gogapea on eta zuzena izatekotan artzekoa dugu; ta bein oŕela arturik izan, beaŕezkoena izango da guztientzat bere auŕean men egitea, bere norabidea onartzean eta berak eman dizaiguten bidean barna zintzotasun osoaz ari-izateko. Ezin zalantzik izan, ezin meko-mekoka ibil̄i, ezinbestekoa izango baita edonorentzat erabat eta bete-betean onartzea. Ezin gogapean mal̄ak ikustea; ta gogapea, bizian barna ari-izateko, oso-osorik artu beaŕ da, ta enurarik gabe beti.

Gogapea, bizirako, norabide sendoa bezela ere onartzekoa da, ez itzez bakaŕik, arean, egipenez baizik. Ez eta arazo au edo beste ari buruz erabiltzeko, arazo guztietarako ta norberaren bizi osorako baño. Oŕela dugu gogapea, aintzakotzat

artzeko izan dedila, gogo ta biotzez eta naimen osoaz artzean eman dizaiguke gogapeak bere laguntza egoki ta beara. Ezin zatituta ikusi gogapea, bere osotasunean baizik.

Asieran ez edo du iñork gogapea orela ikusi, ta begiratzeko dagoela, gogapea danik ere, ongi ta bear dan bezela ikusteko gai edo eztalako. Baña, gero, adiñez aureratzean obea dan neurian, argiago ta garbiago ikusten da, geyenetan, bai gogapea dala ta guztion aldetik onartzekoa dugula, norberaren bizirako bide egokiena edo zaigula, guziok gure bizia ondo zuzentzeko, ta bizian barna ondo ta egokiro ari-izateko bide onena. Ta ortarako ez da bearik asko ikasi ta asko jakin, bakoitzak bere barneari begiramen zintzoa egitea izango da beti naikoa. Zentzunezko joko egokia aski izango da, bai, beti ta guziontzat egiteko, betidanik ona izan dana ta betidaño ere orela izateko, gure laguntza onena bezela ari-izateko be.

Aipatutako guzia itz laburetan esateko, auxe da eran genezakena: Gogapea egipen eta jokera guzien oñaria, ta oñari gotora, artzekoa dala, ots, egipen eta jokerak onak eta egokiak izan ezkero, gogapeaz eraginda ta zuzenduta izan bear dirala. Ta beste itzen bidez asmoa bera adierazteko, gizonen bizia gogapearen arauz egiña izan bear dala, gizonari dagokionez; eta bere nortasuna ta bere duintasunari egokiro eusteko, gizon guztien aldetik norabidetzat artzean.

Gure doai aundia bezela ikusteko dugu gogapea, gure biziaren barna lagun egokiena izan ditekena, gure urats eta egipen guztiak bear dan lez eta eskierki eman al ditzakegun beti. Ta auxe geratzen zaigu bakarik laguntza ori ongi ustiatzeko, berari erantzutean zintzotasunez beterik yardutea, onena izango zaigula entzinduta.



## XXXIV. KORDAMENA TA KONORMENA

### Gogoan: Gure baitan Soiñean: Guregan

Kordamen eta konormena; oartu, oartzea. Ora zentzundunek dauzkaten almenak. Gauzak, itzak, asmoak, egipenak, jokerak, geron baitan eta guregan ere oartzen ditugu, ta oartzearen bidez oro atematen dugu.

Kordamen eta konormenak oartzeko bide egokiak bezela begiratu bear ditugu, ezinbestekoak diran bideak. Lenengoak gure baitan sortzen dan zentzumena izatean betetzen du egokiro; bigarenak guregan egiten dan konorpena berdin.

Biak sorerazten edo eragiten digute oarpena; baña oarpen au bi motazkoa dugu: bat gure baitan sortzean eta bestea guregan berdin; beraz bi oarpen izaten ditugula ere esan dezakegu, alkaren antzekoak biak, baña gauza bat, gauza berbera izan gabe; ta bakoitza nun gertatzen danez ari izateko, ta ondo ulertzeko be. Bear-bearezkoa zaigu arazo au, guzirako, orelaxe begiratzea, ezinbestekoa baita.

Kordamena gure baitan ari da jokatzen, bertan zentzumena sorerazten, eta zentzumenak amaikatxo norberarengan, guziongan, ortxe, gure baitan, atsegiña ta atsekabea emateko. Kordamenaren jokera, beraz, era askotan yarduten duelarik, eta orela argi ikusten da gure baitan dugun aunitz azpegietako gogo-jokerak, ugari benetan.

Konormenak, ordea, konorteen bitartez, gugan jokatzen du, konorpenak sorerazten, gugan ere eragitean. Soñari dagokio, zuzen, konormena bete-betean eta gure soñean oartzen ditugu bere ondorioak, konorpenak deitzen ditugunak. Eta orela agertzen da, argi, kordamen eta konormen artean da-

goen ezberdintasuna: lenengoa gogoarena da bakarik eta bestea soñarena, bakarik ere. Eta egipen bi oyetan antza aundia ikus diteke, antza bakarik be, ezin oyen artean besterik izan.

Konormena abereengan ere gertatzen da, auengan gizonarengan bezela konorpen eta konorteak be izaten diralarik, beren soñean oartzen dituztenak. Ezin, ordea, oyengan kordamenik izatea, gogorik ez dutelako. Ba-dirudi landareetan be, nolabait, konormena dagoela, batean bederik, pasiño-lora edo pasio-lore edo pasione-lili deitzen dan landarean; bere izenak bederen ori adierazten bide du. Eta beste landareetan orelakorik bai?; ezin ezetza osoa eman, ba-liteke, baña ezin, geron gardiz, bayetza onartu. Alarik ere, landaren bat apurtzen edo ebagiten bada, geroxeago usteltzen da, ta usteltzean jasandako konorpen baten ondorioa bezela edo ar genezake bearbada.

Gizonaren baitan eta gizonagan agertzen dira ondoenik kordamena eta konormena, zentzumenak eta konorpenak burutzean, biak itz batean, oarpena, alkartu ditezkenak eta gizonari bakarik dagozkionak; beraz, ontan be, gizonaren garaipena izadiko beste izaki guztietatik goratua ikus dezakeguna, izaki guzti oyen artean nagusia dala ere egiztatzean, izakera berezienaz. Orelaxe begiratu bear dugu izadiaren kiri sendo ta goresgarian.

Sorayodura ta kordegabetasuna ditugu kordamena peitzean, gizonaren baitan agertzen diran oren aurkakoak bezela; ta berebat, sorgortasun eta sorgora konormenari buruz, bikote biak tartekidetasunean azaltzean, alkari erkatzekoak lez. Sorayodura berez sortu diteke ta gure baitan izan ditezken gertapen batzuen ondorioa bezela, eiki, zentzuna bere bidezko bideetatik ateratzen danean; baña zergatik atera diteke zentzuna on eta oiturazko bide oyetatik?, zergatik aldatu diteke bere jokera egokietatik?; amaika edo ortarako egon ditezken zioak, geron baitan jasan ditzakegun ezbearak, al-



dakuntzak, nekeak, eritasunak ere ta abar, guziak sorayodura sor dezaketen zioak, beraz adimenetik at gerta ditezkenak.

Kordegabetasuna, ordea, ezta berez gertatzen, beti geron baitan gure eruz izan ditezken onak eztiran kari batzuengatik baño. Orduan zentzuna guztiz aula bezela geratzen da, beara dan egipenerako indarik gabe, eri edo; baña geron aldetik egoki ta bearak diran eragipenak jokoan jari ez ditugulako. Ta gizonaren egokera, orduan, erukigaria agertzen da, oso bean geratzen dan egokeran. Orengatik beara izango zayo gizonari kordegabetasuna izan diteken edozein jokeraren aurka gogor egitea, asieratik orelaxe jokatzea beraren pean gera ez dedin.

Konorpena, jakiña, konorteen bitartez egiten da; ikusmen, entzumen, usaimen, txastamen, eta ikusmena diran gizonaren bost konorteen bidez; auek, ongi jokatzen dutenean, begiraleak izango bailiran ari dira gugan jo egiteko eldu diteken edozein eragipena egokiro oartzeko, ta orela konorpeña eragitean eta au konormenaren oarpen zabalean jazotakoaren beria emaile izateko. Era ontaz konormenaren izaera burutzean.

Gai-zio batzuk ageri ditezke jokera guzti ori nolabait apurtuta uzteko; orduan, aundiago edo txikiago, sorgortasuna sortu diteke, konorte bat edo batzuk edo guztiak beren lana egin eziñean geratzen diranean eta sorgortasuna notiñaren jabe egiten da. Eta sorgortasuna jasan bear duena eri geratzen da oso, bere erurik gabe ta naimenetik at beti.

Batzuetan sorgortasuna naimenez sorerazten da, sendagileek eri baten soñean ebaketa edo beste eragipena burutu bear dutenean; egipen ori sorgor deitu dezakegu ta naimenez edo bearez egiten da bakarik, bai ta, ala bearik konorpena eragitekoa izateko; beraz, berdin esan dezakegu konorpena naimenez eragin ditekela, bai aundiago ta bai txikiago ere eraginkora nolakoa dan arauz geyenetan, bai ta konorpena jasan bear duenaren minberatasuna dan neurian. Dana

dala konormena guziengan berbera dala oartu dezakegu indaŕ ezberdiñaz bada ere, ta aldatzen ez dala be ikus dezakegu.

Kordamena, aitzetik, bai, aldatu diteke; gure baitan ari dan ezkero, bertan eragipen batzuk jokatzen diran eraz. Eragipen oyek asko izan ditezke, mota batzuetakoak izatean; ikasketak eta gogo-lantzeak sakon eragin dezakete geyago ta aundiago al-izatean; bai, gogoa lantzen dan neuŕian, lantze ori zabalagoa bada aundiago egiten du norberarengan kordamena, ta oŕela aundia dala esaten da, edo guria edo zoŕotza, edo ikusgaŕia edo aipagaŕia ta abaŕ. Alakotz, bidezkoa da gutxi dakitenak kordamen gutxikoa izatea, ta asko dakitena kordamen aundia eukitzea, ta argi ikusten da kordamena beti berdin eztala; oartzekoa dugu, bai, oso zabala izan diteken bere aldaera, gure baitan burutzen dana.

Ba ote dago Eŕi baten kordamena?; ustekoa da bayetz, Eŕi bat osotzen duten notin guztien kordamena bera izatea. Jakiña Eŕi edo Endeŕi batean guztien biotzondoa bera, edo guziai dagozkien jokera, oldozmenak, betekizunak, elburuak, ebazkizunak, ... berak izan ditezke, ta adierazpen oyetan alde edo aurka izan ditezken goraberetan ororentzat soŕ diteken zentzumena bera izatea bidezkoa dala dirudi, ta ortan izan dezakegu Eŕi edo Endeŕi baten kordamena jokoan ari-izatea; alakotz, zentzun ortan Eŕi batena dan kordamena ba-dala onartzekoa da benetan.

Egitan, batena ala batzuena ageŕ diteken kordamena, beti gizonen baitan izaten dala oartu beaŕ dugu, ta ondorioaz gizona zentzunduna bezela agertzen da, izadian zentzundun bakaŕa dana; ortaz nortasuna berezi ta aundia daukala adieraztean, eta beste izaki guztien gañetik bizi ta ari dala, bere naimena erabiltzean; bai, berezi-berezia ta oso goitua ikustekoa dugu gizona izadian barna.

Noski, ikus eta esan dugunez, gizon guztien baitan kordamena azaltzen da mena bezela, baña gizon bakoitzak bere kordamen berezia daukala ere ikusi beaŕ dugu; ortxe ba-dugu



gizonen artean ezberdintasuna, baña auxe kordamena beraren zolitasunean agertzen da soiĺik, eta ezberdintasun ortan amaika lits ateman beaŕ diranak.

Dana dala, kordamenaren eskeŕ oartu dezakegu bizi ontan eta izadi ontan gertatzen diran izateak, egokeraz eta mota guziko egipenak be; beraz, ezinbestekoa dugu men au eukitzea ta bere gaŕantzia oso aundia dala onartu beaŕ dugu, gure bizirako, gure jokera guztietarako ta adimenaren laguntasunaz gure oldozpenak ere ongienik izateko ta erabiltzeko, ta oŕela gure gogo-bizia zabal-zabalik eta sakon ustiatzeko, ta naiz gure baitan bakaŕik naiz besteenganako alkartasunean egokienik ari-izateko.

Konormena ere beaŕ-beaŕa dugu eukitzeko, beraren bitartez gure soñean gerta ditezken nekeak, tanpak, zauriak, eritasunak eta abaŕ ongi oartu ditzakegulako, ta ondorioaz ezbeaŕ guztietatik ateratzeko bideak aurkitzeko ere; alakotz, men onen gaŕantzia ere gure bizirako nolako aundia dala garbi ikusi dezakegu.

Oŕa bada kordamen eta konormena gure baitan eta guregan jokerazko tartidetasunean alkarturik dauzkagula, alkaŕen antzekoak diran azpegietan ondo agertzen zaizkigula.

Ta oyetxek dira gure gogo ta gure soñaren bizirako oso on eta egokiak diran men edeŕak, bizirako lagun egokiak bezela beti jokatzen diralarik. Aintzakotzat artzeko gure aldetik gure biziari izateko zabaltasuna emateko bide egokienak, gure naimenez eta gure egokitasunez erabiltzeko ditugunak.

## XXXV. IZANIZTI

IZAN; auxe gure bizi guzirako lenengo oñaŕi sendoa, ortan baitago guziaren asiera.

Zer da IZAN?; zal̄a benetan IZAN zer dan adieraztea, naiz eta guztion aldetik ta egunero IZAN eta izateaz mintzatu; nundik datoŕ IZAN, izatea?, beste galdera bat erantzuteko zal̄a ere dana; nola sortu da IZAN, sortua izan bada?, berdin emen be, ezin erantzun. Baña ba-da IZAN, ba-da izatea, noski, ontaz enurarik ez iñorengan; orduan bai IZAN bai izateaz ari edo oldoztu, ezkutuki oso aundi baten aurean gagozela aitortu beaŕ.

Yainkoa'ren itz auek IZAN aipatzean: «Ni naizena naiz», bai, Yainkoa dana dala esan dezakegu; baña ori nola ongi ulertu?; siñisten dugu ori, bete-betean siñistu, baña ezin luertu, betidanik eta betidaño Yainkoa dana dala. Ta IZAN be betikoa dala onartu beaŕ da.

Baña ni ere ba-naiz, i ere ba-aiz, eta gizon guztiak ba-dira; berdin abereak be, ta landareak eta zomoŕoak, eta menasta ta aŕiak, eta luŕ gañean eta zabaldian dagoen guzia ere ba-da, IZAN dagoela zalantzik gabe aitortzean; alegia IZAN ba-da.

Izaneza IZAN asmoaren aurtakoa da; baña izaneza eztago, ori asmo bat baño besterik ezta; ez dagoena, ez dana, ezin zerbait dala esan; euzkeraz «ez da ezer» diñogu.

Aditz bat dugu IZAN, bere zentzun berezia duen aditza, norberaren eta gauza guztien izatea, ororen izatea adierazten duena; ontan eztago bereizterik zentzundunen eta zentzungabekoen artean, guziok izakiak gera, guziongan eta guztietan IZAN agertzen da guziok ba-gerala azaltzean; eta auxe esa-



tean bizi gerala, bakoitzaren bizi bedegaŕaz bizi gerala bayezten dugu erabat; beraz ongi oartu dezakegu IZAN bizi-izatea dala, ta egitan bizi-izatea IZAN jaŕaitzea da, enurarik ez ontaz; bizi naizela esatean, IZAN nire baitan eta niregan be dagoela adierazten dut garbiki. Oŕengatik eta asieran esan dugun lez IZAN gure biziaren oñaŕia da.

Ulertu ez, eiki, IZAN benetan zer dan eta ala ere guziok dakigu ondo IZAN ba-dala, noski, IZAN izatea gure baitan baitago ta gu geran guzia betetzean, ongi ikusi ditekenez, edonork oartu dezakenez. Gure baitan IZAN eta guregan IZAN eta orotan IZAN, orixe oñaŕia.

IZAN gauza bera da guztietan eta guzirako. Baña amaika IZAN-mota ikusteko izaki guztietan barna. Gizona dala-ta, izaera bat bere baitan eta beste bat beregan; abereak izanik beren soñean bakaŕik beren izaera berezia; orobat landareetan, berebat aŕi ta menastaetan, luŕ eta itxasoetan, beste mota bat be zabaldi-zabalean, izaŕetan eta bertan dabilzten beste izaki guztietan, beti bakoitzean berea dalarik. Izaki ainbat, IZAN-mota aña be, beti. Baña beti ere IZAN-asmoa bera nun-nai ta edonorentzat eta edozertarako ere, IZAN eten gabe edonorengan eta edozertan berdin, IZANA bat dalarik, IZAN bat amaika agerpenetan.

Eliztiaren zati guztien adierazpenekin egokiro alkartzen da IZAN'ena beren zentzunak nabaritzeko, onela agertzean: Yoseba naiz, Andoni aiz, ots, Yoseba IZAN, Andoni IZAN; ona naiz, gaiztoa aiz, ots, ona IZAN, gaiztoa IZAN; ni naiz, i aiz, ots, ni IZAN, i IZAN; egokiro IZAN, saminki IZAN; bizi IZAN, ukatu IZAN. Beti IZAN zentzuna ongi nabariturik; izatea da bereziki zentzun ori, argi ikus ditekena, norbait edo zerbait ba-dala adieraztean; oñaŕizko zentzuna beti, IZAN'arena: IZAN.

Oso esakun edeŕa dugu euzkeraz: «Izena ez da IZANa» diñogu saŕi. IZAN asmoak duen nabaritasuna ta gaŕantzia erakustean. Izena asmo bat da ta IZANa beste bat; eta bie-

netatik IZAN bigaŕen ori da lenengoa baño gaŕantzi aundienaz agertzen dana. Bai, orotarako oñaŕia izanik, ortik ateratzen da bere gaŕantzi osoa, atemateko eŕaza dana. Ta oŕela, IZAN-zentzuna gure oldozpenetan lenengoa azaltzen dana, ta IZAN izatea ororen elburu bikaña, IZAN zer dan zearo ta bereziki oartzean.

«IZAN edo ez IZAN» esan zuen bein Shakespeare englandaŕak ondo. Ba-dirudi bi mustuŕ oyen artean aurkakoa diran bi asmoetatik erabakitzea dala arazo guzia, beti IZAN izatean eta jaŕaitzean, IZAN beti izateko goi-goyenean egon diteken tokian; ez IZAN, len ere esan dugu, ezer eztalako. IZAN da oro, len, orain eta beti. Eta IZAN inguruan dago ta dabil bizia dan guztia, IZAN ororen erdia izanik.

IZAN, gure baitan IZAN eta guregan ere IZAN, gu geran guzian IZAN; IZAN'i eskeŕ gera gu, bizi gera gu ta ari-izaten gera gu, ta gure mami-mamian dugu IZAN, bizi ta men ematen, izatearen erdian, iturburu bat bezela, gu geran osoa eŕuz eta ugari ematen. IZAN'i eskeŕ, bai, gure baitan eta guregan eta izaki ororengan agertzen da yarduten dagoen eta ari dan guzia, beaŕ-beaŕean dana elikatzen, dana betetzen, dana indartzen eta zabaltzen.

Baña IZAN bat izanik, amaika litsetan azaltzen zaigu, bakoitzean bedegaŕa zayona erakustean, argi ta sendo, iñoiz, iñun eta iñorengan nasterik sortu gabe. Zentzunduna da gizonaren baitan, bereziki, gogoan diarduten bere men eta adieraspenak ongienik bereizten eta bakoitzari bere margo egokia ematen; orobat guregan, gure soñaren egipen guztietan egokiak edo noraezeko norabideak erakusten; berebat abereengan be, lana bera burutzean; eta bizi gabeko gauzetan ere, bakoitzaren izaera ongi zedaŕitzen; eta zabaldi osoan biraka ari diran izaŕ eta beste gorputzak beaŕa zayen bezela zuzentzen eta eusten. Nun-nai ta alde guztietan IZAN agertzen da ororen izaeran, igipen, bizi ta almena baŕeyatzen; oso kiri edeŕenean.



Ezer ezin bizi da, ezin ageri, IZAN eragiĺeak yarduten ezpadu; ezeren asmorik ere gatzatu, IZAN bitartez egiten ezpada. Beraz, IZAN izatean ikusi beaŕ gizadi ta izadi osoan bizi ta ari dan guziaren lenengo ta ezinbestekoa dan asiera ta guziaren iturburua; IZAN'ekin oro, IZAN gabe ezer ez, IZAN barik izaneza guztia; oŕa egi aundia.

IZAN naimenaren elburua ere dugu; guziok nai dugu IZAN, on izatea, indartsua izatea, sendagiĺea izatea, edo beste au, ori edo ura izatea, zerbait edo norbait izatea, IZAN beti. Ortxe naimenarekin IZAN alkartzea; alkartu ote diteke geron baitan bizi diran beste menekin?, ez dirudi, oŕen ertsiki bederen, IZAN oldoztu esan al bada ere, IZAN ulertuaŕen eta olako esakunetan agertzen baldin bada. IZAN asmoa berezi-berezia dalarik.

Noski, IZAN izatea da, berez izatea; ezin iñork ez eta ezerk ere IZAN egin edo sortzea; berez bizi da IZAN, emen, oŕ, an, nun-nai ta edonorengan, edo izatean; berez izatea ta berez ari be, beregan du izatearen almena, iñun artu eztuena, iñork ere eman ez diona; IZAN izatean dago indartsuki, izaera guztiari bizia ematen; eman bai IZAN, artu ez iñola be. Berdin esan dezakegu izatea dala IZAN, biak bat dirala iruditzen zaigularik.

Izatez du nork edo nork au, ori edo ura, oyetako bakoitzean beti IZAN dagoela ikustean; alakotz, izate guztietan begira dezakegu IZAN'en almena, orori dagokiola ertsiki. Almen aundia IZAN'ena, berez be duen almena, edonora ta edonorengana edatzen dan almena; ben-benetako almena IZAN'en dagoena, guztiz berezia dana; izanezean, ostera, almenik ez, len ikusi dugunez izanezean ezer ezpaita.

IZAN. Gizon bakoitzak, seme bakoitzak, bere gurasoai zoŕ die bizia, IZAN izatea, alegia, bere soñean dagoen bizia; ez, ordea, gogoan daukana, ta emen ezkutuki aundi baten auŕean gagoz. Nola da bizidun guzien baitan, gogoan, bizia izatea,

nola IZAN izatea?; siñistun geranok bereala ematen dugu erantzuna: Yainkoa'k emana da ororen bizia, ororen IZAN izatea; ta soñeko bizia, izatea, gizonak ematen badu, Yainkoa'k Berak emandako almenaren eskeŕ izaten da beti. Baña nola ta zergatik ematen du Yainkoa'k bai gogo-bizia, IZAN izatea, ta gizonaren almen ori?; oŕa ezkutuki aundia. Nola?, Berak daki, noski, nola ori; ta zergatik?, Berak be dauzkan asmo ta elburuengatik. Ezin emen gizonarentzat beste azalpenik aurkitu, siñismenak diñokiguna baño. Baña bizia, IZAN izatea, gure baitan dago argi, bai ta guregan be, bietan berea, ziñez.

Ni naiz diñogu guztiok, gure baitan eta guregan IZAN izatea dugula autematen eta oartzen; eta ongi ikusten dugu bi motazko IZAN ori, bi oyetan dagoen bizia, IZAN izatea. Guziok diñogu berdin ori IZANa bera baita guziona dana, guziok bizi gerala IZAN izatea, argienik ikusten dugulako naiz gure baitan naiz guregan, eta oŕela esatean bietakoa aipatzen dugu bat bakaŕik izango bailitzan. Bai, ni naiz, i aiz, oro da; guzioi dagokigu izate ikusgaŕi au, IZANa.

Gizonagan, abereengan eta landareetan IZAN nola aldatzen dan ikusi dugu zeatzez; baña gauzaetan, aŕietan, menastaetan, izaŕetan, zer gertatzen da? oŕ, guzi oyetan, ba-da IZAN, izaera ere, baña beti da berbera, oŕ aldakuntzarik ez, iñoiz; gauzak sortu ziranean edo soŕerazi zituztenean IZAN izan zuten lenengo unealditik, eta IZAN ura dute orain ere, berbera. Bizirik ez oyetan, baña IZAN bai, oŕengatik argi agertzen da oŕ bizia ta IZAN gauza bera ez dirala, bereizita dagozen bi baño, ezberdiñak diranetan, eiki; ta ondo erakusten digute zentzundunengan ikusten diran bizi ta IZANa ere gauza bera ez dirala ta benbenetan beti bi gauza dirala.

IZAN. Ikusi dugun guziaren ondorioa bezela, IZAN izatearena da erabat, IZAN gizonaren baitan, gizon eta abereengan ere, ta landareetan, ta gauza guztietan, eta izaŕetan bar-



na, zabaltasun aundienean, mugarik ez daukan izadian, orotan. Izaera aunitzetan agertzen dan IZAN. Ulertu ez nundik eta nola sortu dan, jakin gabe zertarako azaldu zaigun IZAN. Siñismenak Yainkoa'ren erabakietan edo irakasten digu, ta ortan geratu beaŕ, IZAN'en zentzun guztia, sendo geratu. Baña IZAN ba-dagoela argienik ikusten dugu guziok, enurarik gabe, noski; bai ta guziaren IZAN'ean bertan bizi gerala guziok, gure bizi guzia be, zearo ongi ta lasai bizi-izatean. Eta izadi osoa berdin IZAN'ean; izadiak izateko IZAN izatea guztiz beaŕa izan du, ulertzen ezpaita izadia IZAN gabe, auxe ororen aŕoiña dalarik. Ikusgaŕia, ziñez, IZAN izatea; ta ba--dala jakitean, gu geranok lasaitasun aundienean bizi-izateko.

## XXXVI. ZIO - IZTI

Uste ditekenez gizonaren eta Ludi onen biziaren barna ezer eztala ziorik gabe izan. Bai, zio batek soreragin du bizi ontan jayo ta yarduten ari dan oro, bakoitzean egokiro ta gogor eragiten; bear-beara da zio ori izan eta yardun, eta bere eragite ontatik bidezkoa dan ondorioa be gertatu bear. Naiz guri naiz edonori gertatzen zaigunaren aurean, berez sortzen zaigu guzioi galdera berbera: Zergatik?; bidezkoa dan galdera, galdera beara noski, egokia izango zaigun azalpena ezagutu al-izateko. Zergatik au?, zergatik ori?, zergatik ura?

Eta gauzak asko diralarik, amaika, beste ainbeste, zioak ikusteko guzien izate ta egipen guzietan barna, kaizu, mota ta margo guztietakoak dirala. Asko izan bear, gero, zioai buruz aztertu, jakin eta esan ditekena. Ainbeste izan zioak eta ain aundia beren zabaltasuna, bidezkoa dirudi asieran zio guztiak eta bat-banaka begiratzea ta aztertzea. Baña zenbat ote zioak gizonaren bizian?, zenbat Eri bakoitzean?, zenbat Ludi'an barna len eta orain be? Eziña, eiki, oro ikusi ta guziak ateman, eziña oso.

Zedaritu bear-izango dugu, noski, zioen arazoa nolabait; zelan baña?; arazo ta gai garantzitsuak begiratzean apika; ez edo dago beste biderik iñun, zedaritzearena baño. Ondorioz, azkenez sei edo zortzi gai edo arazo artuko ditugu asmo ori buruz zerbait esan al-izateko. Zeintzuk, baña, sei edo zortzi oyek?

Bizia, eriotza, itza, oldozmena, zentzuna, ezagumena, gogoa ta izatea; geyago autatu genezake, baña esandakoai buruz zioak aztertzea naikoa izango dalakoan gagoz. Aipatutako gai



guzti oyetan, bearbada ta egiz, guztietarako asoiña bera egotea edo alkaren antza orotan agertzea beñepein.

Dana dala, asi gaitezen biziaren zioak erabiltzen. Zergatik bizi gera?, ora lenengoz egiteko galdera beara. Zeintzuk ote dira bizi-izateko dagozen zioak? Lenengo galderari erantzuteko, enurarik ez, Yainkoa'k nai duelako izan bear, Bera baita bizi guzia sorerazi duena. Baña zio nagusi oren barnean, ba-dagoz bigaren zioak, erantzupen egoki bezela onartu ditzakegunak; e.b.: Gurasoen ezkontza, abereengan ar eta emea batutzea, landareetan ereintzea lurak sorerazteko. Ora Ludi'an barna bizia sortzeko dagozen iru zio bereziak. Beste ziorik ez ote?; orelaxe da nai ta nai ez, aipa ditezken beste zio txikiagoak esandakoen barnean, egitan, dagozelako.

Eriotza dala-ta, zergatik eriotza?, zergatik amaitu bear da bizia? Bizi betean gagozenean ba-dirudi bizi ori iñoiz itzali ezin ditekela, geron burua ain sendo ta indartsua ikusten dugun ezkero. Yainkoa'k bizia sortu duelako, bidezkoa da oren jabea Bera izatea; beraz Berak erabaki dezake biziari buruz gerta diteken guzia, eriotza be, noski. Baña ba-dagoz, oren barnean, eriotzaren zioak bezela artu ditzakegunak; e.b.: eritasuna, edozein ezbeara, edonork beste norbait erailtzea, goyera batetik jaustea, ito egitea, nork edo nork bere burua erailtzea, burdi batek arapatzea, ...; ora zioak bezela aipa ditzakegun batzuk. Eta guztietan bizia da itzaltzen dana, berak eriotza jasan bear duena.

Itza. Gizonak, eta gizonak bakarik, egin dezaken itza. Orela dalarik, bertan ikusi bear, bereala, itza izateko zioa, gizonagan dagoen itza egiteko almena. Alaz ere ori bakarik ez da naikoa, gizonaren baitan itza egiteko naimena be egon bear, beraz almen eta nayak alkarekin yardun bear dute itza sortzeko. Ta beste zio txikiagoak edo ikusteko ditugu: zerbait jakin-erazteko beara edo naya, zeredozer eskatzeko beara, galderak edo erantzupenak egiteko bidea bezela, solasean ari--izatea, itzaldiak egitea, ta abar eta abar. Amaika zio gizo-

naren bizian itza egiteko izan ditezkenak. Ikusgaŕi ta aipagaŕi, benetan, bere baitan eta beragan, biotan batera, gizonagan dagoen almena, almen aŕigaŕia.

Oldozmena. Zein ote onen zioa? Adimenaren erabiltzea edo ikus dezakegu bere zio bat bederen dalarik. Noski adimenak eragiten digu gure baitan egipenen bat gutxienez, egipenak asko ere apika; ta oyen artean oldozmena dugu lenengoetakoa, ta oldozmena adimenaren egituraz mamitzen dala esan dezakegu, ezinbesteko ondorioa bezela; bai, oldozmena adimenaren yarduteaz edo sortzen bide da. Baña beste zioak be ikus ditzakegu oldozmena sortzeko: Erabakitzeko beaŕa, eguneroko arazoetan egia edo argia aurkitzeko egokitasuna, ari-izateko bideak ere ikusteko naya, on eta txaŕa berezi ta atemateko guraria, amaika azpegietan yarduteko noraezetan barna ibiltzea. Alakotz, oldozmena ainbeste zioen ondorioa dugu ezinbestean, eta oso bidezkoa bezela azaltzen zaiguna.

Zentzuna. Ba al dago ziorik zentzuna izateko? Bai noski; ta adimenean edo oldozmenean ikusi beaŕ zentzuna izateko zioa. Jakiña, edozeiñi buruz zentzuna eratu edo egiten badugu, zera ori zer dan edo zergatik edo zertarako dugun jakin beaŕ da auŕetik arazoa argi ta garbi ezaguturik galdera bakoitzaren arauz, egokiro erantzun al-izateko, galdera nolakoa dan erantzun egokia emateko. Alan eta guzti, adimena ta oldozmena nolako, erantzuna alako izango dugu beti, ta almen bi oyetan aurkitzeko zentzunaren zioa; ta gai edo arazoak amaika diralarik, beste ainbeste zio be izatea noraezeko alegia; dana dala ta gaya edozein izan, beti adimen eta oldozmenean aurkitzeko gai bakoitzarentzat zioa. Ba al dagoz beste almenak ondorea bera aurkitzeko? Bai eiki, ta gogamena, asmamena, ezagumena, adin-antze, ta oarmenean aurki diteke, zentzuna dala-ta, zioren bat, naiz eta aipatutako lenengo bietan baño neuŕi txikiagoan izan.

Ezagumena. Gaŕantzi aundikoa da notin, abere, landaŕe



ta Ludi'an dagozen gauza guztien gorabera ezagutzea, bai ta Ludi'tik at, izaŕetan eta zabaldi guzian dagoena ere. Gizonaren adimena beti ari-izan da ezagupenak, ororen ezagupenak lortzeko alegiñetan; eta ez da gutxi mendeetan barna lortu duena; alaz ere, ezin esan dezakegu guziaren ezagupena daukagula, ta ezagutzeko dagoena nork esan zer dan eta noraño eltzen dan. Ezagumena, alegia, gizonaren almen aundienetakoa da, ta almen ontan ikusi beaŕ gizonaren aunditasuna. Ta zein ote ezagumena izateko zioa?, ba al dago zio ori, ziñez? Bai, geron gardiz, adimena erabiltzea edo; eiki, erabiltze ori zabal-zabala izanik, berez bide datoŕ ezagumena erabiltze oŕen zati bat dala izatea. Lenengo ta nagusia dan almen aundiaren ondorioa bezela agertzen zaigu ezagumena beste almen bat lez; eta ezagumena ikusten dugu adimenaren semea bezela; oŕa bada, zio ta ondorioa.

Gogoa. Izan al diteke gogoaren ziorik? Gogoa, zerbait danezkero, beste zerbaitenetik atera al diteke? Gogoa zein dan ikusi beaŕ edo da, lendabizi, erantzunen egokia eman al-izateko. Yainkoa'ren gogoa bada, eziñezkoa bide da edonorengandik edo ezerenetik sortua izan; Yainkoa betikoa dala-ta, eta Yainkoa bera gogoa izanik, eziña da, noski, beste norbaitengandik etortzea, askoz gutxiago beste zerbaitetik irtetzea. Baña giza-gogoa bai, berez ezer eztalako, ta sortua izan beaŕ izateko; beraz, ustekoa da benetan zio berezi bat ba-dagoela siñistu beaŕ dugu sortzeko ta ondorioaz izateko. Ta zioa Yainkoa'ren gogoa, Yainkoa bera edo, izan beaŕ; eziñezkoa da besterik izatea, ta oso bidezkoa bezela agertzen zaigu, argi; oŕela begiratu beaŕ dugu gizonaren baitan bertan, beste iñungo izakian iñoiz aurkitu ezin ditekena; ta ortxe be gizonaren garaitasuna, beste ororena baño gorago dagoela aitortu beaŕ dugu zalantzik gabe.

Izatea. Zein izan diteke izatearen zioa? «Izate» itza «izan» beste itzetik datoŕ, «izan»'en zentzuna mugatzeko egiña bide baizan. «Izan» gogai utsa dalarik, «izate» «izan» oŕen egipena

bezela ař diteke; beraz, asmo ortaz bederen «izan» izan edo diteke «izate»'aren zioa. «Izan», gogai utsa bezela artzean, zeri edo nori dagokio ziñez?; enurarik ez, geron gardiz, Yainkoa baita lenengo ta betiko izana, ta Berak be esan zuen: «Ni naizena naiz» (Idazteuna»— «Irtenera» 3-14). Bera da asiera, ororen asiera, ta bera ere amaya, «asiera ta amaya», AMI. Ořengatik eziña dugu beste nunbait izatearen zioa aurkitzea; alakotz «izate»'aren zioa ortxe dago, oso-osoa; ene ustez argi baño argiago.

Asieran diñodan bezela, amaika gai bizi ontan, oyei buruz beti galdera bera egiteko: Zergatik? Eta gizonaren gařamura guzietarako ain aundia dugulako, beti galdera ori egitea guztiz beařa bezela agertzen zaigu, eten gabe beřitzean, beraz betetzeko eziña edo da; jakiña, nork edo nortzuek eman ditzakete galdera guziai erantzun egokia, bidezko erantzun guziak? Ben-benetan eziña dirudi ori edonorentazt.

Beraz, ontzat artu beař ditugu, apaltasunez, barnetik soř dakizkiguken galdera asko ta asko erantzun egokia eman gabe; ta naikoa izan beař da guretzat arazoa zedařiturik artzea; apika asmo ontaz bakařik onartzean: Bizi ontan ezer ez dala ziorik gabe egin ditekena, alakotz ezer ez dala berez bakařik izan ditekena; nunbaitetik datoř guzia, ta siñistunak geranok Yainkoa da ororen iturburu, ororen zioa, aitortzen duguna.



## XXXVII. YARDUERA - IZTI

Zer ulertu beař dugu yarduera itzaz? Yardun-era?, jokatzeko era?, ari-izateko era? Bai, ořelakoren bat izan beař; eta yardueraz zer ote dago bertan egiarekiko alkařekin izan dedin? Egiaren asmoa baitirudi bere elburua zuzen, egia bera zer dan edo nolakoa dan edo, apika, zertarako dan jakin nai bide du yarduera-iztiak, bai ta guzti ori ondo atemateko eraman beař duen bidea, egikundea oso bereziki, azi-ořazietan ari-izatean.

Yarduera-iztiak eztu ontzat artzen egikundearen aldiña baizik eta edozertarako ortan agertzen dan bide zedařitua; begien auřean agertu beař da egikunde-aldiña; beste guztia ametsetan edo ibiltzea izan beař, ta eziña bide da egia lortzeko beste biderik aurkitzea. Ortarako, egikundearen aldiña izateko bide bakařa.

Asmo ortan zedařiturik geratzen dana ba-dirudi nolabait itsua edo ikusmen labuřekoa dala. Egia zer dan edo nolakoa dan jakiteko, yardueraren aldiña bakařik begiratzea naikoa izan ote diteke? Baña yardueraz ari-izatea ez al dagokio bereziki gizonarenganako yarduteari zuzen?; beregan soilik, bizi edo geratzea? Eta ene baitan edo ire baitan edo edonoren baitan ari-izatea ez ote da luř onenean ereintzearen antzekoa?; ez ote da ezer giza-gogoa egia zer dan edo nun dagoen edo nolakoa dan begiratzeko? Bai, noski, ta bide onena bezela artzeko be egiari dagokiona sendo ta zuzen atemateko; enurarik ez ortan.

Guzti ořengatik yarduera-iztia gai-zalekerizkoa dala uste-izan beař, eta ba-dakigu gai-zalekeriak gogoa zearo ezagutzen eztuela edo onartu nai eztuela. Baña gizona ez da gaya

bakarik, gai ta gogoa alkarturik baño; beraz, edozertarako gayaren baranoan bakarik ibiltzea gizona erena bezela artzea izan bear, asmo oso estuan zedaritzeko; ta ori ezin naikotzat artzea, ori gogoa guztiz arbuyaturik eukitzea dalako, egizale zurian iñola be onartu ezin ditekelarik.

Yardueraren aldiña ezin, jakiña, alboan utzi, zeredozer baitalako. Noski, zerbait jakiteko, edo aztertzeko edo erabiltzeko, yardun ari bear, eta yardutea edo da edozer artzeko edo onartzeko bide egokia; ez ezinbestekoa, baña bai izan diteken bidea. Beraz, beara bezela artu bear dan bidea; ta ezin arbuyatu diteken bide on bezela begiratu bear da. Baña egia ezagutzeko, ezin izan diteke ori bide on bat soilik, ibili diteken bidea; ezin izan, batez ere, edonolaz be, egia jakiteko ta erabiltzeko bide bakara.

Alegia, nun geratzen da adimena?, gizonak bere baitan duen goi-goyeneko men berezi ori? Ezinbestekoa dugu adimena gure baitan, izan diteken edozein yardun-bidean barna ari-izateko; ta egia zer dan edo nolakoa dan ezagutzeko ere, enurarik gabe. Alakotz, bear-bearezkoa bezela begiratu bear dugu adimena, erantzupen egokia jaso al-izateko, ta adimena ortarako bidea lez erabiltzean bakarik lortu al-izango da noraezeko elburura eltzeko. Orengatik, eziña dirudi xede ortarako autatu diteken beste biderik; beste bideak, alde batetik edo bestetik, adimena erabiltzera eramango gaitu, ala bearik. Ori dala-ta, ezin artu dezakegu yarduera ortarako bide bakara bezela.

Egia edonun agertu diteke: Gure baitan edo guregan, abereengan, landareetan, bizi gabeko gauzetan, izaretan eta zabaldian igitzen dan edozein gorputzean, ..., ots, zerki guzietan, beren izaeran, naiz oyetan bertan naiz ageri diteken atsikita euki dezaketen edozertan. Alaz ere, gure baitan ikusi bear da egia, bereziki; onengatik: Egia zer dan jakiteko, nolakoa dugun ikusi bear omen da, ta egia zer dan esateko, onela edo zedaritzen da asmoa: Egia, gauzak eta berai buruzko gure iritzia berdin izatea omen da. Beraz, asmoa orela artzean, ba-dirudi gure baitan izan diteken jokerari dagokiona dala, yarduerarekin alkartasunik izan gabe ta, len esan dugunez, adimenean edo gogaketan barna agertzeko bereziki. Alakotz, bearik ez yarduera nunbait egia dala bayezteko.



Ikus dezagun beriz yarduera-izti, esaten dutenez, zer dan: Yarduera-iztiak egiaren zantzutzat yardun-bidezko aldiña artzen du. Baña zer ulertu bear dugu «yardun-bidezko aldiña» esakunaz?, yardueraz bakarik atematen dana? edo atzematen dana? Eta zer ateman edo zer atzeman?, egia bera, apika? Orela baldin bada, ba-dirudi egia gayezko zerbait dala bakarik, yardun-bidezko zerbait soilik.

Baña egia, esaten dana ta izaten dana batera etortzea bide da. Orduan nola alkartu ditezke egiaren zentzuna ta yardun-bidezko aldiña? Ora or argitasun aundirik ematen ez duen asmoa, baitirudi egia, bereziki, gogoari dagokiola zuzen.

Nola jokatzen da egiaren asmoa adierazteko?, gezura ez dala esatean gutxi, oso gutxi izango litzake asmoa azaltzeko; egiaren asmoa beste goragoko galgan ikusi ta ulertu bear dalakoan gagoz. Sayatu gaitezen geron aldetik egiaren asmoa sakon eta egokiago begiratzeko, naiz eta len ere asmo ori buruz, zeatzez azalduta dagoen beste lan batean —EGIA — ESKIERTASUNA — ZALANTZA — idazpurutzat daukan lanean emana izan.

Jakiña, egia benetan zer dan atemateko, adimena erabili bear dugu sakon eta zabal, eztago beste bide oberik; beraz, gogo-almena dugu, egokiena, elburu ortaraño eltzeko; bide nagusia, noski, ta ezinbestekoa ere. Orduan nola xede ortarako beste biderik onartu?, batez ere gai-bidea bada?; eziña dirudi ta tokitan geratzen da ortarako «yardun-bidea».

Urun dagoz, alegia, gogo-bidea ta gai-bidea alkarengandik eta tarte oso aundia bien artean ikusten dana; egiaren

asmoa eukitzeko, lenengoa dugu zuzen eta beaŕena; ta bigaŕena okeŕ eta ezegokia bezela. Alakotz, argi dago onena zein ote zaigun onartzeko.

Eŕen eta zentzunik gabe geratzen bide da gai-bidea ta ezin egokia bezela onartu egiaren agerpena adierazteko; eziña da, benetan, gogoari dagokion arazoa gai-bidetik aurkitzea. Ori egiteko, asmo onen antzera aurkezten diran beste jokera guztietan bezela, —e.b.: «Berezko-iztia»— gogoaren izarian ari ez izateko, asten dan auŕe-iritzia dute onartzeko aŕoiña bezela, ta onartutako bide ortan itzal aundiak agertzen diranezkero, ilunpera joan beaŕ eta itsu bezela ari ere.

Gogoa ta gaya ditugu ibiltzeko bideak, batera iñoiz edo ez datozen bideak. Biak ditugu, egiz, onartzekoak, baña bakoitza bere izaeran yarduteko beti; eziña da beti alkaŕen aña azaltzea, edo bata bestearen bidea bezela erabiltzea; bakoitzak du bere elburua ta eziña zayo bestearena berea lez eukitzea.

Oŕengatik, egiaren ezagupena adimenaren bitartez bakaŕik, ateman beaŕ baldin bada, alpeŕik erabiliko da beste bidea, gai-bidea batez ere. Argi-argi agertzen da ori, ta eziña dirudi beste gisaz ikustea. Alan eta guzti ba-dagoz gayaren aldiña gogoarenaren galgan ipiñi edo ikusten dutenak, gogoari dagokiona arbuyatzeko naya auŕe-iritziaz indarturik edo dagozelarik.

Oŕelaxe oldozten dutenek ez dute onartu nai gogoaren nagusitasuna, ta oŕengatik nastuta dagozen bideetan barna ibili beaŕ dute eten gabe, naiz yarduera-iztian ari diranak naiz berezko-iztian, naiz beste oyetako bideetan ibiltzen diranak, beti gogoa ta gogoari dagokiona ezeztatzean, ukatzean. Oŕa okeŕ aundia, guzti oyei dagokiena, izpide onak iñoiz ontzat artzen eztuena, ta enurarik gabe, beti ere, poto egingo duena.

Esan dugunez, egia beti adimenaren bitartez ikusi ta ager-



tuko zaigu argi ta garbi, ta eziña izango zayo edonori ortarako beste bidea aurkitzea. Nola ari diteke oŕen setatsuki ta itsu, beltza dana zuria bezela ikusteko, oŕen isituki ta gotoŕ beti? Ezta eŕaz ori ulertzea, batez ere gogoa leentasunean garbi ikusten dugunentzat. Guztiz utz-egiña bezela agertzen zaigu yarduerazko jokera ori; baña bere jaŕaitzaleak ain ugari azaltzen dirala ikustean, egokia iruditu zaigu oŕetzaz zertxobait esatea.

Okeŕak aunitz, bai, beti gizonen baitan, bizi geran Ludi ontan barna; baña ezin aŕiturik geratu, betidanik gizonen artean okeŕak asko ikusi beaŕ diralako. Ba-liteke gure iritzietan noizpait okeŕ dabilena geu izatea; baña oŕengatik ain zuzen, beti izango zaigu egokia geron iritziak ageŕeraztean, al ditzakegun izpideak aurkeztea; ta auxe izan beaŕ guziei barne-barnetik eskatzen dieguna.

## XXXVIII. ZABALDEA TA ZABALDIA

Ludi'an bizi da gizona, ain aundia dirudien izarbel ontan, eta, egitan, zabaldearekin erkatzean ain gauza txikia bezela begiratu beaŕ dan Luŕ ontan; bai, eztago erkatzerik egiteko bi zera oyen artean. Jakiña, guretzat gaŕantzi aundiena du lenengoa, bertan bizi geralako, ta bertatik bizi-izateko gai ta bideak berak ematen dizkigulako. Alaz ere alboan utzi dezakegu Ludia, besteari buruz ari-izateko.

Zer eta nolakoa da zabaldea? Ludia bertan igitzen dan ezkero, gizona be zabaldean dagoela esan dezakegu, benetan oŕela baita. Baña zabaldea bere osotasunean artuta, zer ote da gure ezagumenean eta gure ulermenan?; zer ote bere aunditasun osoan? Aundia baita zabaldea; eztakigu nun asten dan eta nun amaitzen dan; nunbait, asiera ta amai oyek baldin badagoz. Gizonak ba-dauzka lanabesa egoki ta edeŕak zabaldea aztertzeko, ta aspalditik ari da oŕ goyan zer dagoen jakiteko nai ta alegiñetan; alpeŕik ala ere, oindiño ateman al-izan ezpadu goiko oŕen egi osoa.

Oso uŕutian biraka ari diran izaŕak eta beste izakiak, aindo ain aundian dabilztela ateman du, baña beti geratzen da galdera berbera berekiko egiten: Eta uŕutiagoan zer?; beti azaltzen baitzayo berak ikusi lortu duenean zabaldearen amaya azaltzen eztala; ta noraño uŕutiago ori?; ez dirudi amai ori, amaya baldin bada, gizonak iñoiz ikusiko duela. Betikotasun itza maiz erabiltzen dugu, baña beti aldiari buruz oldoztean; ez ote dago beste betikotasuna zabaldeari buruz oldoztu ezkero?; orduan zabaldia zabaldean dagoela esan genezake, noski zabaldiak ere asiera ta amaya ez baldin badauzka. Ta apika, berdin uste-izango genezake zabaldea dala zabaldian dagoena.



Betikotasunean, gure ustea egiazkoa baldin bada, alkaŕen antzekoak diran aipatzen ditugun bi azpegi oyek garbi edo azaltzen dira, aldi ta aldeari dagozkiela; batikotasuna aldirako ta betikotasuna alderako; baña betikotasuna bat dala uste dezakegu, beaŕezko ustea edo dugularik. Beste azpegiak ere, beaŕ bada, ba-dagoz betikotasunean, baña aipatzen ditugun bi oyekin zedaŕitu nai dugu gaurko gure solas au, batik bat, oyenetan, bere barnean, gizonak bezela bizi geralako, zabaldian eta zabaldean; aldi ta aldea betikotasunaren zatiak edo izanik.

Ba-dago zabaldean azpegi berezi bat begiratzeko, bere neuŕi-gabekoaren asmoa nolabait atemateko bide egokia zaiguna. Ortzilariek esaten digutunez, beren lanabesa auŕeratuenen bitartez, ikustera eldu diran izaŕak, uŕutienetakoak, gure Luŕ ontatik miloika argi-urteko arartean dagoz edo dabiltzate; ta argiak bere ibilian iroreiki batean 300.000 aneurkin bide egiten badu, ezin gure adimenean ararte izugaŕi ori atematea ain aundia baita. Ta ezin esan dezakegu ortzilariek ikusitakoa baño uŕutiago beste izaŕik ez dagoela. Zearo txundituta geratzeko gizona neuŕi-gabetasun oŕen auŕean.

Izugaŕia, bai, zabaldea, izugaŕi ere zabaldia, izugaŕi benetan zabalde osoa, jakin ezin baitezakegu nun asten dan eta nun amaitzen dan, egitan asten eta amaitzen baldin bada; oŕa izkutukia. Baña oŕ dago, ta bere zabaldegi osoan izaŕak aneika jira ta bira, eten gabeko igitura aŕigaŕiaz. Bai, aŕigaŕia guzian, zabaldean eta bertan dagoen orotan. Nundik datorkie izaŕai igitura ortan ari-izateko indaŕa?, kiri egokienaz, bakoitza bere bidean eta oŕen aundia dan abiaduraz? Ta oŕelaxe dabiltz tai gabe ta norabide berezian beti; oso txundituta geratzeko eraz.

Izaŕ bakoitza bere izaŕ-mutilekin, izarbelekin; auek aren inguruan birundaka, arekin izarti bat osotzean eta izaŕ-tal-

deetan bildurik. Izaŕ bakoitza oso dirdiratsu, su ta gaŕetaz beterik, bero ta argi zabal eta edonora bialtzean, eta oyen eskeŕ edo bizi dira izarbelak eta izaŕ-mutil guziak ere. Izaŕ bakoitzak be bere inguruko guziekin talde berezia osotzen dutela, ta talde bakoitza norabide batean dabil̃ela dirudi. Eta mil̃aka dira zabaldean dagozenak, guziak abiadura aundiaz eta kiri edeŕenean igitzean. Nola ta nundik datorkie oyei oŕela ari-izateko beaŕa dan indaŕa?; noski, Yainkoa'gandik ezpada ezin ateman beste ituŕirik.

Eta zerez dagoz egiñak zabalde osoan dabiltzaten izaŕak eta beren inguruetakoak? Orain arte izaŕ-ikerleek aztertu al izan dituzten izaŕ eta izarbelak, Ludi'an dagozen gai guzietakoetaz, aŕiaz, metaletaz, laspeletaz, ubil̃etaz eta abaŕ; eta oŕek erakusten du guziak asiera berbera batetik edo datozela; ta galdetzeko bereala, guzia oŕela baldin bada: Nun dago edo zein da ororen asiera ori?; ta izaŕak ainbeste diralarik, eziña edo dirudi erantzun egokia aurkitzea.

Ludia, alaz ere, ez bide da beste zabaldeko izakiak bezela ta bere izakera aztertu ezkero, bera ta beste goi-izakien artean ezberdintasun aundia dagoela ikusten da; bertan luŕ eta ura aindo oso aundietan agertzen dira, ta laspelezkoa dan egu bat zearo inguraturik dago; beraz, luŕa, ura ta laspelaz egiña dagoela esan dezakegu, iruretan izaki bereziak bizi diralarik: gizona, abereak eta landareak lenengoaren gañean bizi dira, aŕañak bigaŕenean murgildurik eta egaztiak irugaŕenean ega-egiten; eta egua beaŕa da izaki guzien bizirako.

Luŕa ote da, bere osotasunean, Idazteun'ean aipatzen dan «Luŕ atsegindegia»? Ala dirudi, zabaldeko beste izakiekin erkatzen bada. Noski, gure eguzkiaren beste izarbeletan Luŕ'ean dagoen bizia eziña baita; gure izartian, beraz, Luŕ'ean bakaŕik dago bizia. Uŕuneko beste izartietan, apika, ba al dago oŕelako bizia? Nork jakin!, ezin ukatu izan ditekela, baña oŕi buruz eskiertasunik ez iñun.



Eta bizia, giza-bizia, Luŕ gañean bakaŕik dagoen ezkero, bidezkoa da Luŕa bertan gizona bizi-izateko bereziki egin zala, jakiña Yainkoa'k egin zuela ustea. Ta ba-dagoz baldintzak ugari bizi ori izan diteken: Egua, arnasa artzeko; eguzkia, bero izateko; erakaŕ-indaŕ orokaŕa Ludi gañean egon eta ibiltzeko; azkuŕia izateko, Luŕ'ean berean dagoen almena; edatekoa dan ura, ta abaŕ; beraz, ba-dago bereiztasun aundia Ludi'an, beste iñun ikusten ez dana. Guzti ori eziña da berez oŕela sortu dala ustea, ta bidezkoena dirudi norbait izan dala ori egin nai-izan duela ta oŕela burutu duela; nor izan diteke egil̃e ori Yainkoa bera ezpada? Oŕa Yainkoa siñisteko izpide oso aundia.

Zabaldeari buruz ari-izatean, bere edapen osoan bide dagoen gai bateaz asko itzegin da aspalditik eta «eter» izena eman zayo; aspaldikoak eter ori argi ta tximist-indaŕa ibil-erazteko ta zabaltzeko, guztiz beaŕa zala uste zuten, baña eztago, geron gardiz, oŕekiko beŕi zeatza, ta izatekotan laspelezko gaya dala dirudi. Eta galdetzeko: Beaŕa al da eter ori zabalde osoan igitzen dan guztia, ain zuzen, egoteko ta ibiltzeko?; bearbada bai, baña nork jakin dezake ori eskiertasunez?

Alakotz, izkutuki aundi bezela begiratu beaŕ edo da zabalde osoan dagoen ororen ingurua, dagoena ere eiki; ta gizonaren almena, ain aundia dan almena, azalpena aurkezteko eziñean geratu beaŕ da. Izkutuki aundia, bai, zabaldearena, berari buruz oldozteko indaŕ aundiaz erakartzen duena; asko oldoztu da, eiki, gizonen artean, adimen zolienak ere mendeetan barna, azkenez guzia ulertu eziñean geratzeko.

Eta zergatik edo zertarako soŕerazi dira zabaldean birundaka dabilzten ainbeste izaŕ, ainbeste argizagiak? Ba-dakigu bizi geran Ludi au ta eguzkia, ta il̃argia, apika gure izartia osotzen duten ortziko beste izakiak, gizona bizi al diteken egiñak edo dirala; baña zabaldeko beste izakiak, aneika ta aneika, birundaka ari diran beste izakiak zertarako dagoz

egiñak?, edo zergatik?; ba-dirudi izateko bakaŕik izatea bidezkoa ez dala, elburu bat edo batzuk betetzeko izan ditezkela, gure adimenentzat ulertu ezin diteken xedea. Eziña edo ori be jakitea, baña ezinbestekoa dala uste beaŕ dugu ori izatea.

Ezta eziña, ene iduriko, geroko batean edo, gizonaren adimena arazo ortan sakonago ari-izango dala; alaz ere, lan zal̄a oŕi buruz yardungo duena. Eziña ez edo, zal̄a bai, eskierki, iñoiz lan ori burutzeko aleginduko duenarentzat, naiz aztertzekoa aundia izan naiz txikia izan; eta gizona, jakiteko, iŕikaz beterik beti, jakin eta aztertu nayean eten gabe bizi beaŕ; bidezkoa dan nayaz, alboratu ezin diteken iŕikaz, berezkoak, alegia, nai ta iŕika, gizonaren izaerak eskatzen edo duenez.

Zabalde ta zabaldiaren asmoak, zuduz beterik beti gizonaren adimenarentzat; ba-dago bietan zer ikasi, zenbat ikasi; guzia noski bere osotasunean eziña edo gizonaren ulermenaz atemateko. Ta, alan eta guzti, gizonak ez du iñoiz etsiko ororen aztertzea egiteko, geron, guzion adimena asetzeko beti gai ta arazoak aski izango ez diralako. Gai berezienak, alegia, zabalde ta zabaldiarenak, biak izkutukietaz beterik dagozelako.



## XXXIX. GIZONA

Gizona, bete-betea dan itza, beteagoa dan zentzuna, gizona. Nor ote da gizona?, zer ote da gizona?, nolakoa da izaki aundia dan gizona? Beraren asmoa zabaltasun bereziaz edaturik agertzen zaigu benetan. Lenengoz onela ikus dezakegu gizona: bi atalez osotua, gogoa ta soña, biak egokienik alkartuta, gizon-izakia osotzean eta beragan, oŕela, bizia, bizi edeŕa, azaltzean. Ona gizona Ludi'an jaŕita, luŕ gañean zutik, beste izakiak baño izakera mazalagoaz, oldozten, mintzatzen, igitzen, ari-izatean. Ona gizona, bai, jaun eta nagusi, goren-goreneko izakeran.

Bera osotzen duten bi atalak, esan dugunez, ertsiki alkartuta dagozenak, eta bizia burutzean, bakoitza bere izakeraz eta bere elburuaz ikus dezakegu argi, oso ezberdiñak diran izakerak, baña gizona ederkienik osotzean. Gogo ta soña deitzen ditugu bi atal auek, lenengoak asmo, oldozpen, gogapen eta goi-goyeneko gogayetan eten gabe yardutean; bigaŕenak gayezko, soiñiztizko, eginkizunetan, tai gabe ere, ekitean. Ikus dezagun zeatzez bi jokera oyen nolakotasun berezia, beren gorabera nola agertzen zaigun.

Asi gaitezen soña begiratzen eta bereala ikus dezakegu atal batzuetaz egiña dagoela, atal bakoitzak bere eginkizun berezia burutzean, bat bakaŕik bakoitzak eta guztien artean soñaren betekizuna, egokienik, osotzean. Atal oyen artean beso ta zangoak agertzen dira gauzak eramateko edo besarkatzeko lenengoak, eta ibiltzeko bigaŕenak; eta oyen mutuŕetan esku ta oiñak, beste atalak bezela, lenengoak gauzak artu ta oratzeko, ta bigaŕenak soña zutik eukitzeko ta uŕatsak ema-

teko; biak, esku ta oin, beren atz eta beatzak dauzkatela, ta ayen elburuak ondoenik bete al-izateko.

Soñaren goi-goyeneko aldean burua azaltzen da beste atal guzien nagusia dalarik; bai, bertan kokaturik baitagoz begiak, ikusteko; belaŕiak, entzuteko; suduŕa, usaintzeko; aoa, txastatzeko; ta buru osoan, beste atal guztietan bezela, ikutzeko. Buruaren auŕeko zatia arpegi deitzen dugu, esandako beste zatietaz osotua, ta oŕek ematen du, bereziki, giza-arpegi edeŕa; naiz buruaren goiko ta atzeko aldeetan naiz arpegian uleaz estalita dauzkagu. Guzti ori buruaren azalean dagoela oaŕ dezakegu ongi ta bereala; baña buru-barnean dago bere izakera gaŕantzitsuena.

Ikus dezagun au zeatzez eta aŕetaz: buru barnean garuntegia, burumuiña, muiñazalaz; ta burumuiña, muiñaren bidez, ezuŕ guztietan barna zabaltzen da egokiro. Garuntegia, orezko zimuŕak osotzen dutelarik, konorpen guztien oñaŕi ta igitura guztien asiera da ta kirioen bitartez, konorpen eta igitura ari dira ondo. Ta buruko barne guzti ori zertarako dago oŕela jaŕita?, zein ote da bere betekizun berezia?; ene ustez soin guziaren eginkizuna zuzentzeko, kirian erabiltzeko ta atalen jokerak oro, kirioak beaŕ dan bezela bizi al-izateko, egokiro ari ditezen zaintzeko. Orixe bide da buruaren eginkizun guzia; baña buruari, geyenetan, beste eginkizuna gañeratzen zayo, egitan berea eztana: oldoztea, gogaketak egitea, izpideak ematea ere. Buruaz oldozten dala esaten da nun-nai; buru aundiko gizona ere entzuten da, buruaz ikastea, ulertzea egiten dala be, ta beste oŕelakoak.

Baña, benetan, buruaz egiten al da guzti ori?; ezetz erantzun beaŕ dalakoan gagoz, ori gogoari dagokiolako bereziki; ta buruaren eginkizun guztia soiñiztikoa dirudi bakaŕik, soñaren beste atal guziena bezela. Alaz ere burua beste atalen nagusia lez dala begiratu beaŕ da, ziñez. Eta bost zentzuen jokera ta soin osoan gerta ditezken konorpen guziak, kirioen bitartez, buruan oaŕerazten dira, araño berealaxe eltzean. Eta



lan ortan ikusi beaŕ da, geron gardiz, buruaren elburu guzia, beste soin-atal guztien gañean, goragoan jaŕita dagoelarik.

Soñaren atal nagusia, bai, baña beti soin-atala izanik, gizonaren gayezko zatia, beste atalekin alkartuta betetzen ongi. Eta bere auŕean dagoen arpegian argi azaltzen da gizonaren biziaren azpegi zabala, gizonen artean alkaŕ ezagumena, ta konormenak oaŕ-eraztean. Ben-benetako gaŕantzia buruan eta arpegian dagoela, gizonaren nortasuna ederkienik burutzean, zer eta nolakoa dan alkaŕen auŕean ere nabari--erazteko.

Soñaren beste atal guziek beren eginkizuna burutzen dute, bakoitzak berea; ta ororen artean biotza da aipagaŕi oso, soin guziaren barna dabiĺen odola, neuŕiz ibiltzeko eragiten duelako txarakil bat bezela jokatzean; orixe da bere eginkizun berezi ta bakaŕa, eten gabe betetzen duela. Buruaren antza, atal au be gogozkoak diran jokeraen ituŕia izango bailitzan aipatzen da nun-nai ta zabalean; egunero ta guzien aldetik onelako esakunak entzuten dira: Biotz oneko, bioztun, biotz txaŕa, biotz aundikoa, ta beste onelakoak, ontasuna ta gaiztasuna biotzean kokaturik izango bailiran. «Biotzondo» deitzen zayo euzkeraz, gogozkoa dan jokera bati; zergatik onartzen dira alde guztietan, biotzaren eta buruarenak bezela, egitan bereak eztiran jokaerak?; biak soñaren goiko tokietan dagozelako?; nola otu zitzayen gizonai asmo oyek onartzea?; gure baitan ditugun jokerak guregan egotea bezela begiratzea? Eziña edo da oŕi buruz azalpen egokia aurkitzea, baña naiz burua naiz biotza, soñaren atalak diralako, gayezko, soiñiztizko jokerak dira ta izan beaŕ dira bakaŕik, ez, iñola ere, gogozkoak.

Ikus dezagun orain gizonaren beste atala, nagusia duguna, gogoa: Zer da gogoa?, nolakoa da gogoa? Noski, gogoa dan ezkero, ezin erarik ukan, soñarenaren antzekoa beñepein eta zentzuen bitartez oartua eziña dala-ta, oso zaĺa izan beaŕ no-

lakoa dan esatea. Alaz ere ongi oartzen dugu soñarekin alkartuta dagoela ta bere eginkizuna betetzean ari dala, ta bere baitan dituen men guztien bidez yarduten duela; ta ondo bereizi dezakegu berak bere baitan duela bizia, soñak beregan berea duen bezela; beraz bi bizi-mota edo bi bizi-azpegiz ikusteko gizonaren bizia.

Eta gogoa ikusi ezin dezakegun aŕen, argi atematen ditugu bere menak zeintzuk diran: Adimena, oldozmena, oarmena, ulermena, gogoramena, ..., ta maitasuna, goŕotoa, lerak, kordamena, begikotasuna, ayeŕak eta abaŕ. Guzti oyen bitartez egiña dugu gizonaren barneko bizia, lekorekoa soñari dagokiolarik, biak alkaŕengandik ongi ta guztiz berezita dagozela, ta biziaren azpegiak asko dirala erakustean.

Gogoaren bitartez gure bizia zuzendu dezakegu, ta berari eskeŕ beaŕ dan bezela burutu ere; gogoa da, alakotz, bizi guziaren eragiƚea. Baña ba-dago gogoaren eta soñaren egipenetan alkaŕenganako aŕemanen bat, onela: Zentzuen bitartez artzen dugun gai-oarpena, nolabait, gogoan be agertzen da; e.b.: begien bidez ikusten da ta batera gogoan ikuspena nolakoa dan azaltzen da ondorioa bezela; ta berdin gertatzen da beste zentzuen egipenetan be, ta egipen guztietan era berean beti; e.b.: irakurtzen dugunean, begiak izkiak ikusten dituzte ta gogoak izki oyen zentzuna atematen digu ongi, egipen biak batera, jakiña.

Gogo ta soñaren egipenen artean dagoen ezberdintasuna, baña bide batez aŕemana ere garbi begira ditzakegu. Alan eta guzti ba-dago beste zerbait biei dagokiena bereziki: Itza; bai, itzak eratzen dira gogoan eta gero, ondoren, aoan oguzten dira ozenki. Ba-dirudi itza dala gogo ta soña egokienik alkartzen dituen bidea, naiz gogoan naiz soñean gauza berbera dalako; ta itzen bitartez gogoan oldozten da, ta itzen bitartez soñean, aoan, itzegiten da.

Gogoa soñean dago enurarik gabe, baña, soñean, nun? soin osoan?, ala soñeko zati gaŕantzitsuena dan buruan



bakaŕik, apika? Ez deritzaigu ori zeatzez oartu al ditekela; ala ere bidezkoa dirudi buruan bai, bereziki dagoela, saŕitan esaten baitugu buruaz oldozten dala ta oldoztearen egipena, benetan, gogoan burutzen dalarik, oŕela ateratzen dugu edo atera al dezakegu gogoa buruan kokaturik dagoela; baña gogoaren edapen osoaz? Gogoa dala-ta, gairik gabekoa izanik, nolakoa da edapen ori?, ba al du irudia?; ba-liteka nolabaiteko irudia ukatzea, baña irudi ori nolakoa dan jakitea eziña edo dalarik. Dana dala, era ontaz ala artaz, bayeztu dezakegu, ziñez, gogoa soñean dagoela, gure baita guregan eiki.

Esan dugunez, alakotz, auxe ikusi beaŕ dugu, gure bizia osotzen duten gogo ta soña, bien artean bizia burutzen dutelarik; aŕigaŕiak oso irurak, gogo, soin eta bizia, gizona egiten dutenak, eta oŕengatik aŕigaŕia be gizona bere izaeran, izaera edeŕean, Ludi'an bizi diran beste izaki guztiak baño galga goren-gorenagoan bizi ta ari dana. Oŕela dala-ta egiz esan dezakegu gizona izaki nagusia dala, izaki edeŕena, izaki gaŕantzitsuena, enurarik gabe.

## XL. YAINKOA

Yainkoa'ri buruz mintzatzeko, apaltasun aundienaz eta maitasun beroenaz ari-izatea beařena ta bidezkoena izan beař. Nor naiz ni lan ortan yarduteko?, nor ote da gizona oří buruz ezer esateko?; iñor ez, noski. Baña Yainkoa gure Aita da ta aitari buruz ari-izateko, ausartia izan diteke gizona semezuřian; ontzat artzeko izan beař da ori, aitagana semea jotzea maitasunaz bultzaturik. Goazen, beraz, asmo ta xede oyetaz yardutean, bidetzat siñismena ta Idazteuna artzean.

Nor da, nolakoa da Yainkoa?; eřazago edo lenengo galderari erantzutea bigařenari baño. Berak esan baitu: «Ni naizena naiz»; ortan «izan» asmoa dagoela-ta, baña zer ote da «izan»?, nola ulertu «izan»'en zentzuna?; «izan» ezer bada, berez izan beař, «izan», eiki, egin ezin ditekena baita, «izan» izatea dalarik; oř, anurarik gabe, ezkutuki aundia, gizonaren adimenak ateman ezin dezakena; almenik ez, alakotz, ori argi ta garbi ikusi al-izateko; ta Yainkoa Bera dana dala aitortu beař da, bera ta berez dana.

Noizdanik da Yainkoa?, ta noizdaño? Betidanik, alegia, ta betidaño be, beti Bera baita, betikoa baita, eta betikotasuna Bere baitan edo dago, betikotasuna ere Yainkoa'rengan murgildurik. Nola ulertu guzti ori?; ulertzerik ez, siñistu egin beař, eta gogoz siñisten dugu. Yainkoa'rengan dago guziaren asiera, Bera baita «a-mi» betikotasunean, Yainkoa'gan.

Eta Yainkoa bat da, bat bakařik; alaz ere iru notin ikusteko Yainkoa'gan: Aita, Semea ta Gogo Deuna; ortxe Irutasun Deuna: «izan»'ean bat eta «izate»'an iru, «nor-izanean bereiz, zer-izanean bakař» Orixe'k, ongi, esan zuenez («Urte



guziko Meza-Bezperak» — 503'gn. oř.); bat izanik eta iru izatean. Eta Semea Yainkoa'ren Itza da, guzia egin zuen Itza. Eta Gogo Deuna Yainkoa'ren maitasuna, Berak egindako guzia maite baitu. Guzi ortan ikusi beař gure aldetik ororen oñařia, siñisten dugunaren oñařia.

Zuk, Yauna, guztia egin duzu, zure xedeetarako egin, eiki. Zuk aldia ta aldea egin dituzu; zuk, era berean, gizona ere egin duzu, zure iduriz eta zure antza izateko; ta Zu gogoa zeran ezkero, antza ori gizonaren gogoan ikusi beař da, ez soñean jakiña. Zergatik eta zertarako egin duzu gizona? Ortan be, eziña zaigu erantzun egokia ematea. Baña, alan eta guzti, ořa egia, gizona baitago Ludi ontan bizi dalarik. Eta Yainkoa'ren xedeak be Bere betikotasunean dagozela siñisteko, eskierki.

Ba-dirudi aldi ta aldea gizonarentzat egiñak dirala, gizonaren bizia izan al-izateko, ta Zuk Donoki ta Ludia ere egin dituzu; Ludia gizona bizi al-izateko bereziki antolaturik ikusten dugu, eguzkiaren izař-taldean jařita, eguaz bilduta arnasa egin al-izateko, luř-atsegindegi buruturik. Ikusgařia, benetan, Ludi'aren bizia ta bertan bizia dan guztia nola dagoen eta nola dabil̃en, bertan gizona, abereak eta landareak, bakoitza bere eraz, bizi-izaten; eta bizidun guztien artean gizona nagusi oso, Yainkoa'ren antza beti.

Eguzkiaren izař-taldean, Ludi'an bakařik agertzen da bizia; beste izarbel eta izař-mutil̃etan bizirik ez, oyetan guzia gayezkoa baita. Eta beste izař-taldeetan ba al dago gure Ludia bezelako beste izarbelik, beste gizonak edo bizidunak bizi diranak?, edo beste bizi-mota batean bizi ta ari diranak? Nork jakin!, baña ba-dirudi ori izan ditekela, ain aundi ta zabala zabaldegia dalarik. Dana dala, emen dugu Ludia ta bertan ari gera bizitzen.

Guztiz ařigařia Ludi'aren bizia, orobat gizonaren bizia, zenbat zeatz bizi oyetan eta guziak gizona bizi al diteken, bai

ta zein ederki ari diran zeatz guzti oyek Zuk, Yauna, egin duzun gizona bizi al-izateko; ongienik egiña, benetan, gizona.

Zuk, Yauna sorerazi dituzu Donokia ta Lura; ikusi dugunez, Lura gizonarentzat, gizona bertan bizi-izateko egin duzu; ta ustekoa da Donokia ere gizonarentzat egin duzula; jakiña, Lur'eko bizia aldian irauteko, ta Donokia geroko betikotasunean. Biak, Donokia ta Lura asiera izan dute sorerazita baitira, baña amaya Lurak bakarik izango du, ain zuzen aldia amaituko danean; Donoki'ak amairik ez eta, ondorioaz, betiko iraungo du. Etzegoen, eztago, bearik Zu'retzat Donoki'rik izatea, Zu betikotasunean zure baitan batez ere, zoriontsua zeralako, ta Donokia Zu're sorkaria da, beste sorkari guziak bezela; bidezkoa da, orengatik, Donokia gizonarentzat be egin duzula, an geroko betikotasunean zoriontsua ere izan dedin.

Zuk zure sorkari guztiak maite dituzu ta sorkari guztien artean gizona ere noski, ta gizona bereziki, gogoz eta naimenez maite duzu. Orela izanik, zure maitasuna duela jakitean, dagoaneko zoriontsu ikusi bear du gizonak bere burua; on aundiagorik izan al diteke Zure, Yainkoa'ren maitasuna baño? Eta guztiz argi agertzen da gizonarentzako Zure maitasuna; bai, maitasun eta maitasun aundia izan bear Zure Seme kutuna, Zure Itza, Irutasun'aren bigaren notiña emateko, gizonarentzat eman baituzu; ta Zure Itza gizon egiña geratu zan, Zure xedean beti, jakiña; ta Neskuts'aren bitartez gure antza, gizonaren antza artu zuen aldian.

Gizona sortu zenuenean bizi-izateko araua eman zenion, bizi zoriontsua izateko arau egokia; baña gizona, laister, arau ortatik atera zan ergelki, gizonen lenengo ogena egitean, geroko gizadiarentzat ondorio orokara biurtu zana. Eta ogen ori arokeriagatik egin zan; «yainkoak bezela izango zerate» esan baitzien sugeak bere ziltzaldian. Eta len ere Zuk sorerazi zenituen gotzonen artetik Luzbel eta bere jaraitzaileak arokeriz ere, beren ogena egin zuten Zure aurka jeikitzean; beraz, zio berbera beti, arokeria, gotzonen eta gizonengan. Bidezkoa zanez, biak, gotzon eta gizon zigortu bear-izan zenituen, gogor eta zuzentzaz zigortu. Nolabait gotzonen ogena aundiagoa edo izan zan, beren izaera gogozkoa izanik, ta betidaño zigortu bide zenituen; azketsiko al duzu noizpait ogen ura?, apika bai urikaltasunez beterik zagozen ezkero.



Gizonaren ogena azketsi duzu bein eta beriz, zigor batzuk batzuetan gizonari jari ondoren, gizona, gogozkoa be izanaren, gayezkoa ere dalako edo. Ta gizonarenganako Zure maitasuna ain aundia dalarik, zearo azketsi nai-izan duzu, Zure Seme kutuna eman arte. Ontaz gizona, Zuri buruz, eskerónekoa izan bear du gogotik, Zure doai ain aundia artu duelako. Alaz ere gizona, ergel utsa, ogenak burutzen jaraitzen du, arokeriz beti ta erokeriz beti ere agertzean.

Aundia zera, Yauna, ontasun utsa Zure izaera, Zure semeenganako beti urikaltasunaz bete-beterik. Zer geyago nai al diteke gizonarentzat? Zure Itza'ren gorputza be janaritzat eman diozu gizonari, ta bere odola be edaritzat. Ezin, beraz, geyago eskatu gizonaren aldetik, Zu izatean guzia baitauka. Zoriontsua benetan orela gizona, guztiz zoriontsu. Ta, alan eta guzti, gizona beti ogenerako makurturik, ulergaitza dan eraz.

Eziña zaigu, ziñez, Zure ezkutukiak ulertzea; noski, ez diguzu eman ezkutuki oyek ulertzeko adimena naikoa, ta orela izatea Zure naimena bezela onartu bear dugu. Zuk esanda ta Idazteun'ean agertzen danez, onela adierazi diguzu Zure naimen ori: Zu siñistea ta Zu maitatzea; ta Zu siñetsi ta Zu maitatzen zaituenari betiko zoriona eskeiñi diozu sariz, Zure ontasun aundiaren ondorioaz, guzia. Elitzake egon bear-izango gizonaren baitan enurarik, Zu gogoz siñetsi ta Zu

gogoz maitatzeko. Alan eta guzti, gizonak, onen aula izanik, beti Zuregana jo beař du ařenka ta ařenka, ořela ari-izateko Zure doayaren bila.

Ta onela amaitu nai dut nire lantxo au, ene aldetik ere, bide ortatik zintzoki jařaitzeko nayean, barne-barnetik onela mintzatzen, oyukatzen: Siñisten zaitut, Yauna; maitatzen zaitut, Yauna!



## AURKIBIDEA


| | | | |
|---|---|---|---|
| Itzaurea | | | 5 |
| I. | — | Bizia | 10 |
| II. | — | Itza | 15 |
| III. | — | Adimena | 20 |
| IV. | — | Oldozmena | 25 |
| V. | — | Zentzumena - Gogamena - Asmamena | 30 |
| VI. | — | Zentzun - Zentzu | 35 |
| VII. | — | Ezagumena | 40 |
| VIII. | — | Oroimena | 45 |
| IX. | — | Irudimena | 50 |
| X. | — | Adin-antze | 54 |
| XI. | — | Naimena | 59 |
| XII. | — | Ayuřia | 64 |
| XIII. | — | Oarmena | 69 |
| XIV. | — | Izadia | 74 |
| XV. | — | Alde ta aldi | 79 |
| XVI. | — | Izaera - Izakera - Izaneza - Betikotasun. | 84 |
| XVII. | — | Sorkaridia | 90 |
| XVIII. | — | Gaya | 95 |
| XIX. | — | Gogoa | 100 |
| XX. | — | Izatea | 104 |
| XXI. | — | Giza-barne | 109 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| XXII. | — | Egia - Eskiertasuna - Zalantza ... ... ... | 113 |
| XXIII. | — | Zuzentza ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 117 |
| XXIV. | — | Azkatasuna ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 122 |
| XXV. | — | Eskubidea ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 127 |
| XXVI. | — | Eginbidea ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 132 |
| XXVII. | — | Oniztia ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 136 |
| XXVIII. | — | Bidezkotasuna ... ... ... ... ... ... ... ... | 140 |
| XXIX. | — | Burutabidea ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 145 |
| XXX. | — | Irizmena ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 149 |
| XXXI. | — | Eriotza ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 153 |
| XXXII. | — | Lera ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 157 |
| XXXIII. | — | Gogapea ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 161 |
| XXXIV. | — | Kordamena ta konormena ... ... ... ... ... | 165 |
| XXXV. | — | Izanizti ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 170 |
| XXXVI. | — | Zio-izti ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 176 |
| XXXVII. | — | Yarduera-izti ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 181 |
| XXXVIII. | — | Zabaldea ta zabaldia ... ... ... ... ... ... | 186 |
| XXXIX. | — | Gizona ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 191 |
| XL. | — | Yainkoa ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 196 |

KARDABERAZ BAZKUNA

IDATZI TA ZABALDU

"AURRERA-BETI"